# Goienkaria

2006ko abenduaren 22a > Egubakoitza > VII. urtea > 270. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Gizarteak behartu behar ditu alderdi politikoak normalizazioa adostera"



**Ander Rodríguez**
Ezker Batua > 09

**G2a** **Euskaraz ez dakiten gurasoei aholkuak** > 43

**BERGARA**
**Kontzertua egingo dute Orfeoiak, Gaberok, Aritzetak, Bandak...** > 26

**ARETXABALETA**
**Sahararekiko elkartasun jaialdia egingo dute bihar, zapatua** > 32

**ARAMAIO**
**AHTren gainean erreferenduma egitea edo ez erabakiko dute** > 38

**EKONOMIA** > GABONAK

# Ia 46.000 euro inbertitu dute udalek Gabonetako argietan

**DENETARA** Ibarreko udal guztien artean, 45.831 euro inguruko gastua egin dute argi apaingarrietan

**OÑATI** Gehien Oñatiko Udalak gastatu du, alde handiarekin: 25.200 euro, eta hurrengoak, Bergarak, 7.615.

**LOTERIA** Gabonetako beste ohitura baten, loterian, iaz bezain beste gastatu dute aurten debagoiendarrek > 04




AURKEZPENA Erretratuan, Aretxabaletako Udaleko, Eibar futbol taldeko, Arizmendiko eta Realeko ordezkariak. XABIER URTZELAI

## Emakumeen futbola bultzatzeko, hiruko torneoa bihar Ibarran

Realak, Eibarrek eta Debagoieneko jokalariekin osatutako taldeak jokatuko du bihar goizean (Ibarra, 10:00) Aretxabaletan. Emakumeei zuzendutako kirola bultzatzeko asmoarekin antolatu du Arizmendik txapelketa hori, baina ez da ekimen bakarra izango, hilaren 29rako ere hainbat txapelketa antolatu dituzte-eta: kadete eta infantil mailakoen futbol8 txapelketa, batetik, eta areto futboleko nesken txapelketa, bestetik. Horren guztiaren berri eman zuten martitzeneko prentsaurrekoan. > 41

**JAIAK** > SANTAMASAK

## Santamas eguna Arrasaten

Gaur, egubakoitza, azoka eta beste ospakizun asko dago Arrasaten




Aurtengo kartela. HARITZ LARRINAGA

## URTE BERRI ON!

**Urtarrilaren 12an argitaratuko da berriz GOIENKARIA**

GOIENKARIAk oporrak hartuko ditu urtarrilaren 3ra arte. *Asteleheneko Goienkaria* hilaren 8an argitaratuko da, eta egubakoitzekoa, 12an. Ordura arte, jai zoriontsuak eta urte berri on!

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Telebista-Irratia** > 51
**Komunikazioa** > 52
**Non-zer** > 54-55








**GIZARTEA** > GABONAK PASATZEKO HAINBAT MODU

# Gabonetan, zenbat pertsona, hainbeste ikuspuntu eta bizi izateko modu


**PAKISTANDIK** Ansar familia pakistandarra –gurasoa

**ALDAKETA** Garai baten, Gabonak oso antzera ospatzen zituzten guztiek, baina gaur egun, denetariko egoerak ikusten dira

**ETORKINAK** Herrialde eta fede askotako jendea bizi da orain Debagoienean, eta hemengo ohitura batzuk eureganatzeko joera dago

**LANGILEAK** Gehienok jaiez edo oporrez gozatzeko, askok lan egin beharko dute, eta ospakizunetarako tarte txikia izango dute

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Sasoi baten, Debagoienean, Euskal Herri osoan bezala, ia familia guztiek oso modu antzekoan ospatzen zuten: familian batuta, afari eta bazkari bereziekin, eta kutsu erlijioso handiarekin. Baina, garaiak aldatzearekin bat, egun hauek pasatzeko modu gehiago agertzen joan dira.

**LEKU GUZTIETAKO OHITURAK**

Gero eta etorkin gehiago bizi dira Debagoienean ere, eta norberak bere ohiturei eusten die, baina bertakoak ere beraganatzen ditu.

Hori gertatzen da Oñatin bizi den pakistandar familia batekin: Mohammad Ansar, Fahad Ansar eta Bushra Bibi guraso eta semea. Ez daramate denbora luzea Oñatin, baina, hemen 32 urte daramatzan senide baten laguntzarekin, integratuz doaz pixkana-pixkana. Gabonak ez dituzte jai arrotz bezala ikusten: "Gure profeta nagusia Mahoma da, baina Jesus ere profeta bat da guretako, eta Koranak diosku fede guztiak errespetatu behar ditugula", dioskute. Ansar familiako kideek diotenez, "hemen bizi garenez, geuk ere ospakizunetan parte hartzen dugu: seme-alabekin, umeekin… Olentzeroren opariak ere jasotzen ditugu. Gure fedea maite dugu, baina gauzak bere neurrian gustatzen zaizkigu", dioskute.

Urrutitik ere, Argentinatik, etorri da Bergarara Willy Penco eta Denise Erramouspe bikotea. Lehenengo Gabona izango dute etxetik urruti, baina katoliko aitortzen dira eta Gabonak "oso gustuko" dituztela diote. Hortaz, Argentinako modura ospatzen saiatuko dira: Bergaran bizi den lagun argentinar batekin afalduko dute Gabon gauean, gauerdian topa egingo dute, eta gero, hemengo tradizioari jarraituz, kalera irtengo dira ospakizunarekin jarraitzera.

**"EGIN BEHARREKOA DA"**

Gainerakook ondo pasatzeko, batzuek lan egin beharko dute jaiegun hauetan. Hori da Goizeder Ormazabal bergararraren kasua, AP-1eko ordainlekuan egon beharko du-eta aurtengo lau jaiegunetan. Hirugarren urtea du lan horretan, baina lehenengoz tokatu zaio egun horietan lan egitea. "Ez zait gustatzen joan behar izatea, baina Gabonak ere ez ditut gustuko, hortaz, ondo nago", esaten du. Hori bai, etxekoek bere falta igarriko dutela onartzen digu, batez ere ama den aldetik.

> **Pakistandik etorri diren familia asko bizi dira Oñatin; batek dioskunez, "hemen bizi garenez, hemengo ohituretan ere parte hartzen dugu, besteak beste, Olentzero"**

> **Kristauendako, jai handia dira Gabonak, eta Bergarako apaizak dioskunez, herriko eliza ospakizunak "apalak, bilduak eta goxoak" izango dira aurten**

Berak bezala, beste profesional askok lan egin beharko dute egun horietan: osasuneko langileek, taxi eta garraio publikoetako gidariek, lantegi askotako produkzio saileko langileek… Beharbada, Ormazabalek gehienen sentimendua laburtzen du esaterakoan "gustukoa ez, baina egin beharrekoa" dela.

Bestetik, Gabonetan opor luzeak dituztenak ere zortedunak dira; izan ere, lantegi askotan eta zerbitzu publikoetan, 26tik 30era bitartekoak lanegun arruntak izango dira.

**EGUBERRIA URTE OSOAN**

Gabonak, zerbait badira, kristauen jai handia dira. Juan Kruz Mendizabal apaizak ere modu berezian bizi ditu, "batetik, gure lanarengatik; eta bestetik, gure fede aukerarengatik".

Bere iritziz, Gabonetan "paradoxa" bat gertatzen da: "Norberak urtea itxi nahi du eta asmo berriak egin; baina konturatzen da asmoak iazko berdinak direla, eta ez direla bete". Berak hori "gainditzera" animatzen du jendea, asmo eta sentimendu onak "urte osora" luzatuz eta egun hauetan sentitzen diren hutsuneak –hildakoak, presoak…– "ahal den neurrian, urte osoan betez". Umorez gogorarazten du apaltasunerako garaia dela –"gure nagusia ukuilu baten jaio zen"– eta, aurten Gabonak lehenengoz Bergaran pasatuko dituenez, Gabonetako eliza ospakizunak zelakoak izango diren aurreratu digu: "Apalak, bilduak eta goxoak izango dira".


**ARGENTINARRAK** Willy Penco eta Denise Erramousp

elkar
elkar ezagutzen dugulako
www.elkar.com
kulturaren plazerra
ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA



ak eta semea- Oñatin bizi da orain. L.K.




**LANEAN** Goizeder Mendizabal AP-1 ordainsari-kabinako langilea da. OIHANA ELORTZA



pe lagun baten etxean dira, Bergaran. EDU MENDIBIL



**APAIZA** Juan Kruz Mendizabal apaizak, Bergarako Santa Marinako lehengoz ospatuko ditu Gabonak Bergaran. L.K.

## di-da batean

Leire Kortabarria

### Gabonak, oporrak eta jaiegunak ez dira gauza bera

Gabon jaiek, duten kutsuarengatik, pertsona adina esanahi izan dezakete. Ospatzen ez dutenen artean, oporrak dituztenek horietaz gozatuko dute beste edozein opor balira bezala; gero eta gehiagok bidaiatzea erabakitzen dute. Horiei, hegazkina hartu behar badute, kalitatezko konpainiarekin joatea opa diet.

Beste egoera batzuetan, erreportajean ikusten den bezala, errealitateak, beti bezala, ez zuri, ez beltz, gris aberats eta interesgarri koloreko jarraitzen du, gure eskemen gainetik.

Beste talde berezi bat jaiegunetan lan egiten dutenek osatzen dute, oporretan, mundua ezin delako gelditu. Laster bizi izango dut neuk ere esperientzia hori; izan ere, *Asteleheneko Goienkaria*-z arduratzera noa. Hortaz, zuei, egubakoitzeko GOIENKARIAko irakurleoi, eskerrak ematen dizkizuet urte hauetako jarraipen, konfiantza eta, zergatik ez, laguntasunarengatik. Laster arte.

Aramaion lursaila duten 11 etxebizitza eraikitzen ari gara
PROMOCIONES ARAMAIXO S.L.
Informazio gehiago:
630 31 13 18/ 945 44 54 60
Nardeaga kalea 26
ARAMAIO





9an, 7an eta 5ean bukatutako zenbakiak dituzte gogokoen Debagoieneko loteria erosleek

**JOKOA** > GABONETAKO LOTERIA

# Iaz beste dezimo saldu dituzte ibarrean gaurko zozketarako

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Ibarreko administrazioek ez dituzte oraindik salmenten kontuak egin, baina saldu dutenaren arabera, aurtengo Gabonetako loteria zozketarako iaz beste dezimo saldu dituztela diote. Aretxabaletako Maria Asun Ziardegik kontatu digun moduan, "batzuek edozein zenbaki eskatzen dute, baina beste batzuk igarleek dioten zenbakien bila etortzen dira". Horietako zenbaki bat izan dute Arrasaten, eta dezimo guztiak saldu dituzte, Espainiatik ere asko eskatu dizkiete-eta. Hala ere, jendeak zenbaki bikoitiak eskatzen dituela esan digute saltzaile gehienek. "Bederatzian, zazpian eta bostean bukatzen diren zenbakiak eskatzen dituzte", dio Bergarako Pilar Muxika saltzaileak. Erregeetarako baino gehiago saltzen dute Gabonetarako ibarrean. Hego Euskal Herrian 198,2 milioi euro gastatuta zituzten urrian Gabonetako loterian jokatzeko.




**GABONAK**

## Gabonetako argiak, Erregeak arte piztuta

Oñatik egingo du gastu handien eta Arrasatek eta Leintz Gatzagak txikien

**O.E.** > BERGARA

Erregeak pasa arte egongo dira piztuta Gabonetako argiak ibarreko herrietan. Udal batzuek, Gatzagak eta Arrasatek, adibidez, argiteria publikoaren barruan sartu dute kontsumoaren gastua. Arrasaten, BAZ zerbitzuko argiak dira erosi dituzten bakarrak eta Aretxabaletan ere iazko argiak jarri dituzte. Orokorrean, Oñatik gastatuko du gehien eta Arrasatek eta Leintz Gatzagak gutxien.

### Udal bakoitzak zenbat euro

| | |
|---|---|
| Oñati | 25.200 euro |
| Bergara | 7.615 euro |
| Antzuola | 6.000 euro |
| Aretxabaleta | 2.105 euro |
| Elgeta | 1.761 euro |
| Eskoriatza | 1.200 euro |
| Aramaio | 1.000 euro |
| Arrasate | 950 euro |
| Gatzaga | ez dute jasota |

> EKONOMIA

### MCCk 32,6 milioi inbertitu zuen iaz giza konpromisoetan

MCCk 32,6 milioi euro inbertitu zituen 2005. urtean gizartearekiko elkartasun konpromisoetan. Esparru unibertsitarioan, lanbide heziketan eta ikerkuntzaren esparruan prestakuntza eta garapen proiektuak babesten inbertitu ditu. Elkartasun fondo horrekin babestu ziren ere euskara sustapena eta hirugarren munduko hainbat proiektu.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA** > JOSU ZABALA DA ERREKTORE BERRIA AZAROTIK

# Errektoreak nahi du ikasle murrizketari aurre egitea

Enpresa berrien sorrera indartzeko plan integral berria abiarazi du Mondragon Unibertsitateak

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE
Debagoieneko hedabideen aurrean bere aurkezpena egin du aurreko astean Josu Zabalak, Mondragon Unibertsitateko errektore berriak. Azaroan hartu zuen kargua Zabalak. Dena dela, otsailera arte, orain arteko errektore Iñazio Oliverirekin elkarlanean jardungo du.



**EKITALDIA** Josu Zabala, eguazteneko gosarian. TXOMIN MADINA

Bere ardurapean aurkituko dituen erronkak, ezarri dituen helburuak eta horiek lortzeko bideak izan zituen hizpide. Epe laburrerako, orain arteko errektoreek martxan jarritako proiektuak aurrera ateratzea dago. Datozen urteei begira, berriz, honakoak aipatu zituen Josu Zabalak: ezagueraren gizartera moldatzea, Europako unibertsitateen arteko homologazio prozesua bultzatzea eta jaiotza tasaren jaitsierak ekarriko duen ikasle murrizketari aurre egitea.

**INGENIARI TEKNIKOA**
Urrestillarra da Josu Zabala, baina txikitatik Azkoitian bizi izandakoa. Donostian Ingeniaritza Tekniko ikasketak egin zituen.

Lan esparruari dagokionez, Ikerlanen jardun zuen 21 urtez lanean; azkeneko zazpi urteotan, bestalde, Fagor Etxetresnak enpresan ibili da.

**PLAN INTEGRAL BERRIA ABIAN**
MUrekin jarraituz, beste albiste bat ere iritsi zaigu oraingo astean. Izan ere, plan integral berria abiarazi du MUk, enpresak sortzeko asmoak indartzeko. Plan horrekin, lana sortu eta lehiakortasuna eta ekonomia hazkundea lortzea da MUko arduradunen helburua.

Horretarako, hainbat formula garatu dituzte; horietako bat, *Mondragon ekiten* izenekoa. Enpresak abian jarri aurreko fase guztiak garatzea da horren helburua.

> Q SARIAK

### Debagoieneko zazpi enpresak eta erakundek jaso dituzte zilarrezko eta urrezko 'Q' sariak asteon

Martitzenean, zilarrezko eta urrezko *Q* sariak banatu zituen Euskalitek Kursaalen, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. 43 enpresa eta erakundek jaso zuten saria. Tartean, Debagoieneko seik. Urrezko *Q* saria jaso zuten Lagun-Arok eta Bergarako Lazpiur enpresak. Zilarrezkoa, berriz, honako hauek: Oñatiko Ulma Forjak, Elkar Hezi ikastetxeak eta ETEOk, MUko enpresa zientzien fakultateak eta Aretxabaletako institutuak.

Bestalde, aipatzekoa da, Oñatiko Turismo Bulegoak ere jaso duela *Q* saria, Espainiako Kalitate Turistikorako Institutuaren eskutik. Irungo Ficoban izan zen ekitaldia, aurreko asteburuan.



AMAGOIA LASAGABASTER

### Autodeterminazioaren aldeko ekintzak

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta eta *Autodeterminazioaren alde, baldintza demokratikoak Euskal Herriarentzat* lelopean, hainbat mobilizazio ekitaldi egin zituzten ibarreko herri gehienetan, eguaztenean (argazkian, Arrasatekoa). Espainiako Auzitegi Nazionalak debekatu egin zituen hainbat ekitaldi, baina ez Debagoienekoak.




IRABAZLIAK



1sariduna: Ander Najera. 7 urte.
2. sariduna: Ainhoa Olaziregi. 7 urte
3.sariduna: Luken Arriola. 6 urte.

ABENDUKO ERANTZUNAK

– Hieroglifikua
Zer dira Mikel eta Amaia?
Seme-alabak

– Atsotitza
Sabela beteta daukat eta ........
b) bestiak hor konpon

– Jolasa
Lotu ezkerreko zutabeko esaldi bakoitza bere parekuarekin.
1-Jateko gogua daukat / f) Gosiak nago
2-Lo egitteko gogua daukat / g) Loguriak nago
3-Kaka egitteko gogo haundixa daukat / b) Kakalarrixa daukat
4-Erateko gogua daukat / d) Egarrixak nago
5-Txixa egitteko gogo haundixa daukat / e) Txixalarrixak nago
6- Barre egitteko gogua daukat / a) Barreguria daukat

BTLS 7
JOKU AUTOMATIKOAK

Dardo txapelketa
Agorrosingo tabernan

Abenduaren 29an

1.000 € saritan
Izenematea doan

Tel.: 943 76 42 31
www.ehmff.com

**Irati Arantzabal** > Etxerateko kidea

# "Iñakik argi dauka jaten hasiko dela Euskal Herrira, etxera, iristen denean"

**I.A.** > ARRASATE

**Iñaki de Juana presoak 45 egun egin ditu gose greban. Madrilgo 12 de Octubre ospitalean abenduaren 11n jarri zioten zunda; hala ere, haren egoera larria da. Irati Arantzabal, Iñaki de Juana presoaren senitarteko arrasatearra, Arrasate Irratian izan zen.**


Irati Arantzabal. GOIENKARIA

**Nola dago Iñaki fisikoki?**

Zunda jarri ostean, egonkortu egin da, baina zundarena adabaki bat baino ez da. Izan ere, Iñakiren egoera fisikoa hobetzeko bide bakarra jatea da, eta ez dauka horretarako asmorik. Medikuen esanetan, egoera begetatiboan geratzeko arriskua du, batbateko heriotza arriskua ere badu, eta ahul dagoenez gaixotasunak hartzeko aukera handiagoak ditu.

**Eta psikologikoki?**

Oso gogor dago, jakin badakielako arrazoia daukala eta kondena beteta daukala. Horrek ematen dio indarra egoerari aurre egiteko. Argi dauka jaten hasiko dela Euskal Herrira, etxera, etortzean.

**Iñaki etxean eta ondo nahi duzue, eta era berean bere borondatea, greba jarraitzea, bete dadila. Zer dio familiak?**

Iñakiren kasuan arazoa ez da gose greba bera, gose grebara eraman duen egoera baizik. Iñakiren gose greba amai dadin nahi dugu, horrek esango luke Iñaki honetatik guztitik onik irten dela. Ez dugu nahi Iñaki beste 13 urtez espetxean ikusi, ezta herrira bueltan zerraldo ekar dezaten ere. Barne gatazka handia da. Beldurra, amorrua, maitasuna, elkartasuna... Sentimendu guztiak batean sentitzen ditugu. Ulertzen dugu horrelako egoera baten aurrean Iñakik erabaki hori hartzea, baina beldur gara okerrena gerta daitekeelako.

**Ospitalean zein jarrera dute Iñakirekiko, eta zuekiko?**

Hasieran tratua hotza, urruna zen. Baina denborarekin konturatu dira medioetatik ezagutzen den Iñaki de Juana horren atzean badagoela beste edozein pertsona bezala den Iñaki bat. Beraz, tratua orain zuzenagoa dela nabaritu dut, bai Iñakirekiko eta baita nirekiko ere.

**Harekin egoteko aukera duzue nahi duzuen guztietan?**

Nik baimen berezia dut. Lagunek, berriz, hamar izeneko zerrenda osatu dute eta lagunak astean behin joaten dira eta 40 minutuko bisita egiten diote.

**Laburtuko zeniguke nola iritsi den Iñaki egoera horretara?**

1987an atxilotu eta torturatu egin zuten. Ordutik hona, 20 urte hauetan tortura, jipoiak, isolamendua, sakabanaketa... bizi izan ditu. 2000n kondenaren hiru laurdenak bete zituen eta 2004an osoa. Baina Lopez Agilarrek egindako adierazpenak ikusita, Iñaki espetxean mantendu edo hilik ikusi nahi dute. Beraz, edozein aitzakia baliatuko dute hura espetxean edukitzeko; azkena, *Gara* egunkarian publikatutako artikuluak.

**Gizarteari zer eskatzen diozu?**

Edozein ideologia politiko izanik ere, espetxe politikaren ondorioz gure senideek pairatzen dituzten eskubide urraketak salatzeko. Sentikortasuna dutenek bat egin dezatela giza eskubideak errespetatzeko aldarrikapenarekin. Badira alderdi batzuk giza eskubideez jarduten dutenak; horiei esango nieke denen eskubideez hitz egin dezatela. Elkartasuna adierazteko modu bat da egubakoitzero iluntzetan Iñakiren etxeratzea eskatzeko egiten diren elkarretaratzeetan parte hartzea.

---

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA

## Urte amaieran euskararen gaineko gaiei txaloka eta txistuka

**DEBAGUNE** > DEBAGOIENA

Urtea heldu da amaierara, eta atal honen helburua zera da: hizkuntza ateratzea kalera, euskara irtetea plazara.

Plazaratu ditugu euskararen gaineko kontu ugari. Ekintza, lan eta jardunaldien berri eman diogu jendeari.

Normalizazioaren bidean pauso bat gehiago eman dugu, eta gure ahalegintxoak zerbaiterako balio izan duen ez gaude seguru, baina hori genuen asmo eta helburu. Eta Debagunek, euskara elkarteen ibarreko bilguneak, aurten ere horretan jardun du buruz buru.

Urte amaieran etorri ohi dira iritziak, poza zein kezka, eta Bergarako Jardun elkarteko presidente Oier Bolibarrek eta Arrasateko AEDko Zigor Masipek ere euskararen gaineko balorazioa digute presta.

Txistuka eta txaloka euskararen gainean honako hauek dizkigute bota.

1) Euskaldun berriei, euskararen alde azaldutako jarrerarengatik eta euren mailarengatik. Gero eta gehiago daude euskaldun berriei zuzenduta, euskara hain arrotz egin ez dakien. Gainera, oso jarrera baikorra azaltzen dute euskararekiko.

2) Euskara ikasten dabiltzan etorkin eta atzerritarrei: gero eta etorkin gehiago euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko ahalegina egiten dabiltza.

3) Bailara Euskara egunak hartzen diharduen indarra, eta era berean jendearen parte-hartze altua ere txalotzekoa da.

1) Administrazioan euskarari eskaintzen zaion arreta eta erabilerari txistuak. Hainbat arlo daude, non euskararen erabilera ia ezinezkoa den (notariotza, administrazio publikoa...).

2) Txistuak epaitegietan egiten diren hizkuntza eskubideen urraketei.

3) Osakidetzari txistuak: OPA barruan lanpostuen %20 baino portzentajea baxuagoa izan zen euskara eskakizuna.

4) Irakaskuntzan aritzeko beharrezko gutxieneko hizkuntza profila ateratzen saiatu ere egin ez diren irakasleei.




MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
2007an debagoiendar guztion ametsak bete daitezen
Zorionak!
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

## gure artekoak

**ARTISAUA** > Oraingo astean bertan eman diote Arrasateko Erdiko Kalean denda jartzeko baimena Ibañezi. Hilabete batzuk barru zabalduko du. Dena dela, orain arte ere artisautza izan da bere lanbidea.

Idoia Ibañez

# "Artisautzatik bizi ahal izatea zaila da, baina posible da"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

**Urte asko daramatza Idoia Ibañez arrasatearrak artisautzaren munduan, eta horixe du, gainera, lanbide eta bizibide. Bere produktuak egin eta saltzeaz gain, ikastaroak ere ematen ditu Debagoieneko hainbat herritan.**

**Artisaua zara. Zer egiten duzu?**
Larruzko produktuak, bilbezko ehungintza eta ziri-enkajeak. Larruzko produktuak eta osagarriak egiten ditut.

**Ikastaroak ere ematen dituzu, ezta?**
Bai; ziri-enkajeen ikastaroak ematen ditut Arrasaten, Eskoriatzan eta Bergaran. Ziri-enkajeak ez ditut saltzen; merkaturatzeko oso zailak dira, garestiak dira-eta.

**Noiz eta nolatan hasi zinen?**
Institutu garaian, Albaitaritza ikasteko asmoa neukan, baina, azkenean, artisautzarekin nahastu nintzen eta horrexetan jarraitzen dut.

**Erraza da bizimodua hortik ateratzea?**
Ez, zaila da, baina posible da. Izan ere, azken baten, lanbide hauxe aukeratu nuen eta aurrera egin dut.



Idoia ziri-enkajeen ikastaro baten, aldamenean bere ikasle bat duela. UBANE MADERA

### FITXA TEKNIKOA

**> HASIERAK**
Gaztetxotan, institutu garaian, hasi zen artisautzan Ibañez; hasieran, letoia lantzen zuen.

**> DENDA BERRIA**
Arrasaten zabalduko du denda Ibañezek, Erdiko kalean, hemendik hilabete batzuetara.

**> HAN ETA HEMEN IKASTEN**
Espainiako Estatuko hainbat lekutan ibili da ikasten: Galizian, Nafarroan, Madrilen eta Bartzelonan, besteak beste.

**Non saltzen dituzu ekoizten dituzun produktuak?**
Azoketan; neuk saltzen ditut, zuzenean, bitartekorik gabe. Ez zait gustatzen beste denda batzuei saltzea, produktua asko garestitzen delako horrela.

**Dendaren bat jartzekoa zarela entzun dugu?**
Bai; oraingo astean bertan eman didate baimena eta hilabete batzuk barru zabalduko dut. Denda horretan, nire produktuak saltzeaz gain, ikastaroak ematen jarraitzeko asmoa ere badaukat.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# 'Annus horribilis' txuri-urdinendako

Realeko zalea naiz eta harro nago. Baina, pozik ez, jakina. Amaitzera doan urte hau ahazteko modukoa da. Okerrena da azken urteak ere antzekoak izan direla, Denouexekin ligako txapeldunorde geratu zenekoa izan ezik.

Hiru dira Realaren egoera beltzaren erantzule nagusiak: Fuentes, Zamora eta Bakero. Hirurak ere Realeko jokalari izandakoak, baina kudeaketa eta zuzendaritza lanetan ezer gutxi erakutsi dutenak.

Fuentesek eta Zamorak —azken hau kirol kontuez arduratzen den zuzendaritzako kidea— ekarri zuten Bakero kirol zuzendari kargurako. Zein eta Malaga B taldea entrenatzetik zetorrena eta Bartzelolan nahi izan ez zutena. A ze curriculuma! Bestalde, Realak 8 milioi euro gastatu ditu fitxaketetan urtebetean. Larregi da, dirurik ez daukala dioen klub batendako. Dirutza hori erdipurdiko jokalarietan gastatu du, gainera. Eta orain, beste ez dakit zenbat milioi gastatu nahi dituzte, lehen mailari eusteko ahaleginetan. Eskerrak elkartea diru barik zegoen, Astiazaranek erabat zorpetuta utzi zuelako. Hala saldu ziguten, behintzat, Fuentesek eta konpainiak.

> **"Dirutza gastatu du Realak urtebetean erdipurdiko jokalarietan"**

### > Juanito eta Rossatori

**damutzeko eskatu die Jaurlaritzak, entrenamendu batean elkarri muturrekoka ibiltzearren. Hobe luke Realak bi jolakariok klubetik bota, baina Fuentesek ez du txintik esan.**

### > Eta orain zer?

**Nahiko nuke erratu, baina bigarren mailan ikusten dut Reala. Ikusi behar orduan nola kitatzen dituen zorrak: orain dituenari, fitxaketa berriengatik gastatutakoa gehituta.**

## begi-bistan



**Moja berria (Arrasate)**
**2006/12/18**

**Argazkia:** Larraitz Zeberio.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Arrasateko Kontzezino komentuan moja berria dute. Astelehenean ospatu zuten abitu-hartzea komentuko elizan. Johane Maria Khers da bera, indiarra, eta hiru urte egin ditu nobizio.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



### Gorka Martinez
BIDAIARIA

Bergarako Gazteendako Informazio Guneko *Gomendatzen dizut* lehiaketa Gorka Martinez 23 urteko bergararrak irabazi du. Lehiaketa horretan Portugalgo Figueira Da Foz gomendatu digu. 500 euroko bonua irabazi du, eta bidaiatzeko erabili behar du dirua.



### Jesus Arroiabe
TIRATZAILEA

Jesus Arroiabe tiratzaile eskoriatzarra saritu dute aurreko asteburuan, bere kirolari ibilbideagatik eta tiro olinpikoari eskaini dion dedikazio bereziagatik. Orain dela bi urte Jaurlaritzak saritu zuen, Espainiako Superbeteranoen txapelketa irabazi zuelako.



### Jon Zubiaga
AKTOREA

*Bob? Nor da Bob?* antzezlanean dihardu Zubiagak, Jon Urrazarekin batera. Gizon koadrila batean oinarrituta dago antzezlana eta neskekin dituzten harremanak azaltzen dituzte. Bakarrizketez osatutako antzezlana da eta aktore bakoitzak hainbat gizonen papera jokatzen du.

Ezker Batuko Ander Rodriguezi egin diogu urteko azken GOIENKARIAko elkarrizketa nagusia. Prozesuaz, egungo egoeraz eta maiatzean datozen hauteskundeez galdetu diogu, besteak beste. ETAk su-etena hasi duelako eta bake prozesua hasi delako gogoratuko du 2006. urtea eta datorren agintaldian herritarrek udal kudeaketan parte hartuko dutela espero du.

**Ander Rodriguez** > Ezker Batua

# "Gizarteak behartu behar ditu alderdi politikoak normalizazioa adostera"

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

**Ander Rodriguezek (Arrasate, 1982) normala ikusten du politika tertulietan prozesuaren inguruan berba egitea, baina uste du komunikabide eta politikari batzuen eta ETAren zenbait jarrera arduragabeak direla. Dio normalizazio prozesua ez duela ez gobernuak ez ETAk tutelatu behar.**



Arrasateko udaletxean duen bulegoan hitz egin dugu Ander Rodriguezekin. O.E.

**Ze irakurketa egiten diozu prozesuak bizi duen egoerari?**

Ez dut uste prozesua apurtzeko arriskuan dagoenik. Antonio Gramsci komunistak zioen prozesu bat krisian dagoela aro zaharra bukatu ez denean eta berria hasteke dagoenean. Hemen ere hainbat gauza daude lehengoak: De Juanaren auzia, 18/98 epaiketa, *Egunkaria* auzia, Alderdien Legea eta kale borroka, besteak beste. Bestalde, elkarrizketak, akordioak eta alderdien mahaiak oraindik ez dute martxa hartu.

Alde biek eman behar dituzte pausoak; Zapatero ausart agertu zen prozesu hasieran, baina uste dut hauteskundeen beldur dela eta ez duela adorerik pausorik emateko; adibidez, alderdien legea deuseztatzeko, gutxienez berau egokitzeko edota ezker abertzaleari berme juridikoak emateko eta presoak Euskal Herrira hurbiltzeko. Bestalde, ezker abertzaleak ezin dio bakarrik gobernuari leporatu prozesuaren krisia eta uste dut oraintxe dela momentua aurrerako pausoak emateko. Ezker abertzaleak politika egin behar du, gainontzeko bide ez demokratikoak baztertuz; Anoetan esandakoa gauzatu behar du.

**Zein da hurrengo pausoa?**

Prozesuak atzeraezin bihurtu behar du. Horretarako, gobernuak eta ETAk elkarren arteko harremanak indartu eta azkartu behar dituzte, eta bestetik, indar politikook mahaian eseri behar dugu. Eta gizarteak ere zerikusi handia du horretan.

**Udazkenerako zen alderdien mahaia; neguan gaude.**

Publikatu izan da EAJ, PSOE eta ezker abertzalearen arteko harremanak izan direla. Guk ez dugu hori gaizki ikusten. Elkarrizketa beharrezkoa ikusten dugu norabide guztietan. Baina elkarrizketa hori zabaltzearen alde gaude, euskal gizartearen aniztasun politikoa ordezkatua izateko. Alde bien arteko harremanetan sortutakoa alderdiek osatutako komisio batera pasatzea proposatzen dugu, guztien artean aztertzeko alderdien mahaiaren metodologia eta edukia. Pauso hori hiru alderdi horiek bakarrik egin dute itxura batez, eta badirudi EAJk eta PSOEk eten egin dutela oinarrizko akordio hori kale borroka argudiatuz. Baina akordio horrek alderdi guztietara heldu behar du, guztien artean finkatzeko mahaiaren metodologia. Ez dakit noiz eratuko den mahaia, baina epe motzean eratu behar da.

**Noiz arte jarraituko du diozun *impasse* egoera honek?**

Prozesuaren une batzuk baino ez zaizkigu iristen, eta normala da: jarraitu behar dugu, baina ez da komeni publikatzea egiten diren kontaktu guztiak. Garbi dut zenbat eta azkarrago egin gobernua eta ETAren arteko akordioak, orduan eta atzeraezinago bihurtuko dela prozesua.

**Nola bihur lezake gizarteak prozesua atzeraezin?**

Uste dugu herritarren presioak garrantzi handia duela. Orain arte ikusi ditugu giza protestak prozesuaren aurka, eta ordua da prozesuaren alde gauden alderdiok mugitzeko eta herritarrak mugiarazteko, edo gizartetik etor daitezkeen mugimenduei ongietorria emateko. Euskal gizarteak alderdi politikoak presionatu behar ditu mahai baten inguruan esertzeko eta normalizazioaren aldeko akordioa adosteko, eta gobernuari eta ETAri eskatu behar diote pausoak emateko bakea lortzeko.

**Manifestazio bat deituta?**

Adibidez. Bestela, udalen bidez edo Elkarrik erabili zuen bidea ere egokiak izan daitezke.

**Aralarrek esan du ezkerreko alderdiok batu egin behar duzuela hauteskundeetan EAJ eta EA gobernutik kentzeko ibarrean. Ados zaude?**

Aralarrekin ados gaude puntu honetan: ezkerreko akordioak egin behar ditugula EAJ eta EA gobernutik kentzeko. Baina akordioak ez ditugu egingo siglei begiratuta, oinarrizko programak kontuan hartuta baizik.

**Koalizioa beste alderdi batekin ere posible da, orduan?**

Gure apustua da Ezker Batua, Aralar eta Zutik alderdien arteko hirukoa osatzea ibarrean. Oposizioan egon gara ia beti, baina ez diogu beldurrik gobernuari; hori bai, hitzarmen sendoetan oinarritu behar dute gobernu guztiek. Hori ezinbestekoa da.

**Oposizioak deuseztatzailea izan behar du beti?**

Ez, eta ez dut uste Arrasateko inork uste duenik EB deuseztatzailea izan denik. Eraikitzeko egon gara eta gaude. Proiektu baten aurka egon garen bakoitzean, proiektu alternatibo bat aurkeztu dugu; kritika guztiek izan dute jarrera edo irtenbide alternatiboa. Noski, ez gara isilduko ustelkeria kasu baten aurrean; herritarrak garelako eta kargu politikoa dugulako, gure konpromisoa da ustelkeria eta antzerako kasuak salatzea eta kasua argitzeko ahal den guztia egitea. Kasu horietan dugun tolerantzia da zero, hutsa.

**Nola gogoratuko duzu 2006a?**

Bake prozesua hasi zen urtea.

HAUTESKUNDEAK

**"Gure apustua da Ezker Batua, Aralar eta Zutik alderdien arteko hirukoa osatzea ibarrean"**

PROZESUA

**"Ez dut uste apurtzeko arriskuan dagoenik, baina pausoak eman behar dituzte"**

ALDERDIEN MAHAIA

**"Mahaiaren metodologia eta edukia alderdi guztien artean finkatu behar da"**



zabalik

Arantxa Jaka

# Ze pentsatua

Bi egunetan, hiru albiste gertakari baten inguruan. Iragarki komertzialak, bereziki, saiatzen dira ondo eta garbi azaltzen zein egunetan aurkitzen garen. Kaleetako argi distirek eta apaingarriek ez dakit zertara gonbidatzen gaituzten… Eta, egun hauetan, nire eskuetara heldu diren hiru albistek ze pentsatua eman didate.

Lehenengoa: hiri ospetsu batean, egun hauetako oparietan, batez beste 500 euro gastatuko ditu pertsona bakoitzak. Eta erosketak errazago egin ditzaten doan euren eskura txofer bat edukiko dute alde batetik bestera lasaiago mugitu daitezen.

Bigarrena: Eritrean dagoen misiolari baten zorion agur ederra jaso dut, eta bere itxaropenarekin batera hango errealitate mingotsa heldu zait; besteak beste, gotzain baten eskariari jarraituz, kaleetan dauden neska gaztetxoentzako, bereziki, zentro bat eraikitzera doala, askotan eta askotan hauek erditzerakoan ez dakitelako haurrarekin zer egin eta hienek jan ditzaten bide bazterretan uzten dituztelako.

> **"Argi distirek eta apaingarriek ez dakit zertara gonbidatzen gaituzten"**
>
> **"Eguberriak alaitasunean eta isiltasun sakonean biziko ditut"**

Hirugarrena: zinemetan botatzen eta askori gomendatzen entzun diedan *El gran silencio* dokumentala; Frantziako Alpeetako Grenoble herrian aurkitzen den kartusiarren monasterioko bizitzaren muina, izatea azaltzen duena, eta ez nolanahi, gainera; *European Film Academy*-ko saria jasoz! Ia isiltasun osoan gertatzen den hiru orduko saioa.

Egiaz Eguberriak denontzat? Ez dakit turroirik jango dudan, opariak ez ditut erosiko; baina alaitasunean eta isiltasun sakonean bizitzen saiatuko naiz egun eder eta handi hauek, nire baitan munduaren eta gizakiaren garrasia entzuteko eta egiaz gizadiarentzat salbatzaile den hari apal baina ozenki esateko: "Etor zaitez guztion bihotzera egiazko gizon-emakumeak zentzuz izan gaitezen". Hau da benetako Eguberria! Zorionak, guztioi!

herritarrak galdezka

## ZABOR BILKETA GABONETAN

**Irakurle batek galdetu digu Gabonetan zabor bilketari dagokionez ea aldaketarik egongo den, bai maiztasunari dagokionez, baita ordutegiei dagokienez ere?**

Debagoieneko Mankomunitatean esan digute hainbat aldaketa egongo direla. Abenduaren 24an eta 31n domeka izanik, ohiko bilketa eguna domeka den ibarreko herrietan (Arrasate, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Elgeta eta Bergarako Ubera eta San Juan auzoak) zabor bilketa aurreratu egingo dute; hau da, gauez egin beharrean arratsaldean jasoko dituzte zabor poltsak. Beraz, komeni da 13:00ak baino lehen eramatea poltsak edukiontzietara.

Gainontzean ez dago aldaketarik. Izan ere, abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a ia gehienendako jai egunak badira ere, zabor biltzaileek gauez lan egingo dute ohiko herrietan.

Zabor pilaketak egon daitezkeela-eta ez dute neurri berezirik hartu. Baina ikusiz gero ohikoa baino zabor gehiago dagoela, maiztasuna handituko lukete.

## URTEZAHAR GAUEKO MAHATSA

**Irakurle batek, Gabonetako ohiturekin kezkatuta, zera galdetu digu: Urtezahar gauean 12 mahats ale jateko ohitura nondik dator?**

Badirudi oso antzinakoa dela ohitura hori, baina ez dauka mende bete ere. Beste hainbat jai bezalaxe mahatsa jateko ohituraren atzean arrazoi komertziala dago: 1909. urtean gehiegizko mahats ekoizpena zela-eta, Alacanteko hainbat ekoizlek asmatu zuten 12 mahats ale kanpaien erritmora irenstea lortzen zuenak zortea lagun izango zuela. Ordukoa da ohitura hori eta urtetan gaur arte iritsi dena. Hego Amerikako herri batzuetan ere hasi omen dira ohitura hori jarraitzen.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## KONTSUMITZAILEEN BULEGOA

**Herritar batek esan digu lehen kontsumitzaileen bulegoa Aretxabaletan bazegoen ere, orain ibarrean ez dagoela bulegorik. Beraz, jakin nahi luke nora jo behar duen.**

Kontsumoko Zuzendaritza Nagusian esan digute "gertuen dagoen kontsumitzaileen udal bulegora joatea dela bidea; Eibar, Elgoibar, Azkoitia edo Azpeitira, esaterako. Izan ere, udal bakoitzak erabakitzen du zerbitzu hori eman ala ez". Bestalde, badira kontsumitzaileak babesteko elkarteak ere. Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarteak bi bulego ditu: Donostian eta Eibarren. Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileendako arreta telefonoa ere badu: 900 60 05 00.

marrazkiz

Unai Busturia




**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

blog

# Eskerrik asko

Xabier Paya
www.bizkaie.biz/blogs/bg2

Ni saltoka eta ujuka nenbilen bitartean zutundu eta txaloka hasi zinien guztiei.

Zapatutik horrenbeste (e)s(a)m(e)s, mezu elektroniko eta dei bialdu deustazuenei.

Josebari, Josuri eta Unairi, San Nikolaseko bertso-eskolan Frediren anajea aguantatearren.

Jon Lopategiri, Bizkaiko bertso-sendiak inoz eukiko dauen bertso-aitarik handiena dalako neuretzat.

Hasikeratik nigan sinistu daben danei: Algortatik hasi eta Mungira bitarteko guztiei, Zamudio, Erandio, Sopela, Loiu eta hain ondo hartu naben herri horreei guztiei, eta batez be, Andoni Iriondori.

Larrabetzuko herritarrei, bertokoa izan ez arren beti emon izan deustien maitasunagaitik.

Eguastenetako afaltiarrei, txapelketeari zapore goxoagoa emon deutsazuelako: Zoro, Gotzon, Garbiñe, Aitzina, Beñat, Txispain, Iker, Txirri, Jorge eta zaunkariari.

Frediri, sekula bertsotan hasteagaitik, eta Etxahun eta Arkaitzegaz batera, eguaztenetan alkarregaz ikasitako guztiagaitik.

Onintza eta Iratxeri, hirugarren kabareteragaz batera, zeuen moduko jentea ezagutzeagaitik merezi dauelako bertsoen munduak.

Miren, Nahikari eta Goizalderi, zoriontzeko mezua finala amaitu aurretik bidaltzeagaitik.

Gasteizko eta udalekuetako jenteari.

Itxasori, zeure nebea izatea plazer handia dalako.

Amari.

Maritxuri, neure bigarren amari.

plazara

**Planetak, eguzkia eta kosmosa ekarri ditu gurera EAJko Karlos Ormazabalek. Zerura begira egon ostean gure arteko alderdien aniztasuna dauka aipagai artikulu honetan. Alderdiek izan duten bilakaeratik gerora kosmosa izan daitekeenera iritsi arte. Kataluniako hauteskundeekin alderaketa ere egiten du, eta nazionalisten eta ez nazionalisten arteko batuerez eta banaketez ere badihardu.**

Karlos Ormazabal*

# Kosmosa

Harrituta gaude Kataluniako Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzekin. Ezinezkoa zirudien Eusko Legebiltzarreko alderdien aniztasuna beste batean izatea. Oso zaila dirudien arren, Kataluniako hauteskundeek erakutsi dute, hurrengo hauteskunde batzuetan aniztasun handiagoa lor daitekeela, Ciudadans sortu den bezala, antzerako alderdiak sor daitezke, espainiarra defendatzea beste helburu barik.

Euskadin, azken hauteskundeetan honelako zerbait gertatu zen Aldaketarekin, nahiz eta ez gauzatu espainiar nazionalisten banaketaren desegokitasunagatik, asmoa, euskal politikaren planetarioan planeta berri bat agertzea izango da ziurrenik.

Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten taldeen bilakaera ikusita, demokrazia osteko lehen hauteskundeetan, gure planetarioa zazpi planetek osatzen zuten, alderdi politikoak, geure eguzkiak argitu zituelarik, hiru lurraldeko historikoetako herritarrak.

EAJ, HB, EE, PSE-PSOE, UCD, Alianza Popular eta Alderdi Komunistak osatzen zuten gure sistema planetarioa, alderdi abertzaleek 60tik 42 ordezkari zituzten; hautesleen botoaren %65a.

Egungo egituran, gauzak aldatu dira. EAJren zatiketa izan zen, EA sortuz eta HBrena, gaur EHAK, Aralar sortuz; EE-k PSErekin bat egin zuen, eta PP (Alianza Popular eta desagertutako CDSren zati bat elkartuz) eta Ezker Batua (Alderdi Komunista).

Gaurko egoeran, lehen hauteskunde autonomikoekin alderatuz, abertzaletasunarekiko planeta bat gutxiago dugu, Euskadiko




MIKEL ARROIABE

Ezkerra, eta garai batean bi zirenak, zatiketen ondorioz, lau dira. Hauek argi dute zein eguzkiren inguruan ibili nahi duten biraka. Abiapuntu bat, Nafarroako planetarioan indar abertzaleak batzeko balio izan duena, helmugatzat euskal eguzkia hartuta hurbiltasuna sortu nahian dabiltzanak, espazio sideralean galtzeko arrisku gabe. Nonbaitetik hasi behar.

Oso ezberdina da, partidu ez nazionalistena. Abertzaleen eguzkitik ahalik eta gertuen mantentzen saiatzen dira, beraien eguzki handitik, gehiegi urrundu gabe, gurea baino handiagoa izanik, argi eta bero handiagoa ematen baitu eta gureak argitzen ez dien aurpegia argi baitiezaieke.

**"Sinestarazi nahi digute gure eguzkia txikiagoa dela eta beraienaren inguruan biraka ibiltzera zigortua dagoela"**

Gure eguzkiaren argia indar gutxiz ailegatzen zaie, gutxi argitzen ditu eta gutxiago berotu. Urteak daramatzate planeta abertzaleei aurrea hartu nahian, oposizioan. Gezur handi bat sinestarazi nahi digute, gure eguzkia txikiagoa dela eta betirako zigortua dagoela beraien eguzki espainolaren inguruan biraka ibiltzera.

Egitura kataluniarreko planeta berriak, Ciudadans, ze pentsatua ematen die, batzuen artean banatuta duten eta defendatzen ohituta dauden eguzki handiaren biran dabiltzanen mehatxu baita.

Orain, berriz hirukoa sortu da Katalunian, bi, *Estatut*aren garapenaren aldekoekin eta kontrako batekin, nazionalista kataluniarra, onartu ez duena. *Govern*ean denbora gutxi baino lehen azaldu ko dira gatazkatxoak. Baina, Kataluniako nazionalismoari emandako egurra ia behin betirakoa da.

PSCri ez zaio axola ezkerreko kataluniar independentistekin ibiltzea: ezker indarren batuketa deitzen diote. Ez zaio axolako zeinu bereko euskal independentistekin aritzea ere. Legezkoa izan daiteke PSOErentzat bere bertsio autonomistekiko, zatitu, eta garaile aterako zara. Ez da onargarria nazionalistentzat. Aurreratu digute galdutako borroka dela indar nazionalisten batura. Jadanik, ikusten hasiak gara.

Katalunia eta Euskadiko planetarioei dagokien galdera begi bistakoa da. Zer izan zen lehenago, arrautza ala oiloa?. Kendutako eskubideen berreskuratzea partidu nazionalisten arteko itun bat eginez, edo balizko ezkerreko gobernuen osaketa, gure sistema planetarioa espazio handiagoetara bidali nahi dute beraiek ipinitako erregaiez, izandako porrotari inolako kasurik egin gabe, helburu bakarrarekin, bidaia lagunaren nortasuna galtzea?

Houston, arazo bat daukagu…

* EAJko Gipuzkoako Erki Batzarreko kidea.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gabonetako loteriarik erosten duzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %50 |
| EZ | %50 |

**> ZERTARAKO**
Nik ez, zertarako erosi sekula ezer tokatzen ez bazait. Espainiako Estatuari dirua emateko farsa bat baino ez da loteria.
**Ainara**

**> ZORTEA PROBATZEN**
Nik bai. Askorik ez baina anaiaren futbol taldekoena, koadrilan jokatu duguna eta lanekoa badituт partizipazio batzuk. Ea zerbait tokatzen den, Gabonak ondo pasatzeko gutxienez.
**Aitor**

**> EZ TOKATZEKOTAN**
Ez. Iaz lagun batzuk ados jarri eta erosi genuen, baina tokatu ez zenez aurten ez dut jokatuko.
**Miren**

**> TOKI ASKOTAN**
Toki askotan erosten dut. Zer gertatuko litzateke egunero ko okindegian tokatu eta txartelik izango ez banu? Edo bulegokoek loteria erosi eta ni ezer gabe geratuko banintz? Badaezpada hobe erostea.
**Mari Carmen**

**DATORREN ASTEKOA: Sumatzen duzu urtarrileko *aldapa*?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Pipiri, neure maitalerik fidelenari.

Eta neure bizitzan zerikusirik izan dozuen guzti-guztiei, zeuek barik ez nintzalako izango nazen modukoa.

## Batido txokolate

**Estitxu Elduaien**
www.uztarria.com/blogak/estitxu

Joan dira Azpeitiko bost neska, ezagutze aldera, Galarretara, erremonteko partidak ikustera. Sartu dira, eta denak eurei begira. Emakume koadrila bat Galarretan? Hauek ze egiten dute hemen? Gizon batzuk begirazun txar xamarrak ere bai. Hasi da partidua, eta, norbait animatu behar eta erremontista azpeitiarrari animuak emanez neska hauek. "Beinga motell! Animo!". Ta aurreko ilarako gizonak burua jiratu eta halako begirazun bat: "atso hauek ba al dakite non dauden ala?".

Taberna joan eta: "*Gin Tonik* bat, batido txokolate huts bat, eta beste bat *Baileys*-arekin". Kamareroak: "Esto, eske... ez ditut bi batido txokolate. Eske holakorik ez du hemen inork eskatzen. Oso tartean behin, etortzen diren umeren batzuk edo. Eske... emakumeak hemen ikusten ohitu gabe gaude". Komuna non dagoen galdetu eta. "Emakumeena itxita egongo da. Ez dugu ohiturarik eta...".

Hola joan zen arratsaldea. Ni ez nitzen han, baina izandakoek kontatu zidaten. "Animali raro moduen beitzen ziguen!".

Berdintasuna non ote dago? Neskak, gehiago joaten hasi behar dugu. Ze *letxes*, erosi ditzatela batido txokolate gehiago eta ireki ditzatela komunak. Ah, eta hor aurrean begirazun okerrarekin begiratzen duenari, bulla gehiago hurrengoan.

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Santamas, jaietan nahas

Abenduaren 22an
Arrasaten Santamasak.
Baserritarrak egin ditzala
bertan salmenta demasak.

Barazki eta fruta azoka,
ganadurik ez da falta.
Zozketarako ipini dute
plazan txerri bat galanta.

Plazan handia egonagatik
kalean hamaika, horra.
Gabonak gosez ez pasatzeko
jaten dutenak txistorra.

Enborrak mozten indartsu batzuk,
besteek harria jaso.
Eta zenbaitek euren burua
eusteko zenbat arazo..

Bertso zaleek ere badute
aukeran non gozatua.
Nonahi bertsotan egin ezean
entzun dezaten kantua..

Erromerian, plazaren jiran,
Zein, ta, Joselu anaiak.
Santamas ia amaitzear da,
ondo pasa Gabon jaiak.

## Zarugalde?

**Ane Martin**
Arrasate

Argiak ipini dituzte Mondragoen Gabonak direla-eta. Oso ondo. Gabonetan argiak ipintzearen aurka dagoen horietakoa ez naiz. Horretan tradizionala naiz eta gustuko ditut Gabonak eta Gabonetako irudi ohikoak: pinua, apaingarriak, jaiotza, elurra, hotza… (Santa Barbaran jaiotza ipintzen dutenei nire txaloak, ea oraingoan jendeak errespetatzen duen…). Eta kaleak argiekin apaintzeak Gabonetan gaudela adierazten duen moduan, kaleak biziago daudela ere aitortu behar da: biziago, argiago.

Halere, Gabonetako argi apaingarriak kalean neurrian ipintzearen aldekoa naiz. Dirutza gastatu beharrean, apaintzeko beste bai, baina pasatu barik. Eta uste dut azken urteotan hemengo udalak, oro har, jabetu direla horretaz eta lehen baino gutxiago gastatzen dutela. Ondo.

Baina niri amorrua ematen dit Arrasateko Zarugalde bezalako erdiko kale esanguratsu batean argi barik egotea azken asteotan. Ez Gabonetako argi barik, baizik eta kaleko argi normalik barik. Ilun dago Zarugalde. Horregatik eskatu nahi diot Arrasateko Udalari konpontzeko lehenbailehen.

## Aurten ere badator kabalgata

**Saioa Iturbe** (Arrasateko Errege Magoen kabalgatako komisioa)
> Arrasate

Datorren hilaren 5ean Errege Magoak Arrasatera ekartzeko lanetan hasiak gara. Azken urteotan estualdi ederretik atera gaitu zuen aldetik jasotako laguntzak eta espero dugu aurten ere Arrasateko umeen pozaren zati izango zaretela. Antortxero edo danbor jotzaile izan nahi baduzue ongi etorriak izango zarete gazte, heldu nahiz aitona-amona. Honetarako urtarrilaren 2an arratsaldeko 6etan elkartuko gara San Biator Handiko jolaslekuan. Umeen abesbatzak, berriz, abenduaren 28 eta 29an eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an, arratsaldeko 6etan, izango ditu entseguak San Biator Handiko aretoan. Aldez aurretik guztioi esker mila eta Gabon Zoriontsuak pasa!

## Sentitzen dut

**Mikel Basabe** (Aralar)
Gasteiz

Umilki: sentitzen dut. Sentitzen dut lezioa ez dugulako ikasi, eta iaz bezala aurten ere, EAEko aurrekontuei zuzenketak egiten jarraitu dugulako. Hori gutxi balitz, gureetan txertatu ditugu gizarte mugimenduek ekarri dizkiguten zuzenketak, lotsa gabe defendatu ditugu, eta batzuetan aurrera ateratzea lortu ere.

Onartu behar dut iaz ere berdin antzera jokatu genuela: euskaltegiek ekarri zizkiguten (geuri eta ekarpenok defendatzeko disposizioa agertu zuten alderdiei) proposamenak eraman genituen legebiltzarrera, bertan haien defentsa egin genuen eta aurrekontuei gehitzea lortu genuen. Berdin gertatu zen tokiko telebistekin ere. Beste horrenbeste egin genuen haur eskolen aurrekontuarekin ere.

Aurton, ikastolen konfederazioak, Kontseiluak, euskarazko komunikabideak sustatu nahi dituztenek, edota euskalgintzako beste eragile batzuek helarazi dizkiguten proposamenak defendatu ditugu… eta gure aldetik ere zenbait partida berri sortzea proposatu dugu euskal eskola publikoaren sareko ikastetxeetan hobekuntzak egiteko, baita gizarteratze itunetan eta alorreko enpresetan, edota etxebizitzan ere. Sentitzen dut horregatik guztiagatik.

Barkatu legebiltzarrean indar metaketa baliatuz aurrekontuak hobetzeko saiakera egiteagatik. Noski, ez dira geuk geuretara egingo genituzkeenak. Jakina.

Iaz eta aurten, Aralarrek partida zehatzak negoziatu ditu zenbait ataletan (euskaran, hezkuntzan, gizarte arloan, eta etxebizitzan bereziki), PPk eta PSEk osotasunari egindako zuzenketen aurkako bozka ematearen truke. Horren emaitza izan dira bai iaz, bai aurten ere, aurrekontuetan lortutako hobekuntzak. Iaz 21 milioi euro. Aurton 30 milioi euro. Agerikoa da ez dugula lezioa ikasten. Bozka musu truk ematea omen da egokiena. Aurrez ezer negoziatu gabe. Ezker abertzalea taldeak Lehendakari egin zuen Ibarretxe ezertxo ere negoziatu gabe. Euren terminologiari jarraiki, gobernu neoliberala sustatu zuten jardunbide oinarrizkoenak ere adostu gabe: nazio eraikuntza adibidez.

Baina hara! Aralar heldu, eta argi eta garbi utzi genuen gure bozka negoziatu eta adostu behar dela. Ez dugula debaldeko bozkarik emango, alegia. Ibarretxe Lehendakari izendatzeko saio hartan bezala.

Jardun politikoan aldaketa zehatzak proposatu genituen; Lehendakariaren urte luzetako ohiko jardunarekiko aldaketak eragiteko asmoz. Gure proposamenik onartu ez zenez, ez genion bozkarik eman.

Beraz, ez dugu ikasi. Tematiak gara, politika egiten setatzen gara, baita politika parlamentarioa ere. Eta hori, nahiz eta Gasteizko Legebiltzarrean, Iruñekoan ez bezala, alderdirik txikiena garen. (Hain da okerra gure bidea, eze beti atsekabetu gaitu foru-erkidegoko aurrekontuak ezin hobetzeak, gizarte mugimenduek Nafarroan ere bidali dizkiguten proposamenek aurrera ezin egiteak). Baina ikasi nahi dugu, okerrak zuzendu gura ditugu. Horregatik, aurrekontuak hobetzeko proposamen gehiagorik ez! Horixe eskatzen diegu euren proposamenak bidali dizkiguten gizarte mugimendu guztiei, ez bidaltzeko proposamen gehiago (nahiz eta proposamen horiek haien lana ere hobetzeko balio duten). Euskaltegiei, ikastolen konfederazioari, Kontseiluari... eskatzen diegu ez bidaltzeko zuzenketa gehiago, aurrerantzean ez gara-eta haien eta jarduera parlamentarioaren arteko bitartekari izango. Akordio bat lortu dugulako kritikatzen gaituztenei ere eskatzen diegu datorren urtean lehenago esateko, hasiera-hasieratik bazter dezagun aurrekontuak gure bozkaz hobetzeko tentazioa.

Baina hori datorren urtean izango da. Oraingoz, eta autonomia erkidegoko aurrekontuak Legebiltzarrean datorren 28an bozkatu arte, gertu egongo gara Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzeko, hark ondo daki-eta zer egin behar duen: segitu diru partidak adosten, baita ilarako azkenarekin ere, aurrekontuak hobetzeko.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:**
**943 25 05 01**
**Faxa:**
**943 25 05 13**
**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**



Zorionak eta urte berri on!

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE IRRATIA · ASTELEHENEKO GOIENKARIA · GOIENA TELEBISTA · GOIENA.NET · GOIENKARIA


Urte barri, barri
zoriona ekarri ikastolari
egi bihurtuko diren
ametsak ditu ugari.
Bi mila eta zazpian
igoko gara gailurrera
oihukatuz: elkarlanean
ikastola aurrera!
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
ARANZADI IKASTOLA
Arizmendi ikastola
TXANTXIKU IKASTOLA


Etxerako ederrena,
Zangitun
ZANGITU margoak
Irala z/g BERGARA
Tel.: 943 76 19 54
D. IRALA KALEA
Plazatik 2. sarrera
IRIZAR KALEA
JUAN XXIII PLAZA
IRU margoak
Araba etorbidea 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 11 71
• Parket flotatzailea*
• Sintasola*
• Moketak*
• Paper pintatuak
* Salmenta eta etxean ipintzea.
koloreak sortzeko makina
paper pintatua
deco-tex
ZANGITU alfonbrak
Telesforo Aranzadi 2 BERGARA
Tel.: 943 76 08 69
• Alfonbrak
• Alfonbrak neurrira
• Funda nordikoak
• Edredoiak
• Kortinak
• Toailak
• Izarak


JANTZIDENDA
LASAGABASTER
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55
ETXE APAINKETA



**> ARRASATE**
Erdiguneko zirkulazioa berrantolatu egingo dute **> 18**



**> BERGARA**
Agorrosin ekintza guneko txartela atera daiteke dagoeneko **> 24**



**> ARETXABALETA**
Peña Zubi txapelketa 22. aldiz jokatuko dute Gabonetan **> 31**



**> ESKORIATZA**
Hainbat aztarna aurkitu dituzte Santa Marina gunean **> 34**

**ARRASATE** > NAGUSILAN ELKARTEA

# Nagusilan elkarteak boluntarioak behar ditu, zerbitzua indartzeko

**OSPITALETARAKO**
Boluntarioak behar dituzte, San Juan de Dios ospitalerako eta eguneko zentrorako

**BAKARDADEA**
Bereziki, bakardadeari aurre egiten laguntzen dute boluntarioek

**50 BOLUNTARIO**
Bergaran, Oñatin eta Arrasaten 50 boluntario daude gaur egun




**BOLUNTARIOAK** Argazkian, boluntario talde bat, Arrasteko Iturbide egoitzan, iaz; gizonezkoa da Tomas Atxa. NAGUSILAN


**UBANE MADERA** > ARRASATE


Badira bost urte inguru Nagusilan elkartea Debagoienean lanean hasi zela. Boluntarioez osatutako elkartea da, pertsona nagusiei laguntzeko. Eta bereziki, bakarrik dauden pertsona nagusiei bakardade horri aurre egiten laguntzeko elkartea da. Gure ibarrean, hiru herritan ditu ordezkaritzak: Arrasaten, Oñatin eta Bergaran. Guztira, 50 boluntario inguru.

**EGOITZAK, OSPITALEAK ETA ETXEAK**

Zaharren egoitzetara, ospitaletara eta etxe partikularretara joaten dira boluntarioak. "Arrasaten, adibidez, Iturbide egoitzara joaten gara egunero; Aita Menni ospitalera, berriz, joaten gara astean behin eta hiru etxe partikularretara ere egiten ditugu bisitak, Udalarekin elkarlanean; 27 boluntario gara hemen", kontatu du Tomas Atxak, Nagusilaneko Debagoieneko arduradunak. "Nagusiekin berba egiten dugu, jokoan ere bai eta Iturbiden, egubakoitzero bingoa antolatzen dugu. Hilero 400 ordu sartzen ditugu". Horrez gainera, egoitzetan ekintza musikalak, jokoak, animazioak… antolatzen dituztela ere kontatu du.

Oñatin eta Bergaran zerbitzu berak ematen dituzte, ospitaletakoak izan ezik, han ez dagoelako horrelakorik. Hori bai, egoitzan dagoen norbait ospitaleratzen badute, hura bisitatzera joaten dira Debagoieneko ospitalera: "Beste barik bisita egitera edo enkarguren bat behar badu, hura egitera…" Oñatin 14 lagun dabiltza boluntario, eta Bergaran beste bederatzi.

**ZERBITZU GEHIAGO EMAN GURAN**

Horrez gainera, orain zerbitzu gehiago eskaini gura ditu Nagusilanek Debagoienean: "Gura dugu San Juan de Diosen ospitaleratuta daudenak bisitatzera joan. Baina boluntario gehiago behar dugu, eta harako jendea lortzea ez da horren erraza, gizonezkoak dira han dauden guztiak, buruko gaixotasunak dituzte… Zakarragoak dira.

Bestalde, San Juan de Dioserako izan ezik, Aita Menniren eguneko zentrora joateko ere behar ditugu boluntarioak".

Hori horrela, dei egiten die herritarrei Nagusilan elkartean parte hartzeko. Ez da baldintza berezirik behar, gainera: "Adinez nagusia izan behar da, ez besterik. Guk eskatuko diogu astero bi ordu sartzea, baina derrigortasun barik. Interesa daukana etor daiteke gure lokalera: Arrasate pasealekua 3, behea; edo niri deitu telefonoz: 943 79 25 85". Bergaran jardun gura duenak, berriz, 943 76 43 97 telefonora dei dezake; eta Oñatirako, 943 71 67 66 telefonora. Nagusilanen jarduten duten gehienak erretiratuak badira ere, baldintza hori ez da derrigorrezkoa elkartean laguntzeko. Gero, elkartea arduratzen da boluntarioek izaten dituzten desplazamendu gastuez eta aseguru bat ere badu, zerbait gertatzen bada ere.

**ARETXABALETAN ERE GURA**

Bestalde, oraindik epe luzeagora begira ere badabiltza Nagusilanen. Tomas Atxak aurreratu digun moduan, Aretxabaletan beste talde bat sortzea pentsatzen dabiltza; dena den hori oso urrun ikusten dute oraindik, "hori aurrerago begira izan beharko da, jendea behar dugu eta lehenengo San Juan de Dios eta eguneko zentroarena egin behar dugu".

DATUA

**20**

**EGOITZA**

Euskal Autonomia Erkidego osoan dago hedatuta Nagusilan, baina Gipuzkoan du ordezkaritza zabalena: 20 herritan dago taldea. Gure ibarrean, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin daude taldeak.

ESTATUAN ERE BADU ORDEZKARITZA NAGUSILANEK

## Zilarrezko Haria, bakardadeari aurre egin telefono bidez: 900 71 37 71

Nagusilan Euskal Autonomia Erkidego osoan dago hedatuta, "baina gehien Gipuzkoan, 20 herritan dago ordezkaritza; guztira, 660 boluntario ditugu", dio Tomas Atxak. Donostian dauka egoitza nagusia, Arrasate kalean, baina datorren urtean lokala estreinatuko dute, Antiguan.

Datu orokorrak begiratuta, EAEz gainera, Nafarroan, Zaragozan eta Granadan ere ematen du zerbitzua Nagusilanek. 2006ko datuen arabera, 28 egoitza ditu guztira, eta 921 bazkide. Etorkizunean, berriz, Asturias, Kantabria, Sevilla, Madril eta Malagan zabaltzeko asmoa dute.

Bestalde, pertsona nagusiak bisitatzera eta laguntzera joateaz gainera, hilero aldizkari bat argitaratzen dute, euren ekitaldi, batzar eta jardueren berri emateko.

Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkarte deklaratu zuen, 2003an.

Horrekin batera, Nagusilan elkartean telefono berezi bat badutela ere jakinarazi gura du Tomas Atxak: Zilarrezko Haria izena du eta 900 71 37 71 da haren zenbakia. Hala, etxean bakarrik dagoen pertsona nagusiak gura duenean dei dezake telefono horretara, beste aldean dagoenarekin berba egiteko, beste barik: "Bakarrik bizi direnei zuzendutakoa da, batez ere. Dena den, jende gutxik deitzen du Zilarrezko Harira, pentsatzen dutelako ordaindu egin behar dutela. Eta ez da horrela; telefono zenbaki hori guztiz doakoa da. Hala, ikusita zer gertatzen den, egiten duguna da deitzen duenari telefono zenbakia hartu eta geuk deitzen diogu gero, lasai-lasai berba egin dezan".

Zilarrezko Hariaren beste aldean egunero izaten da norbait, goizez eta arratsaldez: 09:00etatik 13:00ak arte eta 15:00etatik 20:00ak arte.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 24 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 25 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 26 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 27 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 28 | Español | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 29 | Ruiz | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 24 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 25 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 26 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 27 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 28 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 29 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 24 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 25 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 26 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 28 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 29 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 24 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 25 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 26 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 27 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 28 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 29 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 23**
Egubakoitzeko lainoak joan eta zapatua garbia izango da, goizean freskotasun handia nabarmenduko den arren. Hotza eta eguzkitsua.



**Domeka, 24**
Domekan, berriz, zapatukoaren eguraldi berbera egingo digu: oso goiz hotza baina gero eguzkitsu eta oro har, txukun-txukun.

### EUSKAL HERRIAN

Eguraldi eguzkitsua izan behar dugu Gabon jaietan geurean. Aurreikuspenek diote goizean hotza nabarmena izango dela, fina, gainera. Baina lainorik ez dugula izango. Hori horrela, eguzki orduetan, behintzat, eguraldi txukuna aurreikusten da datozen egunotarako.



### TENPERATURAK

| | |
|---|---|
| **MINIMOA** Zapatua, 16 | -3 ºC |
| **MAXIMOA** Zapatua, 16 | 11 ºC |
| **ASTEKO EURIA** ($l/m^2$) | 9,5 L |

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 13** | 9 ºC | 3 ºC | - $l/m^2$ |
| **Eguena, 14** | 8 ºC | -2 ºC | - $l/m^2$ |
| **Egubakoitza, 15** | 8 ºC | -3 ºC | - $l/m^2$ |
| **Zapatua, 16** | 11 ºC | -3 ºC | 1,2 $l/m^2$ |
| **Domeka, 17** | 8 ºC | 1 ºC | 5,1 $l/m^2$ |
| **Astelehena, 18** | 6 ºC | 2 ºC | 2,5 $l/m^2$ |
| **Martitzena, 19** | 8 ºC | 5 ºC | 0,7 $l/m^2$ |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA ABENDUAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **12** | **20** | **27** | **5** |

## oharrak eta deialdiak

OÑATI
**> Olentzerori Internetez gutunak idazteko**
Olentzerori Internetez gutuna idazteko lehiaketa antolatu du KZguneak, ume eta helduendako. Parte-hartzaileen artean, Eroskin *on-line* erosteko txartelak zozketatuko dituzte, eta denendako opariak ere egongo dira.

BERGARA
**> Skate taldea sortzeko batzarra, gaur**
Skate taldea osatu nahi dute, eta horretan interesa dutenei dei egiten diete gaur, egubakoitza, egingo duten batzarrera, Pol-Pol tabernan, 20:00etan.

ESKORIATZA
**> KZguneko hurrengo ikastaroa, hilaren 12an**
KZgunea urtarrilaren 12an irekiko dute hurrengo. Egun horretan, tutorea 10:30etik 13:00etara egongo da.

DEBAGOIENA
**> Baserriko plastikoak jasotzeko eguna**
Baserrian erabilitako plastikoak jasoko ditu Deba Garaia landa garapen elkarteak abenduaren 26an, martitzena. Ohiko lekuetatik pasatuko dira. Argibideetarako, deitu 943-76 25 47 telefonora.

ARRASATE
**> Portaloi elkarteak bi gai landuko ditu**
Euskal presoen aldeko Portaloi elkarteak honako gaiez jardungo du datozen egunotan: ordezkariak izendatzeko eskubidea eta beste eragileekin harremana izateko eskubidea (abenduak 22, 23 eta 24) eta eztabaida eta erabaki guneetan parte hartzeko eskubidea (abenduak 29, 30 eta 31).

ANTZUOLA
**> Hurrengo Internet ikastaroa, 14an**
KZgunea urtarrilaren 14an irekiko dute berriro. Egun horretarako, ViaMichelin-ekin bidaiak antolatzearen gaineko ikastaroa antolatu dute.

ESKORIATZA
**> Bi Internet ikastaro emango dituzte gaur**
*Zure seme-alabak babestu* izeneko Interneteko ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 10:30-11:30 ordutegian; eta sinadura digitalaren gaineko mintegia emango dute 11:30etik 12:30era.

ARRASATE
**> Hainbat Interneteko tailer emango dituzte**
Honako Interneteko ikastaroak emango dituzte datozen egunotan KZgunean: *GIMP 1* (hilak 26 eta 27), sinadura elektronikoarena (hilak 26), foroak eta KZguneko laguntza (hilak 26), *GIMP 2* (hilak 28 eta 29) eta *Asteburu bat Euskal Herrian* delakoa (hilak 29).

BERGARA
**> Sabel dantza eta sukaldaritza begetarianoa**
Sabel dantza eta sukaldaritza begetarianoa egiten ikasteko ikastaro bana antolatu du Bergarako Udalak. Biak urtarrilean hasiko dira. Izena emateko, deitu 943 77 91 60 telefono zenbakira.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
**> Ume eta Gazteen Astea antolatu dute**
Gabonetako oporretarako argazki lehiaketa, izotz pistara irteera, alkoholik gabeko koktel lehiaketa… antolatu ditu gaztelekuak. Zabalik dago ere urtarrilaren 2an Lekeitiora egingo duten irteerarako izenemate epea. Bestetik, umeendako ur jolasak, antzerkia, ipuin kontaketa… egongo dira.

ARETXABALETA
**> Hitzaldia egingo du Pello Zabalak**
Klima aldaketaren inguruko hitzaldia egingo du Pello Zabalak hilaren 28an, eguena, kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE
**> Errege Magoen kabalgatako entseguak**
Errege Magoak Arrasatera datozenerako lastargi-eramaileak eta danbor-joleak behar dituzte. Gertu dauden helduek urtarrilaren 2an egingo dute batzarra San Viator Handin, 18:00etan; umeek leku berean entseatuko dute abenduaren 28an hasita, 18:00etan.

ARRASATE
**> Korrikako materiala salduko dute**
Korrikako materiala salduko dute bihar, zapatua, Seber Altuben, 11:00etatik 14:00etara.

BERGARA
**> Gazte eta gaztetxoendako capoeira**
Capoeira tailerra antolatu du Udalak abenduaren 29rako, Agorrosinen, 17:00etan.

ARETXABALETA
**> Maila guztietako ume eta gurasoendako patinaje ikastaroak antolatu dituzte**
Patinatzen ikasteko edo hobetzeko aukera dute ume eta gurasoek abenduaren 26tik 29ra bitartean eta urtarrilaren 2tik 5era bitartean. Umeendako zein helduendako bi maila antolatu dituzte, eta talde bat gurasoek eta umeek batera ikasteko. Kirol etxean izango dira saioak. Argibide gehiago, hantxe bertan.

**943-25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

**kale inkesta**

# Gustuko duzu aurtengo Gabonetako kultura egitaraua?



**Maria Jesus Quinta**
Langilea
Eskoriatza

Aurten kanpora noa. Gabonetarako prestatu dutena ondo dagoela uste dut, gauza gutxi egoten dira-eta. Bide batez, eskatu gura nuke kalean Gabonetako argi gehiago jartzeko.



**Jose Regidor**
Erretiratua
Eskoriatza

Aurten Gabonetan herritik kanpora noa. Lehenengo aldia da, urtero hemen gelditzen naiz-eta. Gabonetan gauza asko eta giro ona egoten dira herrian. Ni gustura nago urteroko ekintzekin.



**Maria Dolores Mesa**
Langilea
Eskoriatza

Ondo dago. Batez ere umeendako gauzak egoten dira. Hala ere, lehen giro politagoa egoten zen, eta herritarrek gehiago esku hartzen zuten. Horregatik, batzuetan dirudi ez direla Gabonak.



**Maria Jesus Ancin**
Langilea
Eskoriatza

Eskoriatza herri txikia da, baina kultura ekintza asko egiten dituzte: antzezlanak HUHEZIn, umeendako ipuinak... Gabonetan ere, umeendako batez ere, hainbat ekintza egoten dira.



**Joseba Gabilondo**
Erretiratua
Eskoriatza

Gabonetako egitaraua ondo dagoela uste dut, gustura nago. Giro oso polita egoten da herrian. Nik ez nuke beste ezer eskatuko, antolatzen dutenarekin ondo dagoela uste dut.

**txaloak eta txistuak**



UBANE MADERA

# Iturria trabatuta zikinkeriarekin

Bergarako Simon Arrieta plazako iturria dela-eta jaso dugu kexua. Guraso batzuek kontatu digute iturria asko trabatuta izaten direla zikinkeriarekin, harraska urez betetzen dela eta umeendako ez dela erosoa izaten. Dauden iturriak hobe zaindu beharko liratekeela diote.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

**asteko datua**

# 200

Gipuzkoako bidegorri sarea handitzen segituko du Foru Aldundiak datozen urteotan. Horren adibide da Bergara eta Antzuola arteko bidegorria egiteko 200.000 euro gorde dituela Aldundiak datorren urteko aurrekontutik.

**usteak uste**

Aintzane Irizar

# Eskerrik asko Hira eta familiari

Egunero, Haurreskolara umearen bila joaten naizenean, Hira etortzen zaigu. Oso umezalea da. Herriko ume guztien izenak ezagutzen dituela esango nuke. Pakistandarra da eta anai-arreba mordoa ditu. Martxoan iritsi ziren Antzuolara. Errumaniarrak eta argentinarrak ere baditugu herrian, bizilagun. Ilusio berezia egiten dit umeok euskaraz berba egiten entzuteak.

Egunotan entzun diet Kontseiluko ordezkariei esaten euren kultura eta hizkuntza errespetatzea oinarrizkoa dela eurek geurea errespetatu dezaten. Hizkuntzaren aldetik, behintzat, Antzuolan ditugun etorkinek ondo baino hobeto dihardute gurea errespetatzen. Komunikabide eta agintariei etorkinen arazoaz berba egiten entzutean, ez dakit zehatz zein den arazoa eurendako. Nik ikusten dudan arazo posible bakarra da gure kultura eta hizkuntzarengan eragin txarra izatea. Antzuolako etorkinena, baina, jarrera eredugarria da, benetan. Eskolako irakasleen lana, batetik, funtsezkoa izan dela uste dut; baina, bestetik, Hira eta bere familiaren eta gainerako etorkinen jarrera benetan txalotzekoa dela deritzot. Eskerrik asko guztioi.

**5 galdera...**

# Lorentza Altuna

Etxekoandrea
Bedoña (Arrasate)

**1. Zuk noiztik egiten duzu konpota? Gabonetarako egingo duzu?**
Bai. Urte asko dira nik egiten dudana konpota, eta ia urtero, gainera. Amarengandik eta amaginarrebarengandik ikasi nuen egiten, eta harrezkero jarraitzen dut.

**2. Zuk orain badaukazu zeini erakutsi ala galdu egingo da zuen konpota?**
Alabak ere egiten du eta gustatu egiten zaio, gainera. Niri aitaginarrebak esaten zidan: "Ai, hau bai gozoa, almiferra!". Hala esaten zion: almiferra. Hari asko gustatzen zitzaion eta harendako ere urtero egin behar izaten genuen.

**3. Zer behar da konpota gozoa egiteko? Niri esan didate errege-sagarrak derrigorrezkoak direla...**
Errege-sagarrak, madariak (negu madariak, jeneralean), pikuak, mahaspasak, okaranpasak, batzuek orejoiak botatzen diete, ura, ardo puska, kanela adarra (larregi barik) eta azukrea. Denak batera ipintzen ditut, garbi-garbi egInda, eta ez dago beste trikimailurik, ezelakorik ere ez.

**4. Konpota horri laguntzeko zer gehiago ipiniko zenuke Gabonetarako, lehengo antzera?**
Lehenago izaten zen konpota eta turroiak. Lehenengo platera, berriz, olio azak eta gero bakailaoa. Ez dakit afari elegantea den, baina pentsatzen zait oraingoa baino hobea izaten zela. Orain larregikoa izaten da. Nik, berriz, joan den urteotan ez dut ipini, baina aurretik, kaleko koinata-eta elkartzen ginen eta olio aza ipintzen nuen.

**5. Tira! Nik hori ez dut ezagutzen. Gozoa izango da, seguru...**
Gozo askoa! Egosi-egosi egin eta ateratakoan, pipermin apurtxo bat, olio errea egin eta gozo-gozoa da olio aza. Eta bakailaoa, berriz, lehen saltsa berdean izaten zen, baina orain modu askotara ipintzen dute, kontsumitzailearen gustura!



ZIRKULAZIOA > ZIRKULAZIO BERRANTOLAKETA

# Erdiguneko zirkulazioa berriro antolatuko dute

## Maala eta Biteri kaleen bitartez lotuko dituzte ospitale inguruak eta Otalora inguruak

## Helburua da lortzea autoek ez erabiltzea Grupo San Juan auzoa saihesbide moduan

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko erdiguneko zirkulazioa berrantolatzea onartu du oraingo astean Gobernu batzarrak. Hori horrela, aurrerantzean Kontzezinoko biribilgunetik Biteri plaza berrira arteko errepide zatia zabaldu egingo dute autoendako. Handik autoak bakarrik joan ahal izango dira Biteri etorbidearen bidegurutzeraino. Han, aurrera zuzen egin beharrean, Biteri etorbidean zehar Nafarroa etorbideraino joan daiteke eta handik gura duen noranzkoa hartu; hau da, gaur egun dagoenaren kontrako noranzkoa izango du Biteri etorbideak. Gainera, Udaletik jakinarazi dutenez, gaur egungo hango aparkalekuak kendu egingo dituzte eta taxien geralekuaren parean, zamalanak egiteko gunea egokituko dute.

Garibai etorbidearen bigarren zatiari dagokionez, berriz, Biteri plazatik Maalako biribilgunerainoko zatia itxita izango da autoendako; bakarrik pasa ahal izango dira handik autobusak eta taxiak.

### MAALAN GORA

Bestalde, Nafarroa etorbidetik etorriz gero, baina Otalora ingurura joan gura duenak bide zuzenena izango du Maala kaletik (Etxe Txikien ondotik) joaten bada. Hau da, Zerrajeran, gaur egun babes ofizialeko etxebizitzak egiten dabiltzan orubearen pareko biribilgunean gora eginda, ertzain-etxe ondotik. Gaur egun justu kontrara egiten dugu, Gipuzkoa etorbidetik etorriz gero, Maala kaletik jaitsi daiteke, Nafarroa etorbideraino (babes ofizialeko etxebizitzen pareraino); bada, aurrerantzean, alderantziz izango da. Eta Maala kaletik datozenendako, semaforoak ipiniko dituzte Gipuzkoa etorbidean, haien irteera errazteko.

### ABENDUAN EZ BADA, URTARRILEAN

Hori guztia egin gura dute abenduaren 26rako, "baina ez dakit iritsiko garen", esan du Hirigintzako teknikari-buru Juan Antonio Urdangarinek. Hori horrela, abenduaren 26an ez bada, urtarrilean ezarriko dute berrantolaketa berria.

Horren guztiaren helburua epe motzean da gidariek ez erabiltzea Grupo San Juan saihesbidea balitz bezala.

Epe luzera begira, berriz, Arrasaten ere nagusitzen joango da gainerako hirietan nagusitzen dabilen joera: autoen kontra eta oinezkoen alde. Bide horretan, herriaren alde zaharra oinezkoendako egokitzen dabil Udala azken urteotan. Adibide moduan, hortxe dugu Garibai etorbidearen eraldaketa. "Eta Alfontso X. Jakintsuaren plaza (Grupo San Juan) oinezkoendako egokitzeko proposamena hedatzen dabil Udalean. Akaso datorren urtean landuko litzateke. Horrekin hasiko ginateke San Juan auzoan, eta helburua da poliki-poliki Grupo San Juan osoa bihurtzea oinezkoendako. TAO (OTA) ere etorriko da... Azken batean, joera hori nagusitzen dabil gizarteak bultzatzen duelako (herrien erdiguneetan geroago eta auto gutxiago ibiltzea), eta hori ez dago *kolore* politikoen mende".



**MAALA** Noranzkoa aldatuko dute Maala kalean; semaforoak ipiniko dituzte. U.M.

UDALA > ZABORTEGI BERRIA, MARKULETEN

# Zabortegia egingo dute Markuleteko industrialdean

## Obretako lurrak botatzeko izango da; zabortegia bete eta gero, industriarako gune bilakatuko dute eremua

U.M. > ARRASATE

Olandixoko tunela eraikitzean aterako dituzten lurrak botatzeko izango da Markuleteko zabortegi berria. Egitamu Orokorrean jasota zegoen halako bat sortzea Arrasaten.

### INDUSTRIARAKO LURRAK

Hain zuzen ere, Egitamuak planteatzen duena da industriarako lurren eskasia dagoela Arrasaten. Eta berriak sortzeko, proposatzen du inguruan egin behar dituzten obra handiak aprobetxatzea (autopista, Abiadura Handiko Trena...) herrian zoru industrial berria sortzeko.

### OLANDIXOREKIN, BETE

Hori horrela, Udalak aurreikusi du Markuleten, Ikutixo baserriaren inguruan 142.378 metro karratu erabil ditzaketela helburu horrekin (lur publikoa da). Hala, lehenengo eremu hori zabortegi moduan erabiliko dute, Olandixoko lurrendako; eta zabortegia bete eta gero, hura industrialde izateko egokituko dute.

Proiektu horri hasierako onespena eman dio oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrak. Orain, 20 egunez jendaurrean ipiniko dute (udaletxepeko iragarki-taulan), alegaziorik balego, haiek jasotzeko.

> UDALA

### Urteko azkeneko osoko bilkura egingo dute datorren martitzenean

Hileko azkeneko astelehena jai izanda (abenduaren 25a), martitzenean egingo dute urteko azkeneko osoko bilkura. Ordua betikoa da: 09:00etan. Bestelako gaien artean, Arrasateko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartzea proposatuko dute. Eta EBren eta Aralarren mozio bana aztertuko dituzte.

> LOTERIA

### Muruamendiaraz gozodendan argitaratu duten loteria zenbakia ez da zuzena

Muruamendiaraz gozotegian (Erdiko kale 28) banatutako Gabonetako loteriarako partizipazioetan agertzen den zenbakia okerra da. Zenbaki hau agertzen da: 78.412. Baina honako hau beharko luke: 79.812. Inprentan egin zuten akatsa. Abenduaren 22ko loteriaren zozketan, beraz, zenbaki honekin jokatuko dute: 79.812.

> ZERGAK

### Espaloia erabiltzearren edo lekua erreserbatzearen gaineko zerga ordaintzeko epea

Udalak iragarri du honako zerga ordaintzeko epea bukatzear dagoela: espaloia erabiltzearren edo espazioa erreserbatzearren. Hala, abenduaren 30era arte dago zerga hori borondatez ordaintzeko aukera. Epea bukatu eta gero, ordaindu barik geratu diren erreziboak gainkarguarekin kobratuko dituzte.


TapiceriAINUR
TAPIZATU LANAK:
• SOFAK
• BESAULKIAK
• AULKIAK
• ETA ABAR
Nafarroa etorbidea 23-MI-11
Tel.: 943 79 19 43/ 680 826 555

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

**GABONAK** > EKITALDIAK

# Olentzero berria, jaiotza eta kabalgata

## Aurtengo berritasuna da herritar talde bat dabilela Olentzero antolatzen, domekarako

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Bihar, zapatua, inauguratuko dute jaiotza, Laubiden, azken urteotan moduan. San Andresko parrokiakoek ipini dute eta hantxe izango da Errege ostera arte; hilaren 7ra arte, beraz. Gabon kantuekin alaituta ipiniko dute: "Euskarazko eta gaztelaniazko kantuak izango dira eta musika ez da oso altu egongo, ingurukoak ez molestatzeko", adierazi dute parrokiakoek. Zera ere gaineratu dute: "Aurten jaiotza bera bakarrik ipini dugu, baina datorren urterako ahaleginduko gara hobetu eta handiagoa ipintzen. Jakina, horretarako laguntasuna beharko dugu".

**OLENTZERO BERRIA**

Olentzerori dagokionez, berriz, mendia utzi eta Arrasatera bidean dela iragarri dute. Herritar talde batekin hitzordua eginda dauka gure ikazkinak, domekan, 18:00etan, Zaldibarren. Handik atera eta honako ibilbidea egingo dute Arrasateko kaleetan, guztiek batera: Kontzezino, Garibai, Maala, han buelta hartu eta Ferixalekura joko du, Monterron, Olarte, Seber Altube, Erdiko kalea, eta handik Herriko Plazara.

Ibilbide guztia egingo du gaitariek eta txistulariek girotuta. Eta gozokiak eta ikatza eramango ditu Olentzerok, umeen eta gurasoen artean banatzeko.

Bestalde, Olentzerori laguntzen joango dira 100 herritar baino gehiago, guztiak ere baserritar jantzita; eta, besteak beste, suziriak eta zintzarriak eramango dituzte, ikazkinaren bidea argitzeko.



**OSPITALEAN** Errege Magoak ospitalean opariak banatzen. ERREGE MAGOEN KOMISIOA

Era berean, antolatzaileek parte hartu gura duten herritar guztiei dei egiten die Olentzerorekin kalejiran parte har dezaten. Hori bai, eskatu dute, mesedez, baserritar jantzita agertzeko.

Herriko Plazan bukatuko du ibilbidea Olentzerok. Han, besteak beste, Mutil dantza egingo diote. Horrez gainera, 19:00etan, Goikobalu abesbatzak kantu saiotxoa egingo du.

Esandako moduan, herritar talde batek antolatu du Olentzero, euren esanetan, "guretako horren garrantzitsua den ohitura indartzeko". Argi utzi dute aurtengoa antolatuko dutela: "Datorren urtean ikusi behar...".

**GUTUNAK, EGUERDIAN**

Era berean, kontuan hartu beharra dago Olentzerorendako gutunak eguerdian batuko dituztela. Hain zuzen ere, Seberren 12:30etik 14:00ak arte izango dira Olentzeroren laguntzaileak gutunok jasotzen zakuekin. Gainera, 13:00ak inguruan, Goikobalu Txikik kontzertua egingo du bertan.

**ERREGEAK ERE BIDEAN DIRA**

Bestalde, Ekialdeko Errege Magoak ere bidean direla iragarri dute. Haiek polikiago datoz, urtarrilaren 5ean iritsiko dira-eta. 19:00etan egin dute hitzordua, Abaroan. Eta, ohikoa duten moduan, Arrasaten ibiliko dira kalejiran, Herriko Plazara iritsi arte. "Aurten, obrak direla-eta, oraindik ez dugu zehaztu zein ibilbide egingo dugun", adierazi du Saioa Iturbek, Arrasateko Errege Magoen kabalgatako komisioko kideak. Karroza eta guzti aterako direla esan du, eta karroza gai zehatz baten gainekoa izango dela, "baina hori sorpresa da, aurreratu nezake aurtengo kabalgata oso gozoa izango dela".

Hori bai, iragarri du 20:00etan iritsiko direla Herriko Plazara eta han antzeztuko dutela Errege Magoek umea adoratu zutenekoa. "Gero, handik ospitalera joango gara, 20:20-20:30ak inguruan. Eta ospitalean opariak banatuko ditugu, 22:00ak arte". Abesbatzak lagunduta egingo dute ibilaldi hori Errege Magoek. Abesbatzan lagundu gura duenak abenduaren 28an eta 29an eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an entseguetarako hitzordua dauka, 18:00etan, San Viator Handiko aretoan. Eta Errege Magoei lagundu gura dienak, suziriekin edo danborra jotzen, urtarrilaren 2an, 18:00etan agertu beharko du San Viator Handiko jolaslekuan.



**AISIALDIA** > TXIKILANDIA GABONETAKO JOLASPARKEA

# Gazteei eta txikienei zuzendutako ekintza gehiago

Urtarrilaren 2tik 5era bitartean egingo dute jolasparkea Musakolako kiroldegian

Herriko elkarteen laguntzarekin ekimen berriak eramango dituzte jolasparkera



TXIKIENENDAKO APROPOSA Oraingo Txikilandian, txikienendako hainbat ekintza berezi egingo dituzte. TXATXILIPURDI

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Urtarrilaren 2tik 5era bitartean Txikilandia jolasparkea egongo da Musakolako kiroldegian. Txatxilipurdik urtero egiten duen ekimen hori Debagoienean umeendako egiten den handiena da. Hilaren 2tik 4ra goizez eta arratsaldez egongo da zabalik; hilaren 5ean, berriz, goizez bakarrik. Hain zuzen, goizero 30 bat begirale ibiliko dira lanean, eta arratsaldeetan laguntzaile gehiago izango dituzte.

**GAZTEAK ETA TXIKIENAK**
2007an Txatxilipurdik ahalegin berezia egingo du gazteendako eta txikienendako ekintzak egiteko. 10 eta 14 urte bitartekoendako, serigrafia, fimo, larrugintza, txapa txikiak eta beste egiten ikasteko tailerrak antolatu dituzte.

Horrez gain, 1 eta 4 urte bitartekoendako Txikilandiako ludoteketan ekintza gehiago egingo dituzte: "Adin tarte horrek arreta berezia merezi du, eta horren aldeko ahalegina egingo dugu".

**HERRIKO ELKARTEEKIN**
Bestalde, 2006ko jolasparkearen ildoari jarraituta, tailerrak Elkarhezitzen gobernuz kanpoko erakundearekin lankidetzan egingo dituzte. Hala, kultura aniztasuna lantzen saiatuko dira.

Horrez gain, herriko txalapartari, trikitilari, bertsolari, talogile eta bestelakoek ere hainbat ekintza egingo dituzte kiroldegi barruan. Are gehiago, tailerrak ere egingo dituzte, eta horren ostean, gaztetxoek ikasitakoa jendaurrean erakutsi beharko dute Txikilandiaren barruan.

**IKUSKIZUNAREN ESTREINALDIA**
Era berean, urtero egiten duten moduan, Txatxilipurdik ikuskizuna estreinatuko du Txikilandian. *Mundua koloretan* lana egingo dute txikienendako. 0 eta 5 urte bitartekoendako da. Horren bitartez, umeak sentsazio eta emozioen munduan murgilduko dira ordubetez, eta esku hartzeko aukera izango dute.

Horiez gain, ekintza eta zerbitzu ugari izango dira Musakolan: ipuin txokoa, ziber-txokoa, puzgarriak, gurasoen txokoa... Eta urtarrilaren 4an, igerilekua puzgarriekin beteko dute. Horiekin eta bestelako sorpresekin, ez da inor ere aspertuko!

**BERTSOLARITZA**

## Gaur bertso saioa egingo dute Amaia antzokian

Paia, Maia, Lujanbio, Agirre eta Alustiza arituko dira Amaia Udal Antzokian

**I.B.**> ARRASATE
Gaurko, egubakoitza, bertso saioa antolatu du AEDk. Urtero egiten dituzte halako saioak Santamas egunean, eta harrera oso ona izaten dute. Bertsozaleendako hitzordu garrantzitsua izaten da hori.

Egubakoitzean Fredi Paia, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Manex Agirre eta Enaitz Alustiza igoko dira Amaia Udal Antzokiko taula gainera. Saioa 20:00etan egingo dute.

Sarrerak 8 eurotan jarriko dituzte salgai. Bazkideek, berriz, 6 eurotan eskuratu ahal izango dituzte.

> EMAKUMEAK

## Etorkinen gaineko erakusketa eta jaia egingo dituzte

Abenduaren 26tik 29ra, Ekin emakumeen elkarteak etorkinen eta kultura aniztasunaren gaineko arte eta argazki erakusketa egingo du Monterronen.

Horrez gain, hilaren 30ean, emakume etorkinen jaia egingo dute Seber Altuben, 18:30ean.

Jai horretan hainbat lurraldetako dantza ikuskizunak, musika kontzertuak eta bestelako ekintzak egingo dituzte.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76


aukerak
zabaltzen
Kontratupeko
mugikorrak
3G
LG KU311
hiru bandakoa
bluetoot-a
USB
mp3
kamera
p.el.
19€
3G
Sony Ericsson
K610i
hiru bandakoa
bluetoot-a
USB
mp3
kamera
p.el.
36€
* Euskaltel Hautaketako edo Euskaltel Leihoko bezeroentzako PSPa, betiere 2006/12/31 baino lehen kontratatzen badute ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua, 18 Kontratu Librea edo goragoko kontratuarekin eta 18 hilabetez irauteko konpromisoarekin. Gehienez 50 unitate.
ROUTER
COMUNICACIONES, S.L
Errebal, 15
Eibar
943 700 369
Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781
euskaltel
-en Banatzaile Ofiziala


Estetika & Gorputz Zentroak
angela
ARGALTZEA ETA
GORPUTZA ITXURAZ
HOBETZEA
Iturriotz, 35
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
T. 607 596 429
info@angelaestetika.net
www.angelaestetika.net
20 saiotan
ALDEA
IGARRIKO DUZU
Aurkezpen promozioa:
600€
x
20 saio
LPG DA GURE AZKEN BERRIKUNTZA
Zelulitisa kendu eta gorputza
itxuraz hobetu
Larruazalaren erlaxazioa
Zelulitis biguna
Ebakuntza ostekoa
Erlaxazioa
Gure dietisten aholkularitza espezializatua zure zerbitzura.

**PILOTA** > ARRASATEKO HIRU PILOTARI GIPUZKOAKO TXAPELDUN

# Aranak, Agirregabiriak eta Bolinagak jantzi dute txapela

Kadete mailako txapela erdietsi berri dute Arrasateko hiru pilotariek

Arana eta Agirregabiria bikoteka lehiatu dira; bakarrik jardun du Bolinagak




**GARAIKURREKIN** Mauri Zubillaga, Ibai Bolinaga, Iker Agirregabiria eta Iban Arana, astelehenean, Uarkapen. X.U.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Domekan ekarri zuen Ibai Bolinagak (Arrasate, 1991) lehenengo txapela etxera. Kadete mailan, buruz burukoan lehiatu da AGT taldeko pilotaria, eta Seguran jokatutako finalean erraz hartu zuen mendean Azkoitiko kontrarioa (18-8): "Lehenagotik ezagutzen nuen pilotari hori, ligaxkan ere irabazi egin niolako. Finalean sakez egin nizkion tanto asko; nahiko erraz irabazi nuen, bai".

**GIPUZKOAKO BI TXAPEL**

Domekakoa ez da Bolinagaren lehenengo txapela, aurten etxean gordeko duen seigarrena da. Gainera, badaki Gipuzkoako txapeldun izatea zer den, orain dela bi urte infantiletan eskuratu zuelako beste txapel bat, orduan Agirregabiriarekin bikotea osatuta. Hala, Arrasateko pilota taldeak duen harribitxietako batek Euskadiko Txapelketa jokatuko du urtarrilean hasita.

Azkeneko egunotan, baina, pilotaren inguruan ez da dena pozgarria izan: "Pena hartu nuen Barriolak finala galdu zuenean, bere alde nengoen-eta. Gustuko dut pilotari hori, neu moduan Barriola ere atzelaria da, baina aurrean ere ondo moldatzen da".

**BIKOTEKA ERE BAI**

Eta astelehenean Iban Aranak (1992), eta Iker Agirregabiriak (1991) hartu zuten errelebua, kadetetan, bikoteka nagusituz (22-8): "Antiguako pilotarien kontra jokatu genuen finala; ligaxkan euren kantxan jokatu genuenean irabazi egin genien. Garaipen hori garrantzitsua izan zen, euren pilotalekua oso berezia delako, ohitu egin behar zarelako han jokatzen, eta hala ere irabazi egin genielako. Hala, bagenekien finalean gauzak ondo eginez gero, txapelak gureak izango zirela", esan digu Agirregabiriak. Finala ez zen gaitza izan, baina bai finalera sailkatzeko azken norgehiagokak: "Arrasateko beste bikote baten kontra jokatu genuen, Zubizarretaren eta Goitiaren kontra, eta orduan parean izan ziren indarrak".

**"EGUNERO EGIN BEHAR DA LAN"**

Ondo daki hori Arrasateko taldeko entrenatzaile Mauri Zubillagak. Gazteei baino ilusio handiagoa egiten die txapel horiek: "Horregatik ibiltzen gara hemen egunero lanean, gazteek pilotan joka dezaten, eta txapelak lanaren emaitza dira".

Izan ere, ordu asko daude atzean: "Bistan da hau gustuz egin behar dela, bestela akabo. Orain momentuan 80 pilotari gazte izango ditugu klubean, eta horrek lana ematen du". Hala, aitortu ditu askotan gazteen atzetik ibiltzen dela: "Zenbat diru gastatuko dudan telefonoarekin! Euretako bat orain eskalatzen hasi da, eta bere atzetik ibili behar izaten naiz entrenamenduetara kale egin ez dezan. Eta ez batekin bakarrik, askorekin ibiltzen naiz horrela. Baina, badaude ezer esan barik entrenamendu batera ere kale egiten ez dutenak".

Lorpen horiek ikusita, esan daiteke Arrasatek harrobi polita duela pilotan, atzetik badatozela gazteak bultza egiten. Urteak daramatza Arrasatek pilotari profesionalik eman barik –Lazkanoren baimenarekin– eta hori ere galdetu diogu Zubillagari: "Bai, hemen dauden gazte askok oso itxura polita dute, indarra, pilotari jotzerakoan duten jarrera ona, azkartasuna... baina, oraindik lan handia dute aurretik".

Eta, harrobiaren gainean berbetan, Zubillagari gogorarazi diogu urteak direla Arrasatek Herri Arteko Txapelketa irabazi ez duela: "Hori da entrenatzaile moduan daukadan ilusio handiena, pilotari hauekin txapelketa hori irabaztea. Aurten, adibidez, gazte mailan hutsunea daukagu, eta kadeteekin bete beharko dugu hutsune hori. Bestela ere, kontuz, akaso aurten irabaziko dugu-eta txapelketa hori. Horretarako, baina, zortea ere aldeko behar da".

> PILOTA

## Santamasetako pilota jaialdian aldaketak izango dira

Gaur arratsaldeko pilota jaialdirako aldaketak izango dira. Hala, eguaztenean argitaratu genuen Santamasetako ale berezian idatzi genuen buruz buruko norgehiagokan Uribarrenek eta Agirrek Olaetxearen eta Mariñelarenaren kontra jokatu behar zutela.

Baina, 18:00etan hasiko duten partidu horretan honako pilotariek jokatuko dute: Maeztuko Jauregik Ajuria galdakoztarrarekin osatuko du bikotea, eta Beasaingo Iriarte eta Arrasateko Axpe izango dituzte kontrario.

> KIROLDEGIA

## Abenduaren 22an, 25ean eta urtarrilaren 1ean kiroldegia itxita

Egun horietan Musakolako kiroldegia itxita egongo da, eta hainbat egunetan ordutegi berezia izango dute.

Hala, hilaren 24an eta 31n 08:30etik 13:30era arte egongo da kiroldegia zabalik; eta urtarrilaren 5ean 07:30etik 19:30era. Horrekin batera, urtarrilaren 5era arte bulegoan 09:30etik 14:00etara egongo dira lanean.

Iturripeko kiroldegiari dagokionez, gaurtik hasi eta urtarrilaren 1era arte itxita egongo da.

> ATLETISMOA

## Bost domina Gipuzkoako Txapelketatik

Joan den asteburuan pista estaliko txapelketak egin zituzten Anoetan. Hala, urrezko dominarekin itzuli zen Lander Errasti, pertika jauziarekin 4,30 metroko jauzia eginda (estaluko txapelketarako gutxieneko marka zen hori). Iñaki Etxagibelendako izan ziren zilarrezko bi domina (60 eta 200 metroko lasterketetan), eta brontzezko bi erdietsi zituen Jon Ander Amadok (200 eta 400 metro lasterketetan).

**Lorenzo M. Joosten M.S.**
Medikuntza naturalean espezialista (Erreg. zenb. 9700118)
• Buruko mina, muskularra eta hezurretakoa
• Insomnioa, estresa eta menopausia
• Masajeak (Tuina - Sihatsu - Moxa)
• Alergiak eta defentsen handitzea
• Haurren hiperaktibitatea
• Sinusitisa
• etab.
*Aldez aurretik deitu txanda hartzeko.*
Arrasate Pasealekua, 29 Ezker behea 653 133 281
Arrasate 943 792 913

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

Arrasatearrak kanpoan

Xabier Gallego > Ikaslea
Santanderren bizi da

# "Santander oinez ibiltzeko hiria da; badia polita dauka, gainera"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza ikasten dabil Xabier Gallego (Arrasate, 1988). Asko ikasi badu ere –hori esan digu, behintzat–, lehenengo partzialetan muturreko ederrak hartu omen ditu. Bistan da ez dituela ikasketa errazenak aukeratu, baina leku lasaira joan da ikastera, Santanderrera.**

"Bartzelonan, Madrilen, Burgosen... Ingeniaritza hori ikasteko hainbat lekutara joateko aukera nuen, baina Santander aukeratu nuen, izen ona duen unibertsitatea delako. Bartzelonara ere gustura joango nintzateke, baina eskolak katalanez dira, eta horrek oraindik zailago egiten ditu ikasketok". Gallego ez da aste bukaeretan herrira itzultzen, eta onartu digu etxekoak eta lagunak faltan sumatzen dituela. Hala ere, gustura dago Santanderren: "Arrasatera joateko, gutxienez, hiru ordu behar ditut autobusean, eta denbora luzea da hori, gurago dut hemen geratu. Egia esateko, orain arte Santanderren ez dut gauza handirik egin. Ikasketak berez dira gogorrak, eta gora begira geratuz gero... Hala, parrandarako Santanderrek Donostiarekin antzekotasun handia duela esan digu, hiria izateko ez dagoela aparteko aukerarik: "Leku lasaia da, eta oinez ibil zaitezke alde batetik bestera, autobusak eta bestelakoak hartzen ibili barik. Egia da, baina, ez dagoela aparteko eskaintzarik".

**"Magdalena jauregia, Sardineroko hondartza, faroa... leku politak dira; baina egia da ez dagoela aparteko eskaintzarik"**


Xabier Gallego.

**ZER IKUSIA**

Galdera hori egin diogu Gallegori; bisitan Santanderrera joanez gero, nora eramango gintuen galdetu diogu : "Santander hiri polita da, eta bertan badago zer ikusi, bai: Magdalena jauregia, Sardineroko hondartza, faroa... Badia ere polita dauka.

Gabonak etxean egingo ditu, baina ikasteko aprobetxatuko ditu oporrok. Izan ere, gainean daude azterketak.

argazki zaharra

## Erregeei opariak eskatzeko, lehen, Bizarzuri etortzen zen enkarguak egitera

Aurrean duzuen erretratua 1948koa da, eta atzealdean dauden etxeek erakusten dute Portaloian egindako erretratua dela. Mari Karmen Aranburu –gutuna eskuan duela–, Maria Zabalo –Mari Karmenen ama– eta Anparo Lopez dira erretratuan azaltzen direnak. Orain, Olentzeroren laguntzaileak etortzen dira gaztetxoen gutunak jasotzera, baina orain dela mende erdi bestelako ohiturak zituzten. Erregeak ospatzen zituzten orduan, eta Bizarzuriri zegokion gazteen eskaerak jasotzeko lana. Santamas eguna aprobetxatzen zuen horretarako. Egun horretakoa da erretratua.

**Argazkia:** Mari Karmen Aranburu.
**Testua:** Xabier Urtzelai.
**Urtea:** 1948.



bere ustez


Aitor Zabalo

## Ongietorria eman 2007. urteari

Konturatu gabe ia beste urte baten amaierara heldu gara. Horrek Santamasak bertan ditugula esateaz gain, oporrak, Gabonak eta urte berria dakartza berarekin.

Santamasei buruz ongi pasatzeko nahia dut bakarrik. Aspalditik datorren jaiarekin bat egin eta denon gustukoa izatea espero dut. Taloak eta txistorrak lagun diezagutela jasango dugun hotza gainditzen.

Gainontzeko gauzen gainean, uste dut urtero esaten dena esatea tokatzen dela. Oraingo urteak badu nonbait ezberdintasun txiki baina garrantzitsu bat: bakearena alegia. Prozesurik badela edo ez dela, urruntzeak, hurbiltzeak eta guzti horiek dauden bitartean itxaropena badagoenez (hau idazten ari naizen momentuan behintzat): desio horri heldu behar hurrengo urterako. Osasuna, dirua eta maitasuna garrantzitsuak izanik, nik aurten eskatzekotan bakea eskatuko nuke, duda barik.

**"Oraingo urteak badu nonbait ezberdintasun txiki baina garrantzitsu bat: bakearena"**

Beraz, datozen data seinalatu hauetan primeran pasa dezagula eta bete daitezela eskatzen ditugun guztiak, eta hurrengo urtea zoriontsua izan dadila, baketsua izateaz gain. Bai Euskal Herrirako eta mundu osorako ere. Zorionak, guztioi.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**UDALA** > ABENDUKO OSOKO BILKURA

# Udal plangintzarako aholku batzordea eratzea onartu dute

Araudia zabalagoa izatea eskatu dute PSEk, Aralarrek eta Bergara Aurrerak

Lan istripuen prebentzioaren mozioa ere aho batez onartu du udalbatzak



**LURZORUA** Lurzoruaren legeak herritarren parte-hartzea jasotzen du. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Udal plangintzako aholku batzordearen errgelamendua onartu zuen aho batez udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran, urteko azkena. Lurzoruaren legeak herritarren partaidetza babesten du, eta hori jasotzeko osatuko du Udalak aholku batzordea.

**ZABALTZEKO ESKAERA**

Batzorde hori osatzen dute alkateak, Hirigintzako zinegotzi eta teknikariek, legez eratuta dauden auzo elkarteek eta ingurumena babesten duten taldeek. Javier Garai PSEko zinegotziak Zabalotegiko eta Fraiskozuriko auzotarrak ere "sartu" behar direla adierazi zuen. Aralarri ere araudi hori estuegia iruditu zaiola esan zuen Iñigo Iñurrategik eta alde bozkatu duela "alkateak araudia zabaltzeko konpromisoa hartu duelako". Bergara Aurrerako Jesus Mari Garitanok ere araudia zabaldu behar dela adierazi zuen, "gazteak, lehen sektorea eta beste kolektibo batzuk ere sartzeko". Victoriano Gallastegik adierazi zuen araudia onartzea dela lehenengo pausua eta gero erabakiko dutela "nortzuk sartu batzorde horretan". Hori erabakitzeko ahalmena alkateak berak duela ere gogorarazi zien osoko bilkuren aretoan zeudenei.

Horrez gain, lan istripuen prebentzioaren inguruko mozioa ere onartu zuen udalbatzak. Mozioa LAB sindikatuak aurkeztu zuen eta aldaketa batzuk egin ostean onartu zuten aho batez.

**SEGURTASUNA**

## Autobus geltokia ez dela segurua dio PSE-EEk

**O.E.** > BERGARA

Autobus geltoki nagusian segurtasun falta dagoela salatu du PSE-EEko zinegotzi Javier Garaik: "Ez dago ez zebrabiderik ez semafororik eta erabiltzaileen segurtasunak kezkatu egiten nau. Duela urte eta erdi eraiki zuten autobus geltoki hori eta harrezkero Udal Gobernuak ez du ezer egin segurtasun falta hori konpontzeko", dio prentsa oharrean Javier Garaik. PSE-EEko zinegotziak gogoratu nahi dio Udalari segurtasun ezaz gain, egoera horrek irudi txarra ere ematen diola herriari: "UNED ikastetxea Bergaran dago eta hango ikasle eta irakasle askok erabiltzen dute autobus zerbitzua egunero".

Bestalde, autobus geltokiko komuna zikina egoten dela ere salatu du Garaik eta gogorarazi dio Udal Gobernuari 1984a ezkero ari dela bere alderdia herrian komun publiko gehiago ipintzeko eskatzen.



ARANZADI IKASTOLA

## ETBko 'Kalaka'-n Kilometroen alde

ETBko *Kalaka* programara joan ziren 80 lagun Bergaratik joan den astean. Aranzadiko ikasle, irakasle eta gurasoak joan ziren bi autobusetan. Kilometroetako kamisetak jantzita joan ziren guztiak eta Xabier Euzkitzeri ere utzi zioten bat, ikusle guztiei erakusteko. 500 euro eman zizkieten programara joatearren, eta Kilometroetarako da diru hori.

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

AGIRRE
jantzi denda
Gabonetako eskaintzak
%30
Bidekurutzeta 18
943 76 72 67

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ZERBITZUAK > LANAK

# Agorrosingo txartela atera daiteke dagoeneko

Hilero ordaindu behar da eta baja emateko paper bat sinatu behar da Agorrosinen

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Dagoeneko atera daiteke Agorrosin ekintzagunea erabiltzeko datorren urteko bazkide txartela. Astelehenean hasi ziren lan horretan eta lehenengo egunean 200 lagunek egin zuten.

**BAJA EMATEKO**
Txartela ordaintzeko modu bakarra dago: hilean hileko kuota ordaindu behar da. 18 urtetik gorakoek, adibidez, 18 euro ordaindu behar dituzte hilean. Sistema horrekin, aukera dago edozein hilabetetan baja emateko. Hori egiteko, aurreko hilaren 25a baino lehen orri bat sinatu behar da Agorrosinen bertan hurrengo hilabetea ez kobratzeko esateko. Alta, berriz, edozein egunetan eman daiteke.



AGORROSIN Hatzamarra erabili behar da Agorrosinera sartzeko. O.E.

**ERAMAN BEHARREKOAK**
2006ko Bergarako eta Mankomunitateko abonuak automatikoki bajan emango dituzte. Beraz, datorren urteko txartela ateratzeko, Agorrosingo bulegotik pasa behar da derrigorrez. Txartel mankomunatua dutenek edo lehenengo aldiz egin behar dutenek, berriz, datu pertsonalak eta kontu korronteko zenbakia eraman behar dituzte Agorrosinera. Gainerakoek nahiko dute hara joanda.

Bestalde, Udal Pilotalekuetarako zozketa egin dute eta emaitza Agorrosinen dago ikusgai. Eguena ezkero, atzo, libre geratu diren eta zozketan tokatu ez zaienen artean banatuko dira.

LEHIAKETA > GABONETAKO ERAKUSLEIHOAK

# Adats, Reizabal eta Maya dendek jarri dituzte Gabonetako erakusleiho politenak

Bakoitzak 250 euroko saria eta garaikurra jaso du kultura zinegotziaren eskutik

O.E. > BERGARA
Adats ile apaindegiak, Reizabal gozotegiak eta Maya arropa dendak irabazi dute Udaleko Kultura Sailak antolatutako Gabonetako erakusleiho lehiaketa. 250 euroko saria eta garaikurra jaso du bakoitzak. Kotoia, sare metalikoa, argiak eta manikiak, besteak beste, erabili dituzte erakusleihoak apaintzeko, eta eurek eskuz egin dituzte dekorazioak.


SARIAK Luis Abajok, Kultura zinegotziak, eman die saria irabazleei. UBANE MADERA

> 2007KO EGUTEGIA

### Datorren urteko 7.000 udal egutegi banatuko dituzte etxez etxe datozen egunetan

Datorren urteko egutegiak atera ditu Udalak eta etxez etxe banatuko dituzte datozen egunetan. 7.000 egutegi atera ditu aurten, iaz baino 500 gehiago. Egutegian, herriko monumentuak, kaleak eta txokoak ageri dira eta argazki guztiak herriko hainbat argazkilarik ateratakoak dira.

> BIDEZKO MERKATARITZA

### Bidezko merkataritzako postua jarriko du zapatu goizean FISC elkarteak, herriko plazan

Bidezko merkataritza postua jarriko du FISC elkarteak zapatu goizean herriko plazan. Postu horretan, elikagaiak eta artisauen lanak egongo dira salgai, batetik, eta elkarteak berak dituen hezkuntza proiektuak ere egongo dira ikusteko. Batutako dirua Kinshasako biztanleei laguntzeko izango da.

> IKASTAROA

### Kirol entrenamenduetan euskara nola erabili eta bultzatu erakutsiko dute ikastaro baten

Kirola egiteaz gain, entrenamenduetan euskararen erabilera nola bultzatu eztabaidatzeko ikastaroa antolatu dute. Udaleko Euskara eta Kirol zerbitzuek antolatu dute. Ttakun kultura elkartea arduratuko da ikastaroaz eta kirol arloan dabiltzan begiraleak, entrenatzaileak, irakasleak eta interesa duen edonor dago gonbidatuta. Ikastaroa lau ordukoa da eta urtarrilaren 3an izango da, Agorrosinen. Izena abenduaren 26a baino lehen eman behar da, udaletxeko Euskara edo Kirol zerbitzuetan.

> MIZPIRUALDEKO GABONAK

### Txistorra, kantuak, bingoa eta Erregeei harrera eginda ospatuko dituzte Gabonak Mizpirualden

Mizpirualde egoitzan ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte aurtengo Gabonak ospatzeko. Atzo, eguena, adibidez, txistorra-jana izan zuten. Domekan, abenduak 24, merienda berezia izango dute, soinu-jotzaileekin batera. Opariak zozketatuko dituzte eta Alai abesbatzaren ekitaldia ere izango dute. Hilaren 28an, San Joxepeko abesbatza taldea joango da kantatzera. Eta urtarrilaren 5ean, bingo berezia egingo dute; gainera, Erregeei harrera egingo diete eta opari banaketa ere egingo dute.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



**OHIKO HITZORDUA** Gabonetako kontzertuak ikusmin handia pizten du urtero. Irudian, iazko kontzertua. GOIENKARIA

**MUSIKA** > UDAZKEN KULTURALA

# Gabonetako kontzertua bihar Udal Pilotalekuan

Bandak, Aritzetak, Orkestrak, Orfeoiak eta Gaberok 'Gladiator' filmaren soinu banda joko dute elkarrekin, kontzertuaren amaieran

**EDU MENDIBIL**> BERGARA
Ohikoa denez, Udazken Kulturalari amaiera emango dio zapatuko Gabonetako kontzertuak. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Lehenbizi Udal Musika Bandak *The Bremen town musicians* joko du; ondoren, Aritzetak *Izarapean*, *Ixil ixilik*, *El bodeguero* eta *Gabeko izar* abestuko ditu; Orkestrako kideek Johan de Meij-en lehen sinfonia joko dute eta ondoren Orfeoiaren eta Gaberoren txanda izango da: *Look at the world*, *Worthy to be praised!* eta *Freedom trilogy* eskainiko dituzte. Bukaeran, talde guztiak elkarrekin arituko dira, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean. Alfredo Gonzalezek berak moldatuta, *Gladiator* filmaren soinu banda (Hans Zimmer) joko dute.

**SARRERAK, SALGAI**
Sarrerak Lazkano oinetako dendan eta kultura etxean daude salgai, 6 euroren truke. Zapatuan Udal Pilotalekuko leihatilan salduko dituzte, 21:30etik aurrera.

**GABONAK** > GAZTETXOENDAKO EKITALDIAK

# Olentzero domeka arratsaldean etorriko da, haurren gutunak jasotzera

Jolas parkea izango da Gabonetan Labegaraietan; Bizar Zuri eta Erregeen kabalgata, urtarrilaren 5ean

**E.M.** > BERGARA
Gabonetarako hainbat ekitaldi antolatu ditu Udaleko Kultura Zerbitzuak: jolas parkea abenduaren 26tik 29ra Labegaraietako kiroldegian izango da zabalik, 16:00etatik 19:30era. Puzgarriak, ohe elastikoak, eskulan tailerrak eta beste hainbat aukera izango dira. Eguneroko sarrera 3 eurokoa izango da eta 5 urtetik beherakoendako toki berezi bat izango da.

**OLENTZERO REN BISITA**
Olentzero haurren gutunak jasotzera etorriko da domekan. San Martin plazan izango da, 18:30etik aurrera. Bizar Zurik urtarrilaren 5ean jasoko ditu gutunak, 17:00etan, Erregeen kabalgataren aurretik. Kabalgata 19:30etan aterako da Udal Biltegitik eta ohiko ibilbidea egingo du.

**PANTXOA ETA PEIO, JAMEN**
Bestalde, Pantxoak eta Peiok emanaldia egingo dute abenduaren 29an Jam aretoan, 22:30ean. Jardunek antolatutako kontzertua da eta sarrerak salgai daude ohiko tokietan.



E.M.

## Olentzero marrazki lehiaketa

Olentzero marrazki lehiaketako sari banaketa egin zuen Jardunek astelehenean, kultura etxean. Bergarako lehen hezkuntzako ikasleek 530 lan inguru aurkeztu dituzte eta maila bakoitzean hauek dira saritutakoak: zutik, Egoi Garcia (6. maila), Miren Carnicero (3.a) eta Maitane Muruamendiaraz (4.a); makurtuta Xabier Argarate (lehen maila) eta Eneko Martin (2.a). Argazkian Michelle Rajado (5.maila) falta da. Liburu bana eta egindako marrazkiaren koadroa jaso zuten irabazleek.

hamaika
Errege Egunetik aurrera gosariak ere bai.
Gabon zoriontsuak igaro!
Espaloia 10 – 12 • Bergara
Tel.: 943 03 45 85



UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA
Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industriala
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

# SHOTOKAN KARATE-DO

Udal Kirol Zerbitzua Bergara

BERGARAKO SHOTOKAN KARATE-DO
















## Zorionak,
## Bergarako karateka guztiei!

**Laguntzaileak:**

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
Ibargarai, 16 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA

*Moreno taxiak*
**Zerbitzu nazionalak eta nazioartekoak**
608 77 09 46 (Patxi)
608 77 17 73 (Manu)

750 kilo arte merkantzia-karroa

J. R. Arana
GARRAIOAK
Tel.: 943 76 02 74 / 609 90 77 01
18.000 kg arte

**SKATEA** > TALDE BERRIA EGIN GURA DUTE

# "Skate taldea sortu gura dugu, ikastaroak, jaiak eta bestelakoak antolatzeko"

Hogeita bi laguneko taldea dago, oraingoz, taldea sortzeko lanetan

Gaur, egubakoitza, egingo dute batzarra, 20:00etan, Pol-pol tabernan



**ASKATASUNA** Beñaten esanetan, hori dauka ona skateak: "Gauza gutxi behar da: patinetea eta ibiltzeko gogoa". X.U.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Beñat Luaziaristi angiozartarrak esan digu skatean ibili gura duen edonor dagoela batzar horretara gonbidatuta; izan ere, Bergaran sortu gura duten skate elkarteak zabal-zabalik izango ditu ateak: "Egubakoitzean, besteak beste, taldeak ze izen izango duen erabakiko dugu. Bakoitzak proposamen bat aurkeztuko du, eta bozkatu egin beharko dugu". Horrekin batera, elkartea ofizial egiteko tramitetan dabiltza. Hala, elkartea sortzearen arrazoiak azaldu dizkigu Beñatek: "Elkarte moduan hainbat ekimen egin ahal izango ditugu. Gazteendako ikastaroak antolatu gura ditugu, urtean behin skatearen inguruan jaia antolatu... Jendeak ikus dezala antolatutako taldea garela, skatea kirola dela, eta geroago eta gehiago garela patinete gainean gabiltzan gazteak".

**SKATEGUNEAK, MESEDE**

Beñatek onartzen du Bergaran skategunea dutenetik kirol horrek gora egin duela: "Gainera, pozik geratu ginen Kirol teknikariekin izandako tratuarekin, gure iritzia kontuan hartu zuten-eta. Zegoen aurrekontua kontuan hartuta, gauza txukuna egin zuten. Hala, orain patin gainean gabiltzanok badaukagu non elkartu, eta hori gauza handia da". Hala, hurrengo pausoa egitea falta da, elkartea eratzea.

> KIROL ASTEA

## Urtea hasteko hainbat kirol ekintza antolatu dituzte

Urte berria hasi eta berehala, urtarrilaren 2an hasiko dute Bergarako gazteendako antolatu duten Kirol Astea. Hala, arku tiroketa egingo dute egun horretan. Hilaren 3an igerilekuko probak egingo dituzte; hilaren 4an hockeya; eta, hilaren 5ean ping-ponga eta baita mahai-futbola ere. Zeuon ikastetxeetako idazkaritzan izango duzue informazio gehiago, edo baita kultura etxean ere, 943-77 91 60 telefono zenbakian.

> PILOTA

## Muguruza eta Gutierrez Gipuzkoako finalean

Zapatuan jokatuko dute Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek senior mailako Gipuzkoako Txapelketako finala. Seguran jokatuko dituzte finalok, 16:30ean hasita, eta arratsaldeko bigarren norgehiagoka izango da bergararrena.

Horrekin batera, hilaren 27an eta 29an jokatuko dituzte Gabon Sariko finalak. Partidu gehiago egongo badira ere, 19:00ak inguruan izango dira finalak.






ETXALAR

Boni Laskurain 4
Bergara
Tel.: 943 76 05 09

# Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko abenduaren 22a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA /** Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta





AZALA: OXEL ARRIETA / LAIXANEN POSTAL LEHIAKETAKO LAN BAT MOLDATUTA




Urte bat gehiago
zuen etxeak goxatzen!

gelatzu s.l.

*Zubillaga auzoa 1*
*Tel.: 943 71 63 22*
*OÑATI*

EGITARAUA

# JAIETAKO AGENDA

## Erakusketak

**MENDIA ETA NATURA** argazki lehiaketako lanen erakusketa dago kultura etxean, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era, Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta.



GABON BATZEA

## Musika

**OÑATI ABESBATZAK** emanaldia egingo du zapatuan, abenduak 23, Agustindarren elizan, 20:15ean.

**OÑATIKO MUSIKA BANDAK** kontzertua egingo du urtarrilaren 6an, zapatua, Santa Ana antzokian, 12:30ean. Honako piezak joko dituzte: *Cortes de la frontera* (pasodoblea, M. Navarro Mollor), *Rojales* (sinfonia, V. Cartagena eta J. Alfonsearena), *Bella Italia* (Hans Kolditz), *The Beatles in concert* (John Lennon eta Paul McCartney-rena) eta *La Gran Vía* (zarzuela, Chueca eta Valverderena).

## Ongi etorri!

**OLENTZERO** Oñatira iritsiko da, herriko ume guztiak agurtzera eta gozokiak banatzera etxez etxe opariak uztera joan aurretik. Etzi, Gabon eguna, irtengo da Otadui zuhaiztitik 18:00etan. Herri osoan ibiliko da.

**EKIALDEKO ERREGE MAGOAK** herrira etorriko dira etxez etxe opariak banatzera; baina lehenengo, KABALGATA egingo dute Oñatiko kaleetan barrena. Agurtu gura dituzten umeek horretarako aukera dute urtarrilaren 5ean, egubakoitza. Parrokia ondotik abiatuko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar 18:30ean.



JOLASPARKEA

## Hitzaldia

**ASTRONOMIAREN** inguruko berbaldia egingo du Iñigo Arregi astrofisikari oñatiarrak. *Izarren bizitza* du izenburua hitzaldiak. Hilaren 25ean, martitzena, izango da, kultura etxeko zinema aretoan, 19:00etan.

## Umeendako

**'BETIZU ETA XANGADUKO MISTERIOA'** delako EUSKARAZKO FILMA emango dute. Hainbat emanaldi egongo dira: urtarrilaren 2an, 5ean eta 6an. Hirurak kultur etxean izango dira, 17:00etan.

**UR JOKOAK ETA JOLASAK** egiteko aukera izango da ur GABONETAKO UR JOLASPARKEAN urtarrilaren 2an eta 3an, martitzena eta eguaztena. Zubikoako igerilekuan izango da, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitartean.

**GABONETAKO JOLASPARKEA** ipiniko dute urtarrilaren 3an eta 4an, eguaztena eta eguena, Zubikoa kiroldegian, honako ordutegian: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

miren barrena
arropa denda
neurri bereziak

Zorionak eta
urte berri on!






Kalezaharra, 12 B
20560 Oñati
628 526 265

## EGITARAUA

# Eliza

**HERRIKO PARROKIAN** meza esango dute etzi, GABON EGUNA, 19:00etan.
**ARANTZAZUKO SANTUTEGIAN** Gabonetako meza egingo dute GABON EGUNEAN, hilak 24, 19:30ean. Gauerdian egiten zen meza ordu horretara aurreratu dute.
Bestetik, EGUBERRI EGUNEAN, hilak 25, domeketako moduko ordutegian emango dute meza: 09:10ean, 12:00etan meza nagusia, 13:30ean eta 17:30ean.
**BIDAURRETAKO MONASTERIOAN** 20:00etan izango da meza entzuteko aukera etzi, GABON EGUNA. 07:30ean ere emango dute, egun berean. Bestetik, EGUBERRI EGUNEAN, 10:00etan eta 12:30ean izango dira mezak.
**AGUSTINDARREN ELIZAN** domeketako ordutegian izango dira mezak GABON ETA EGUBERRI EGUNETAN: 08:00etan 12:30ean eta 19:30ean.
**BIDEZKO MERKATARITZAKO DENDA** ipini du parrokiako misio taldeak Kale Barriko Don Pedrueneko behealdean.
Honako egunetan egongo da zabalik: ASTE BUKAERETAN, egubakoitz arratsaldean, zapatu osoan eta domeka goizean. URTARRILAREN 4AN ETA 5EAN, ARRATSALDEZ ere zabalduko dute.

# Kirola

**XII. XAKE AZKAR TXAPELKETA** jokatuko dute abenduaren 30ean, zapatua, gaztelekuan, 09:00etan. Izenematea zabalik dago gaztelekuan bertan, 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 20:00etara arte.
**AINHOA LAZKANOREN OMENEZKO** saskibaloi partidua jokatuko dute abenduaren 30ean, zapatua, kiroldegian, 16:00etan.
**'2006 IXA 2007 SAN SILBESTRE'** herri LASTERKETA jokatuko dute abenduaren 31n, domeka. Herriko plazatik abiatuko dira lasterkariak 17:00etan.



BIDE ERTZEAN

# Ikastetxeak

**ERREKALDE HERRI ESKOLAKO** ikasleek OLENTZEROren bisita jasoko dute gaur, hilak 22, 09:00etan. Gelaz gela opariak banatuko ditu. 10:30ean, ikasleak eta irakasleak GABON KANTA KALEJIRAN joango dira Herriko plazara.
Azkenik, hainbat ikuskizunen EMANALDIA egingo dute Rodrigo Mercado Zuazola INSTITUTUKO areto nagusian, 11:00etan. Senide eta lagunei zuzenduta dago, eta gura duten beste herritar guztiak gonbidatuta daude. Ikasleek eurek prestatu dute emanaldia, eta eurak dira antzezleak.
Bukaeran, urtero bezala, TXORIZO PINTXOAK banatuko dituzte.
Kamisetak erakutsi eta salgai jarriko dituzte ere gaur, egubakoitza, jaialdian.
**TXANTXIKU IKASTOLAK** OLENTZEROREN bisita jasoko du gaur, egubakoitza, goiz partean. Segidan, Olentzerorekin KALEJIRA eta AZOKA egingo dituzte.
Bestetik, GABON EGUNEAN, etzi, domeka, GABON KANTAK abestera irtengo dira ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak herri osoan.

**ELKAR HEZIKO SANTA ESKOLASTIKA** ikastetxekoek, hau da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek, OLENTZERORI ongietorria egingo diote gaur, egubakoitza, ikastetxean. Gozokiak banatuko dizkie Olentzerok, eta Gabon kantak kantatuko dituzte batera.

# Ikuskizuna

**'ALAMI'** delako IPUIN MUSIKALA antzeztuko dute Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Orkestra taldeek eta antzerki taldeak. Xabi Ormazabalek egingo du kontakizuna, eta Aitor Biainek zuzenduko ditu taldeok. Abenduaren 29an izango da, Zubikoa kiroldegian, 19:30ean. Sarrerak 8 eurotan daude salgai kultura etxean.

# Bertso saioa

**BERTSO JAIALDIA** egongo da urtarrilaren 5ean, egubakoitza, kiroldegian, 22:30ean. Honako bertsolariek parte hartuko dute: Andoni Egañak, Sebastian Lizasok, Unai Iturriagak, Jesus Mari Irazuk, Aitor Mendiluzek eta Maialen Lujanbiok.

# Ondarea

**SAN MARTIN ERROTA** bisitatzeko aukera dago abenduaren 26tik urtarrilaren 5era arte, 12:30ean eta 17:30ean; aste bukaeretan, bakarrik 12:30ean. Bisitatzen duten guztien artean OTZARA BATZUK zozketatuko dituzte urtarrilaren 5ean.

# Gazteak

**KONTSUMISMOAREN AURKAKO ALDARRIKAPENA** egingo du Gazte Batzarrak, *Hator, hator, gazte, Portura, aurtengo Gabonak (ez) ospatzera* leloarekin. Honako ekintzak antolatu dituzte: etzi, Gabon eguna, S.A. taldearen *Feliz Falsedad* abesti emanaldia, 18:00etan; segidan, 'EL DÍA DE LA BESTIA' filma ikusiko dute; 20:00etan, 'GABONETAKO KONTSUMISMOA ETA ZORIONTASUN FALTSUA' delako eztabaida, eta 21:00etan, AFARI antikontsumista egingo dute, euro baten truke.
**BIDE ERTZEAN** taldeak kontzertua egingo du abenduaren 30ean, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. 5 euro da.



HERRIKO IKASLEEN MUSIKA EMANALDIA

Guztiz Gedeer

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

GABONETAKO ESKAINTZAK
AURPEGIAN:
o Azala estimulatzeko ultrasoinuak
GORPUTZEKO ESTALKIAK:
o Limoa: indarra hartzeko
o Algak: bolumenarentzat eta zelulitisarentzat
o Spirulina: tinkatzailea
o Peelinga: azala gorputz osoan berritzeko
BEREZIAK:
Enplastua bizkarra erlaxatzeko.
DELICATESSEN:
o Anima Di Vulcano (harri bolkanikoarekin prestatutako aurpegi tratamendua)
o Harri bolkanikoekin egindako masajeak
GAINERA:
Laserra
Tatoo: ezpainetan, begietan, gorputzean…
Ikastaroak: - Urtarrilaren 20an: irriaren terapia
- Otsailean: eskua irakurtzen ikasteko ikastaroa

kalebarria 26 behea. 20.560 OÑATI
(Orbea etxea, parke aldetik) Tel.: 943 78 01 46
www.goiena.net/blogak/guztizeder

LIZARRALDE
KIROLAK
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETAK



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

GABON KANTUAK

# Gabon eguneko ohitura, kalez kale kantuak abestea

## Herriko hainbat abesbatza eta ikastetxek egiten dute Gabon batzea, eta aurten ere irtengo dira, etzi, domeka

MIREIA BIKUÑA

**Gabonetako festetan ohitura eta erritual asko daude. Horietako bat da Gabon egunean, arratsaldean, Olentzero kantatzera irtetea; kalez kale Gabon kantuak abestea, alegia.**

Euskal Herriko herri askotan, Gabon egunean, kalez kale kantuak abesteko ohitura dago. Oñatin ere ohitura horrek bere zaleak ditu. Hain zuzen, Oñatiko hainbat taldek Gabon doinuak abesten dituzte; baina Gabon egunean, arratsaldean. Oñati Abesbatzak, Txantxiku Ikastolako irakasle, ikasle eta gurasoek eta Pake Leku elkarteko abesbatzak eusten diote ohiturari.

Txantxiku Ikastolako kideak abenduaren 24an irtengo dira kalera. 12etan aterako dira ikastolako jolaslekutik eta amaiera ekitaldia plazan egingo dute, 13:30ean.


Erretiratuen abesbatza Arantzazun. ARTXIBOA

**Oñatiko hainbat taldek Gabon kantuak aterako dituzte kalera, abenduaren 24an**

**'Gau ixila', 'Horra, Mari Domingi', 'Gaueko izar' eta beste kanta ezagun batzuk abestuko dituzte**

Abenduaren 24an, arratsaldeko 8ak aldera aterako da kantura Oñati Abesbatza. *Gau ixila, Horra Mari Domingi, Gaueko izar* eta beste Gabon kanta batzuk dira egun horretan abestuko direnak.

### MUSIKA GEHIAGO

Bestalde, abenduaren 17an, Oñatiko Musika Bandak, Oñatiko Txistulari Taldeak, Oñati Abesbatzak, parrokiko koruak, Ganbara Abesbatzak, Ganbara Txiki Abesbatzak eta Txantxiku Ikastolako Abesbatzak Gabonetako kontzertu berezia egin zuten. Eta Oñati Abesbatzak beste emanaldi bat egingo du, bakarka, abenduaren 23an. Hain zuzen ere, Agustindarren elizan izango da, 20:15ean.

Azkenik, aipatu beharra dago Gabon doinuez gain bestelako musika ere izango dela. Bide Ertzean talde tolosarrak aurtengo udan grabatu duen *Non dira* diskoa aurkeztuko du abenduaren 30ean gaztelekuan.

Gabonetan oparia egiteko hamaika aukera!






ZURE OPTIKA
ITZIAR UGARTE
*Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak*
Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87 Eskola Politeknikoaren ondoan

# KALITATEZKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK GERTU-GERTUAN




## ELEKTRIZITATEA, KRISTALDEGIAK ETA ITURGINAK

**ARGISOUND**, Arantzazuko Ama 9
**EGAÑA**, Zubibarri 2
**TXINTXURRETA**, Kale Barria 5
**LETE**, Kale Zaharra 38
**FELIX ARREGI**, Kale Barria 53
**RTV BELAR**, Olakua 1C
**ZELAIA**, Patrue kalea 5-10
**ELKORO** Kristaldegia, Kazarraga 1
**GELATZU**, Zubillaga 1

## OPTIKAK ETA ARGAZKIAK

**ITZIAR** Optika, Kale Barria 32
**ARKAUZ** Optika, Lazarraga 2
**PLAZAOLA** Optika, Kale Barria 29
**ION ARZUAGA** Argazkiak, Kale Barria 28
**PLAZAOLA** Argazkiak, Kale Barria 2

## BITXITEGIAK ETA OPARI DENDAK

**ILLARRAMENDI** Bitxitegia, Kale Zaharra 4
**SUA**, Kale Zaharra 7

## ESTANKOAK, PAPERDENDAK ETA INFORMATIKA

**ALTUNA**, Kale Barria 19
**IRIZAR**, Foruen enparantza 6
**URZELAI**, Kale Zaharra 4
**HIRUKAR**, San Lorentzo 1
**O.R.I.** Informatika, Atzeko kalea 1
**URZAI**, Portu kalea 4

## JANARI DENDAK

**SUSTRAI** Kale Barria 1
**ANTONIO FERNANDEZ** Arraindegia, San Lorentzo 5
**ANTXON** Harategia, San Lorentzo 5
**BIXAIN** Harategia, Arantzazuko Ama 4
**GARAI** Harategia, Maiatzaren 1a plaza 2
**JESUS ODRIOZOLA** Harategia, Arantzazuko Ama 2
**TARSICIO** Harategia, Portu kalea 2
**EGAÑA** Okindegia, Kale Barria 35
**GOIZTIRI DIETETIKA**, Ramon Irizar 2
**SAN MIGUEL KOOP.**, Kale Barria 8
**KAMANUÑO**, Zubibarri 2

## MERTZERIAK ETA LENTZERIAK

**ANE**, Kale Barria 54
**ARANTZA**, San Lorentzo 5
**BEGOÑA**, Atzeko kalea 4
**KUTTUN**, Bidebarrieta 19
**URTAZA**, Kale Barria 14
**URZELAI**, Kale Barria 26
**XARMANTA**, Kale Zaharra 18

## ZERBITZUAK ETA BESTE

**ALTUBE** Zerbitzuak, Portu kalea 5
**ARABA BIDAIAK**, Lazarraga 3
**URISU**, Foruen enparantza 6
**OÑATI GARAJEA**, Goribar auzoa 9

## OINETAKOAK ETA POLTSAK

**OLALDE**, Kale Barria 38
**PATXI**, San Lorentzo 9B
**KONTXI**, Foruen enparantza 11
**VIKY**, Kale Barria 30

# OÑATI, ZURE ZENTRO KOMERTZIALA

## BURDINDEGIA, LOREAK ETA PENTSUAK

**ELORZA**, Kale Barria 17
**JUANITOSA**, Kale Barria 24
**KIMU** loradenda, Kale Barria 17
**URTXIN** loradenda, Portu kalea 5
**BELLOTZA-UGARTE PENTSUAK**, Bidebarrieta 19

## DEKORAZIOA, ALTZARIAK ETA ETXEKO EHUNGINTZA

**BARUE**, Santa Marina plaza 4
**HEGOIA**, Ramon Irizar 2
**ARANBURU**, Kale Zaharra 21
**PAKITA**, Santa Marina plaza 6
**MAIBI**, Mendiko kalea 2
**LANTZEN**, Kale Barria 57

## TATOO & PIERCING

**ZORBA'S**, Motxon kalea 1

## JANTZIAK

**MB**, Kale Zaharra 12
**CHIC**, Kale Barria 54
**LETAMENDI**, Foruen enparantza 8
**MARKU,** Kale Barria 6
**N.I.**, Ramon Irizar 2
**URRUTIA** Gizonak, Kale Barria 54
**ELORZA AHIZPAK**, Euskadi etorbidea 5
**IGARZABAL** Ume jantziak, Moiua 10

## LURRINDEGIAK, DROGERIAK, MARGOAK

**JASONE**, San Lorentzo 10
**LAKET**, Lazarraga 3
**ARANBURU**, Kale Barria 47
**PICO** Errotulo eta Margoak, Berezao 8

## KIROLDENDAK

**ALZU S.L.**, Arantzazuko Ama 2
**LIZARRALDE** Kirolak, Olakua 16
**MENDIZABAL** Kirolak, Kale Barria 39
**OSI** Mendi-Kirolak, Mendiko Kalea 10

## OSASUNA ETA EDERGINTZA

**AMAIA DIAZ DE MONASTIOGUREN**, Kale Zaharra 5
**Mª CARMEN**, San Lorentzo 4
**LAMIAK**, Euskadi etorbidea 15
**NIKOLAS ETA IGONE**, Kale Zaharra 2
**Mª JOSE JAUREGIALTZO**, Motxon 5
**D'OR ESTETIKA**, Errementari 5

## OSTALARITZA, KAFE DENDAK ETA GOZOTEGIAK

**ARKUPE**, Foruen enparantza 9
**HARRIPE**, Kale Zaharra 34
**OSTATUA-HOSPEDERIA ARANTZAZU**, Arantzazu auzoa z/g
**KOROSTI** Kafeak, Bidebarrieta 13
**GORROTXATEGI**, Kale Zaharra 24
**KIKU** Gozoki denda, Kele Barria 7
**MIZKE** Gozoki denda, Kele Zaharra 3

## TXANDAREN UDAZKENEKO ZOZKETA

**Sari nagusia: 1.200 euro erosketa-txarteletan**
Zenbaki saritua: **40.922**
Azken lau zenbakiak berdinak edukiz gero:
**150 euro** erosketa-txarteletan (9 sari)
**Aurkeztu zure txartela urtarrilaren 3a baino lehen!**

**Txantxiku Dendarixen Alkartian partez,**

*Zorionak eta urte berri on!!*

APAINGARRIAK

# Gabonetan kaleak argiekin apainduta izango ditugu

## Urtarrilaren 8ra arte egongo dira argiak piztuta

ARANTZAZU EZKIBEL

**Gabonetan ohikoak diren zuhaitza eta argiak jarri dituzte Oñatiko kaleetan gabon jai hauetarako. Gainera, dendariek ere erakusleiho txukunak jarri dituzte**

Iritsi dira Gabonak, eta horiekin batera Gabonak direla iragartzen duten argi, apaingarri, zuhaitz eta beste. Oñatin ez gara gutxiago, eta, hiri handietan egiten duten moduan, gurean ere kaleak argiz beteko ditugu egun hauetan. Gabon gaiak dituzten argiak izango dira.

**MAYKOLUX ENPRESAK JARRIKO DITU KALEKO ARGIAK**

Aspaldian dago ohitura plazan zuhaitza jartzeko, baina azken urteetan, plazako zuhaitzaz gain kaleak ere argiz berotzeko ohitura hartu dugu.

Hala, aurten, Astigarragako Maykolux enpresak izango du Oñatiko kaleak argiztatzeko ardura.

**Astigarragako Maykolux enpresak jarri ditu kaleetako argiak**

**25.200 euroko kostua izan du herria Gabonetarako apaintzeak**

Esan behar da Maykolux enpresa dela azken urteetan gure herrian lan hori egiten aritu den enpresa.

Gabonetako argiteria abenduaren 9an piztu zuten, eta urtarrilaren 8ra arte egongo da hala.

Azken urteotan, argiteriaren kontuak eztabaida piztu izan du herrian: batzuek egoki ikusten zuten Gabonetan apaingarri horiek jartzea; beste batzuen iritziz, ordea, argi larregi jartzen zen, eta horretan inbertituako dirua beste zerbaitetarako jartzea hobe zen, kontuan hartuta, gainera, jendeak argiak ostu edo apurtu egiten zituela askotan. Kontuak kontu, aurten ere ipini egin dituzte argiak.

**APAINGARRI MOTAK**

Hainbat argi arku jarri dituzte herriko kaleetan: hala, herrirako sarrera



Udaletxea argiz apainduta; ondoan, zuhaitza. A.E.

M a d i n a
A g i r r e
a b o k a t u a k
Amaia Madina Agirre
Abokatua
Goretti Madina Agirre
Abokatua-Ekonomista
Motxon kalea 3, behea
Tel.: 943 78 14 27 • 943 78 14 57
Faxa: 943 78 02 45
20530 Oñati
madinaagob@ius-lan.euskalnet.net

itziar optika

Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

biak apaindu dituzte. Alde baten, Olabarta auzoan, argi arku bat jarri dute eta beste aldean, hau da Zubillagan, beste argi arku batek egingo digu ongietorria.

Kale nagusiak apaindu dituzte: Kale Barria, Kale Zaharra eta Atzeko Kalea. Kale bakoitzean, argiek askotariko irudi eta koloreak hartzen dituzte.

Bestalde, Euskadi etorbidean bi arku jarri dituzte eta Foruen plazatik San Juan kalerako sarreran eta Kale Zaharrerako sarreran ere bi arku jarri dituzte. Eta, nola ez, udaletxeko fatxadan ere jarri dituzte argiak. Azken urteetan jarri izan dituzten argien antzekoak dira; jendeari gehien gustatzen zaizkionak argi apaingarriak dira, udaletxeko fatxadan jartzen direnak. Herriko plazak giro berezia izango du egun hauetan.

Postetxearen parean eta Olakua auzunean ere beste bi arku jarri dituzte, zein sasoitan gauden argi izateko.



Kale Zaharreko argi arkua. A.E.



Kale Barria, argiztatuta. A.E.

### 25.200 EURO KOSTUA

Argiteria jartzeko Udalak deitu zuen lehiaketara aurkeztu zen enpresa bakarra izan zen Astigarragakoa.

Hala, Maykolux enpresak egindako eskaintza onartzea erabaki zuen Udaleko Gobernu batzarrak. Lanek 25.200 euroko kostua izango dute; lan horiek egitearren Udalak zehaztutako gehienezko prezioa baino 700 euro gutxiago.

Hala ere, diru kopuru hori handitu egin daiteke. Argien mantentzeari dagokionez, enpresak ezarritako zenbait baldintzaren arabera, mantentzea aparte fakturatuko da. Bada, elementu naturalen eraginez apurtu edo erretzen diren argiak izan ezik, nahita apurtutako argi eta instalazioen mantentzea eta ordainketa aparte egingo da. Aurreko urteetan ere baldintza bera jarri du Maykolux enpresak, eta Udalak onartu egin izan ditu baldintza horiek. Horrela, jendeak gurata apurtutako argien mantenuaren auzia konpondu dute.

Udal arduradunek esan digutenez, Udalak beste eskaera bat egin dio Maykolux-i: zerbitzua amaitu ondoren kable elektriko guztiak kendu beharko ditu enpresak. Hau da, herriko kaletako etxeetako fatxadetan ez da ezer zintzilik edo era desegokian geratu beharko urtarrilaren 8tik aurrera. Izan ere, hori da apaingarriak kentzeko enpresak duen eguna. Hala, kaleak txukun geratzea ziurtatu gura da.

### ZUHAITZA, URTEROKOA

Apaingarriak eta argiak azken urteetako nobedadeak izan arren, herriko plazan jartzen den zuhaitza aski ezaguna da herritarren artean. Aurten ere, tamaina handiko zuhaitz ederra jarri dute. Edozelan ere, zuhaitza apaintzeko lana aparte esleitu du Udalak. Herriko elektrizitate enpresei proposamen ekonomikoa aurkezteko aukera eman zien Udalak, baina epe barruan ez zen eskaintzarik jaso. Hori dela eta, lana modu zuzenean eman zaio herriko enpresa bati.

Betiko moduan, zuhaitzak koloretako argiak ditu apaingarri gisa. Hiru kolore dira nagusiak: gorria, berdea eta zuria. Zuhaitzak ez du bestelako apaingarrik. Inork minik ez hartzeko, zuhaitzari hesi bat jarri diote inguruan. Modu horretan, inork ezingo ditu argiak edo kable elektrikoak ukitu.

Jaiotzei dagokienez, Oñatiko Udalak ez du jartzen. Hala ere, ikastetxe bakoitzak bere jaiotza edo Olentzeroa du. Olakua auzoko bizilagunek ere jaiotza jartzen dute ahateen putzuan.

## Erakusleihoetan ere Gabon giroa nagusi

**Oñatiko dendari eta tabernariek ere Gabon egun hauetarako txukun jarri dituzte erakusleihoak. Hala, Olentzero ugari ikusi ahal ditugu herriko dendetan, erakusleihoetatik guri adi begira. Opari ugari dute inguruan, baina ez dakigu norentzat izango diren; agian, ona izan denak jasoko du bere saritxoa. Oñatin ez da erakusleiho politen lehiaketarik egiten, baina horrek ez du esan nahi ez dituztela dendak apaintzen. Atera kalera eta gozatu erakusleihoetan dugun askotariko proposamenekin.**



Erakusleihoa, txukun apainduta. A.E.



MUSIKA

# Olentzero, Erregeak eta beste lagun magiko batzuk datoz

**Olentzerok abenduaren 24an egingo die bisita oñatiarrei eta Errege Magoek, aldiz, urtarrilaren 5ean, besteak beste**

MIREIA BIKUÑA

**Urtero legez, zakuak gozokiz eta opariz beteta dituztela etorriko dira Oñatira Olentzero eta Errege Magoak. Gabon jaietan umeek duten hitzordu garrantzitsuenak dira.**


Ganbarakoek *Alami* ipuin musikala egingo dute; iaz, *Horra Mari!* antzeztu zuten. ARTXIBOA

Bizarzurik jaso ditu dagoeneko Oñatiko neska- mutikoek idatzitako gutunak. Domekan, hilaren 17an, egin zuen bisita Olentzeroren postariak. Gaztelekuan zain zeuden ume guztien gutunak hartu zituen. Hala, bertaratutako umeei zin egin zien gutun guztiak Olentzerori emango zizkiela. Hala, egun hauek urduritasunez betetakoak izango dira, Bizarzurik gutunak jaso eta ikazkina etorri orduko astebete igaroko da-eta. Olentzerok erronda abenduaren 24an egingo du. Otadui zuhaiztitik abiatuko da, arratsaldeko 6etan. Ikazkina herriko kaleetan zehar ibiliko da umeei gozokiak banatzen. Amaiera ekitaldia, berriz, Foru plazan egingo du. Han, bertaratzen diren umeekin berba egingo du, opariak banatzen hasi aurretik.

**'Alami' ipuin musikala antzeztuko dute Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzek abenduaren 29an**

### ERREGE MAGOAK

Olentzerok urteroko bisita egin ondoren, aldiz, Errege Magoak dira berriro txikienen ilusioa piztuko dutenak. Urtarrilaren 5ean etorriko dira Oñatira. Meltxor, Gaspar eta Baltasar magoak kalez kale ibiliko dira egun horretan. Errege Magoen kabalgata parrokia ondorik abiatuko da, 18:30ean.

Ekialdetik egindako bidaia luzean kide izan diren lagunekin, harrera egingo diete Oñatiko umeei. Udaletxeko balkoitik hitz batzuk esan ondoren, banaka hitz egingo dute Udaleko osoko bilkura aretora hurbiltzen direnekin. Hala, bada, azken aukera dute txikienek euren eskaerak egiteko. Eta umeak lo daudela egingo dute opari banaketa Errege Magoek, euren herrialdera bueltatu aurretik.

### BESTE AUKERA BATZUK

Hala ere, Olentzerok lehen opariak banatu eta Errege Magoek Oñatira bisita egiten duten bitartean, gazteenek badute zer egin eta zertaz gozatu, beste aukera batzuk dituzte-eta. Bada, horietako baten Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzak izango dira protagonistak. Hain zuzen ere, bi abesbatza horiek *Alami* ipuin musikala eskainiko dute, abenduaren 29an.



Iaz *Horra Mari* ikuskizunarekin lortutako arrakasta ikusita, aurten ere beste ipuin musikal bat prestatu dute bi abesbatzok Aitor Biainen zuzendaritzapean.

Josu Elberdinen *Alami* du izena Gabonetan antzeztuko duten lanak, eta, hain zuzen ere, Alami izeneko hosto baten istorioa kontatzen du.

Basoko hosto txiki bat da Alami; aurkariz eta oztopoz betetako inguruan bizi den hostoa. Inguru horretan aurrera irteteko egin beharko duen ahalegina azaltzen du ipuinak, eta ametsak egia bihur daitezkeela erakutsi.

Iazko ipuin musikalarekin alderatuta, aurtengo lanak aldaketa nabarmenak ditu. Iazko ikuskizunak baino muntaia handiagoa eskatzen du; erronka handia da Ganbara Txiki abesbatzarendako. Hala, aurten emanaldia kiroldegian egingo dute. Eta horregatik guztiagatik, *Alami* ipuin musikala ikusteko sarrera zertxobait garestiagoa da; izan ere, zortzi euro ordaindu beharko da.

Ipuin musikala antzeztu baino lehen, baina, Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzek kantaldiak egingo dituzte: hitzordua kiroldegian da, abenduaren 29an, arratsaldeko 7etan.

Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzekin batera, Ganbara orkestra eta antzerki taldeak ere parte hartuko dute. Bestalde, Xabier Ormazabalek egingo ditu narratzaile lanak.



Olentzeroren kalejirako une bat. ARTXIBOA

#### HAUR PARKEA ETA ZINEMA

Jolaserako aukera ere izango dute gazteek Gabonetako oporretan. Hala, urtarrilaren 2an eta 3an, igerilekuan, ur jokoak egongo dira.

Urtarrilaren 3an eta 4an, haur parkea jarriko dute kiroldegian. Puzgarriak, ludoteka, trena eta beste egongo dira. Parkerako sarrera lau euro ordaindu behar da; egun erdiko sarrerak, berriz, 2,5 euro balio du.

Eta, azkenik, umeendako euskarazko film bat iragarri dute urtarrilaren 2rako, 5erako eta 6rako: *Betizu eta Xangaduko misterioa*. Filmaren emanaldia arratsaldeko 5etan hasiko da kultura etxean.

## Errege Magoei ongietorria emango diete umeek udaletxeko osoko bilkura aretoan

## Olentzero eta Errege Magoei gutunak Internet bidez idazteko aukera eskaini du KZguneak

## Gutunak Internet bidez idazteko bidea

**Zuzenean gutunak Bizarzuriri edo Errege Magoei eman ordez, Oñatiko KZguneak beste bide bat jarri du umeen eta haien gurasoen eskura: Olentzero eta Errege Magoei gutunak Internet bidez bidaltzeko aukera. KZguneko webgunean sartuta, zuzenean ikazkinarendako edo Erregeendako eskutitza idazteko bide zuzena dago.**

**Lehiaketa modura antolatu du KZguneak. Eta herrietako KZguneen bidez eskutitzak idazten dituztenen artean, zozketak egingo dira. Irabazleek Eroskin *on-line* bidez erosketak egiteko txartelak jasoko dituzte opari. Gainera, parte hartzen dutenek opariak jasoko dituzte. Erabiltzaileengandik erantzun nahiko polita izan du KZguneak deitutako lehiaketa berezi horrek.**

MEKANIZATUETARAKO
ZERBITZU OSOA

MEKALKI
S. Coop.

*Urte berri on !!*

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
http://www.mekalki.es
OÑATI

GABONETAKO POSTALAK

# Olentzero mendian, pipa ahoan, eta baita hondartzan ere

## Oñatiko artista txikiek euren sormena erakutsi dute aurtengo Laixanen Gabonetako postal lehiaketan

JON BEREZIBAR

**Gutxi gorabehera aurten ere 750 bat haurrek hartu dute parte Laixanen lehiaketan. Sei izan dira postal aukeratuak; bazkideei bidaliko dizkietenak.**

Hamaika modutara irudikatu dute Oñatiko neska-mutikoek Euskal Herriko ikazkin ezagunena; izan ere, astoarekin, mendian, pipa ahoan, parrokiako kanpandorre gainean edo hondartzan etzanda eguzkia hartzen, Gabonetako zorion-postaletan aurten ere irudimen beste ilusio izan dute herriko haurrek. Oso lan originalak jaso dira aurten ere eta fin ibili dira ikasleak. Hain zuzen, sei irabazle aukeratu dituzte, baina sormenean aurten ere guztiak izan dira txapeldun. Urtero moduan, oso partehartze polita izan du postal lehiaketak. Laixaneko bazkideak, beraz, zorion opa koloretsu eta originalak izango dituzte Oñatiko haurren esku abileta-tik.

### HAURRAK MARGOLARI

7 eta 13 urtera arteko 750 artista txikik hartu dute parte Laixan elkarteko Gabonetako postal lehiaketan. Hau da, Haur Hezkuntzako bigarren mailatik Bigarren Hezkuntzako hirugarreneraino. Oñatiko eskola guztietako haurrek bidali dituzte lanak Laixanera eta zutabe honen eskumatara daude sei irabazleak eta parte hartutako beste neska-mutiko batzuen lanak.

### BAZKIDEEI ZORIONAK

Dagoeneko hasi dira Laixanekoak aurtengo postalak bidaltzen, eta artista txikien lanekin batera bertsoa ere bidaliko zaie bazkideei jai zoriontsuak opatzen. Aukeratutako sei saridunei dagokienez, joan den domekan etorri zen Bizarzuri Oñatira eta orduan eman zien neska-mutiko irabazleei saria: 30 euro materialetan.



Txantxiku ikastolako 13 urteko Nerea Bikuñaren postal hori izan da sarituetako bat.

**Ikastetxe guztietako 750 bat umek hartu dute parte Gabonetako postal lehiaketan**

**Postal koloretsuak, umoretsuak eta sormenez josiak izan dira aurtengoak ere**

ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:
Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:
Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA
Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA
Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...
Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts: 620 77 66 20



MIREIA ELVIRA / ELKAR-HEZI / 7 URTE




AINHOA TATIEGI / TXANTXIKU IKASTOLA / 11 URTE




IZARO GURIDI / ERREKALDE




JON ARKAUZ / ERREKALDE




ANE MONDRAGON / ELKAR-HEZI / 10 URTE




JOSUNE ODRIOZOLA / ELKAR-HEZI / 10 URTE




MAIALEN AGIRRE / ELKAR-HEZI / 13 URTE



OIHANA URTZELAI/ ELKAR.




MARKEL MADINA / ZUAZOLA-LARRAÑAGA INS. / 13 URTE

BITAONI S.L.

**Zorionak eta urte berri on!**

**Mekanizatua**
•
**C.N.**
•
**CAD-CAM**

Zubillaga industrialdea 20
Tel.: **943 71 60 44** • Faxa: **943 78 29 39** • Mobila: **639 659 446**
**bitaoni@telefonica.net**

**Urtaza**

Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia





Gabon zoriontsuak!

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89

ERREGE-ERROSKOA

# Errege Eguneko gozoa, aldez aurretik erreserbatu behar

## Oso arrakastatsua izaten da Oñatin ere errege-erroskoa, eta beteta doanak du arrakasta handiena

JON BEREZIBAR

**Iaz herriko gozotegi askotan ilara luzeak egon ziren erroskoa erosteko. Goxo preziatua da benetan Erregetakoa, eta, horregatik, erreserbatzea gomendatzen dute gozotegietan.**

Gabon garaia gozo garaia ere bada, eta urteko sasoi lanpetuenetakoa da gozotegientzat azarotik urtarrilera artekoa. Pastelak, gozoak, bonboiak eta, zelan ez, turroiak erruz irteten dabiltza egunotan Oñatiko gozotegietako labeetatik, eta Errege Egun osterako odoleko azukre kopurua behar baino altuago izango dute askok. Errege Egunean, baina, azken gozo bati egin behar zaio lekua sabelean: erroskoari.

Gozo preziatua da Erregetakoa, eta, hori dela eta, urtero jende piloa batzen da Oñatiko gozotegietan. Herritar ilara luzeak ikusi ahal izan ziren iaz ere Egaña, Irizar eta Eskolatxo gozotegietan eta, horrelakorik ez gertatzeko, aldez aurretik erreserbatzea gomendatzen dute gozogileek.

### BETEAK NAHIAGO

Errosko tradizionala betegarririk ez duena bada ere, gaur egun gehien saltzen direnak errosko beteak dira: esnegainarekin edo baita trufazkoak ere. Haietan ere ez da falta oparitxoa.

Bestelako Gabonetako postreak egiten dira Oñatin, turroiak, adibidez; baina, gozogileen esanetan, turroiak supermerkatuan erosten ditu jendeak; erroskoa, hori bai, gozotegian edo okindegian.

**Herritar ilara luzeak pilatzen dira urtero herriko gozotegietan eta okindegietan**


Inaxio, Eskolatxoko okina, labetik atera berri duen erroskoarekin. LEIRE KORTABARRIA

BATUAK S.A.

- MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
- TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
- ARTEZTEKO MAKINAK

Urte berri on!

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
www.batuak.com
OÑATI

Zorionak eta urte berri on!



Peugeot 207

Oñati GARAJEA
Goribar auzoa 9 OÑATI
Tel.: 943 78 13 50
Faxa: 943 78 33 69
e-posta:
garageonati@euskalnet.net


Leihoari leihatila,
ateari maratila
Ehune
Apainketa
Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE




# 2007rako
# Zure ametsak egia bihur daitezela!
# Gabon zoriontsuak!

**SPINNINGA:**
Espainiako Spinning Federazioan afiliatuta dagoen probintziako lehen zentroa
Nazioarteko spinning irakasle ofizialak:
**Luis Muñoz • Eneko Beistegi • Gema Otaño**

**AEROBIKA:**
**Gema Otaño**: gorputz-hezkuntzako irakaslea, kirol jardueretan espezializatutako teknikaria, FEDA eta FISAFeko monitorea
**Maria Isabel Otaño**: Sportes et Fitnessko Nazioarteko Federazioko irakaslea. FEDAko monitorea (Aerobikeko Federazioa)
**Oihane Gurrutxaga**: FEDAko monitorea (Aerobikeko Federazioa)

**PILATESA:**
**Maria Isabel Otaño**: AEMA eta FEDAko diplomaduna
**Oihane Gurrutxaga**: FEDAko diplomaduna

**KARATE:**
**Luis Muñoz**: oinarrizko kirolaren teknikaria, 3. Dan gerriko beltza, kata eta kumiteko epaile erregionala, Gipuzkoako Karate Federazioko zuzendaritzako partaidea

**SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA:**
**Luis Muñoz**: oinarrizko kirolaren teknikaria

**TAI CHI:**
Irakaslea: **Salvador Gonzalez**. Formazioa: Goyo Riu 23 urte praktikatzen. TAI CHI-CHUANeko irakaskuntza eta praktiken 12 urte.

**DEFENTSA PERTSONALA:**
Irakasleak: **Patxi Escribano** eta **Zigor**.

**KIROL ENTRENATZAILEA ETA NAZIONALA:**
**Maria Isabel Hurtado**: Santiagoko unibertsitatean eta Espainiako Kirol Elkarteko Errege Federazioan tituluduna.

**PROGRAMA BEREZIAK**
Erresistentziarako entrenamenduak
Indarrerako entrenamendua
Denboraldi kanpoko kirolendako entrenamendua
Kirol berezituendako entrenamendu bereziak
Lesio errekuperaziorako programa bereziak
Bizkarreko muskuluendako indartze programak
Hezurren berkaltzifikaziorako programak
Osteoporosia duten pertsonendako programa bereziak
Talde lanerako zirkuituak
Prestatzen gabiltza: umeendako dantza klasikoa, helduendako euskal dantzak…

*Gogoratu: zerbait behar baduzu, Giartzun aurkituko duzu; eta ez baldin badaukagu, ez da existituko, eta hala ere, saiatuko gara.*



**AEROBIK-STEPA**
**SASOIAN EGOTEKOA**
**SPINNINGA (zentro ofiziala)**
**KARATEKO HAUR ESKOLA**
**HELDUENDAKO KARATEA**
**TAI-CHIA**
**PILATESA**
**ERDITZE OSTEKO GIMNASIA**
**EASY-LINE ZIRKUITUA**
**GALILEOA**
**FITNESSA**
**DEFENTSA PERTSONALA**
**EUSKAL DANTZA**

Betiko moduan, ekintza nagusi bat ordainduz gero, bi egin ditzakezu



# Udazken kulturala 06





## Abenduan

**23an, 22:30ean,**
Gabonetako kontzertua Udal Pilotalekuan

**24an, 18:30ean,**
Olentzero San Martin plazan

**26tik 29ra,**
Gabonetako jolasparkea Labegaraietan

**30ean 22:00etan**
Hip-hop kontzertua Jam-en: Rapsusklei eta Hazhe. Artista gonbidatua: ADE+FLOW. Sarrerak salgai Jam-en: 10 € aldez aurretik eta 12 € takilan.

## Urtarrilean

**5ean,**
Bizarzuri eta Errege Kabalgata

**7an, 17:00etan,**
*Hiru txerritxoak* antzezlana Udal Pilotalekuan

*Bergarako Udalak Gabon zoriontsuak opa dizkizue.*
*Ondo bukatu urte zaharra, eta hobeto hasi berria!*

**BERGARAKO**
Kultura Saila













urte berri on!

edertu

masterreka, 9-11 tel. 943765879
barrenkale, 23 tel/fax. 943762965



**FUTBOL TXAPELKETA** 1995eko Gabonetan txapelketa jokatu zuen mutiko koadrila, sariarekin, eta Rafael Grimaldo, orduko antolatzailea, alboan dutela. M.A.

**KIROLA** > PEÑA ZUBI TXAPELKETA

# Peña Zubi txapelketa 22. aldiz jokatuko dute Gabonetan

Gabon kanta eta ipuin lehiaketak ere antolatzen zituzten hasierako urteetan

Txapelketa ez du UDAk antolatzen, eta ez dauka inolako zerikusirik

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 5era bitartean Peña Zubi txapelketako futbol partiduak jokatuko dituzte Ibarra futbol zelaian. 22. aldiz antolatu dute aurten.

**KULTURA ETA KIROL LAGUN TALDEA**

Jabier Etxebarria *Fito*-k eta garai hartan postetxean lan egiten zuen Rafael Grimaldok antolatu zuten lehen aldiz 1984ko Gabonetan. Kirol eta kultura lagun taldea osatu zuten, eta Zubizarreta Athletic Club izena jarri, motzagoa delako Peña Zubi geratu bada ere. Ez zen futbol txapelketa bakarrik egiten orduan, Gabon kanta eta ipuin lehiaketa ere antolatu zituzten, eta eskola arteko xake txapelketa ere bai noizbait: "Almen eta Kurtzebarri eskoletako neska-mutikoek hartzen zuten parte, eta Gabon kantak zinema zaharrean abesten zituzten", azaldu digu *Fito*-k.

**SARIA TALDE GUZTIENDAKO**

Ez orduan, ez orain ez dauka inolako zerikusirik UDArekin txapelketak, eta argi utzi gura du hori *Fito*-k. Lagun taldeari Andoni Zubizarretaren izena jartzea erabaki zuten: "Zubizarretak Athleticen jokatzen zuen orduan, eta herriko semea izanda, hura hautatu genuen lagun taldearen babesle. Gainera, ahal zuen guztietan etortzen zen umeei sariak banatzera".

Poliki-poliki kulturari eskainitako lehiaketak utzi eta kirol arloa hartu zuten ardatz; hau da, gaztetxoendako futbol txapelketa. 12 urtekoendako antolatzen zuten orduan, baina azken urteotan, hiru talde osatzen dituzte adinaren arabera. Aurten, esaterako, 96an jaiotakoek, 97koek eta 98koek jardungo dute. Aretxabaletarrez gain, Eskoriatza, Arrasate, Bergara eta Aramaioko mutiko koadrilak etorri izan dira, eta 15en bat talde elkartu. Zortzi kidek osatzen dute talde bakoitza, eta 20 minutuko bi zati jokatzen dituzte. Abenduaren 26an hasiko dira jokatzen partiduak eta arratsaldeetan izango dira guztiak, 15:00etan. Finalak, ostera, urtarrilaren 5ean jokatuko dituzte talde onenek: "Benetan giro polita sortzen da Ibarra futbol zelai inguruan egun horietan, mutikoak direla, gurasoak direla…" Gainera, ez da inor esku-hutsik joaten, talde guztiek izaten dute-eta sariren bat. "Parte-hartzaile gehienendako lehenengo txapelketa izaten da, eta 96an jaiotakoendako benetan garrantzitsua; izan ere, jokalari onenei hurrengo denboraldian UDAk fitxa egingo die alebinen taldea osatzeko", bukatu du *Fito*-.k.

DATUA

## 22

Dagoeneko 22 txapelketa jokatu dituzte. 1984an hasi eta hutsik egin barik antolatu dituzte urtero txapelketok. Debagoieneko mutiko asko pasatu dira bertatik, baita gerora jokalari handi izandako batzuk ere.

ABESTIA

## Lagun taldeak abestia ere bazuen

Abestiari ere *Peña Zubi* izena jarri zioten lagun taldearen sortzaileek. Musika Demetrio Iriarte txistulari handiak jarri zion eta letra Aitor Sarasua bertsolariak asmatu zuen.

*Gora alaitasuna*
*gora gaztedi berria*
*irrintziez alaitu*
*dezagun herria.*

*Gogoz abestu eta kanta*
*umorerik ez dadila falta*
*guztion helburu galanta*
*Euskal Herria indartu eta*
*alaitzea da ta.*

*Gora alaitasuna*
*gora gaztedi berria*
*irrintziez alaitu*
*dezagun herria.*

*Jolas eta Kirol jardunak*
*jai bihurtzen dizkigu egunak*
*oihu egin dezagun lagunak*
*Aurrera Zubi, aupa gu danak*
*gora euskaldunak!*





**SAHARA** Saharako umeak eskolara bidean motxila bizkarrean dutela. OLAIA SAGREDO

**ELKARTASUNA** > SAHARAREN ALDEKO JAIALDIA

# Solidaritate jaia antolatu dute Iesbaa eta Hiruatx elkarteek biharko

Janaria eta dirua batuko dituzte 'Karabana 2007: Piztu itxaropena' egitasmorako, eta Hiruatxek bidezko merkataritzako azoka jarriko du

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Mitarte plazan egingo dute Sahararen aldeko jaialdia bihar, zapatua. Aurten sortu duten Iesbaa elkarteak eta Hirugarren Munduaren alde lanean dabilen Hiruatxek antolatu dute.

**UMEENDAKO HAINBAT EKITALDI**
Goizetik arratsaldera bitartean iraungo du jaialdiak. Bidezko merkataritzaren azoka eta produktuen dastatzea eta Saharako artisauen azokak jarriko dituzte egun guztian. 11:00etan hasita umeendako jokoak antolatu dituzte, eta 11:45etik 13:00etara txalapartariak eta Kike eta Koko pailazoak egongo dira. Gainera, Saharako gastronomia dastatzeko aukera izango dute herritarrek eguerdi partean. Arratsaldea perkusio talde batek girotuko du, baina musika eta henna tailerra egun guztian egongo dira.

Horrez gain, furgoneta bat jarriko dute Durana kalean, eta asmoa da janariz betetzea Saharara bidaltzeko. Arroza, dilistak, atuna eta konpresak batzen dabiltza aurten *Karabana 2007: piztu itxaropena* egitasmo barruan.

**JANARI BEHARREAN**
Iesbaako kide den Olaia Sagredo Saharan izan zen azaroan. Tindoufen egin zuten Hego-Hego batzarrean hartu zuen parte, eta Marokok sahararren aurka darabilen indarkeria izan zuten berbagai. Gainera, ikusi zuen errefuxiatuen kanpamenduetan janari barik gelditzen dabiltzala. Aljeriak larrialdi karabana bidali zuen azaroan, eta ondoren Ingalaterrakoa iritsiko zaie. Horren ostean Euskal Herritik doana jasoko dute.


Jauregi
Okindegia
Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA
Zorionak eta urte berri on!

**KULTURA** > GABONETAKO EKITALDIAK

## Abesbatzaren emanaldia eta umeendako antzerkiak

Ohiko ekitaldiak izango dira protagonista: Olentzero, Bizarzuri eta Errege kabalgata

**M.A.** > ARETXABALETA
Ikastetxeek hartu dituzte oporrak, eta langile askok ere bai. Gabonetan gaude, eta hainbat emanaldi antolatu dituzte Kultura zein Gazteria sailek.

**UME ZEIN HELDUENDAKO**
Domekan, abenduak 24, ume zein gurasoak kantuan ibiliko dira kalez kale. 10:30ean dute hitzordua Herriko Plazan, eta euririk egiten ez badu, behintzat, urteroko bueltatxoa emango dute. Arratsaldean, ostera, Olentzero etorriko da; 18:30ean aterako da kirol etxetik traktorean. Abenduaren 26an eta 27an ur jolasak egingo dituzte kirol etxeko igerilekuan; 27an, gainera, Kixka taldeak antzezlana eskainiko die 5 eta 12 urte artekoei gaztelekuan, 16:00etan. Eta 28an, Rosa Maria Martinezek ipuinak kontatuko dizkie kultur etxean, 11:30ean. Hilaren 31n, Bizarzuri pasatuko da herritik, eta urtarrilaren 5ean Errege kabalgata.

Helduek ere izango dute zer entzun: hilaren 28an, Pello Zabala frantziskotarrak klima aldaketaren gaineko berbaldia egingo du, 18:00etan, kultura etxean. Eta 29an, egubakoitza, Aretxabaleta Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du, 19:00etan, parrokian.

**GAZTEEK HAINBAT EKINTZA**
Gazteendako II. aste gaztea antolatu dute Atxagazte gaztelekuan. Hilaren 26tik 30era hainbat ekintza izango dituzte, tartean, izotz pistara irteera. Urtarrilaren 2tik 4ra, ostera, Lekeitiora joango dira Eskoriatzakoekin batera.

> HAUTESKUNDEAK

### Arritxu Oliden izango da EAJren alkategaia maiatzeko Udal hauteskundeetarako

Arritxu Oliden izango da EAJren alkategaia maiatzeko Udal hauteskundeetarako. Hala erabaki zuen eguaztenean Aretxabaletako EAJren batzarrak. Hortaz, Olidenek errepikatu egingo du. Hautagaien zerrenda ez dute osatu EAJko kideek, baina orain Udalean zinegotzi diren batzuek adierazi dute ez dutela jarraitzeko asmorik. Talde berria osatu beharko dute, hortaz.



M.A.

## 100 urte bete ditu Joaquin Barberok

Astelehenean, hilak 18, bete zituen 100 urte Aretxabaletako nagusienak, Joaquin Barberok. Arritxu Oliden alkatea joan zitzaion opariarekin Udalaren izenean eta Aldundiko ordezkaria ere hurreratu zen. Hiru semeak, ilobak eta gainerako senideak inguruan zituela, zaharren egoitzako kideekin batera ospatu zuen urtebetetzea.

**KIROLA** > KARATE TXAPELKETA

# Aretxabaletarrek bikain jokatu zuten etxean Gabonetako Karate Txapelketan

Joan zen domekan egin zuten, kirol etxean, eta 8 eta 13 urte arteko 12 klubetako karate jokalariak elkartu ziren; guztira 173 neska-mutiko



**JOKALARIAK** Domekako karate txapelketan jardun zuen Aretxabaletako mutiko taldea. ODILO VAZQUEZ

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Gabonetako Karate Txapelketa egin zuten joan zen domekan Aretxabaletan, eta Gipuzkoako 12 klubetako ume eta gaztetxoak hurreratu ziren. Bederatzi aretxabaletarrek jardun zuten txapelketan, ezin hobeto jardun ere.

**HIRU ETA LAUGARREN POSTUAK**
Jende asko elkartu zen kirol etxean: 173 jokalari, 25 epaile eta laguntzaile eta harmailak beteta. Gipuzkoako 12 klubetako kideak hurreratu ziren, tartean, Irun, Azkoitia Arrasate eta Donostiakoak. Neska eta mutil, hiru mailatan jardun zuten norgehiagokan, eta bi karate-modalitatetan: kata eta kumite. Aretxabaletarrak ezin hobeto moldatu ziren, eta aipatzeko moduko postuak lortu zituzten: infantilen mailan hirugarren geratu zen Axel Lizaranzu 38 jokalariren artetik; alebinen mailan, laugarrena izan zen Gorka Gonzalo 78ren artetik; eta benjaminen mailan, 57 jokalariren artetik laugarrena izan zen Oxel Vazquez, eta zortzigarrena Jon Ander Estevez.

**INSTALAKUNTZA ESKASAK**
Odilo Vazquez entrenatzaile aretxabaletarra pozik zegoen mutikoek egindako lanarekin, eta antolakuntza lanak arrakastaz burutu zituztelako. Hala ere, kexatzeko arrazoirik ere bazuen: "Txapelketa ezin hobeto burutu da, baina izugarrizko hotza egiten zuen kirol etxean eta itoginak zeuden jokatzen egon diren kantxan. Aretxabaletarrok hori baino gehiago merezi dugulakoan nago, eta behingoz gaiari serioski heldu eta zerbait egin beharko lukete. Edo, beharbada, halako ekitaldirik ez genuke antolatu beharko dauzkagun instalakuntzak ikusita", adierazi zigun.

## Gabon kantuan Almenetik Basabeazpira

Gabonetan sartuta eta oporrak hartu aurretik, Arizmendiko ikasle nagusiek bisita egin zieten txikiei. Almeneko Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoak joan ziren Basabeazpira martitzenean, eta Gabon kanten emanaldia eskaini zieten. Talde galanta hurreratu zen, ia 100 ume, eta Basabeazpiko txikiek aho zabalik, baina gustura egin zieten ongietorria; izan ere, asko iaz eurekin batera egondakoak ziren.



M.A.

> KIROLA

### Futbol entrenatzaile izan gura duenarendako ikastaroa antolatu du UDAk Gabonetarako

Gaztetxoen futbol taldeak entrenatu gura dituen edonorendako antolatu du UDAk ikastaroa. Abenduaren 28tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era egingo dituzte eskolak, 09:30etik 12:30era, eta doan izango dira. Goiena Sporteko adituak izango dituzte irakasle Realekoen laguntzarekin. Izena emateko UDAra edo kirol etxera deitu, edo *goienasport@goienasport.com* helbidera idatzi hilaren 24rako.

> TELEBISTA

### Kanpai jotzea grabatuko du Goiena telebistak Areantza auzoan urtarrilaren 2an

Kanpai jotzearen gaineko material didaktikoa sortu gura dute, eta horretarako kanpaien doinuak eta zelan jotzen dituzten grabatuko dute Areantza auzoko elizan. Urtarrilaren 2an, martitzena, 09:30ean hasi eta arratsaldera bitartean ibiliko dira kanpaiak jotzen, eta Areantza eta inguruetan entzungo dituzte. Hortaz, inor ez dadila beldurtu hil edo su-kanpaiak entzunda, telebistarako grabazioa egiten dabiltzalako izango da eta.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Martin
erloju-denda
Viceroy Fashion eta Lotus Style
Mitarte 16, Tel.: 943 79 01 72 - ARETXABALETA



**MERKATARITZA** > BEZEROEN ARTEKO GABONETAKO ZOZKETA

# Herrian erosketak egiteagatik zozketa egingo dute merkatariek bezeroen artean

Iazko harrera ona ikusita, herriko merkatariek zozketa antolatu dute, bezeroei eskerrak emateko; 30.000 bonu banatuko dituzte bezeroen artean, eta zozketa urtarrilaren 5ean egingo dute

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eskoriatzan ez dago merkatarien elkarterik, baina aspaldian herriko negozio gehienak batu eta elkarlanean hainbat ekintza egiten dihardute.

Gabonei begira, aurten ere bezeroen artean bonuak banatuko dituzte. Ekimenaren helburua da herrian erosketak egiten dituztenei eskerrak ematea. Hala jakinarazi digute herriko dendariek.

**1.000 BONU SALTOKIKO**

Herriko negozio gehienek esku hartu dute ekimenean, eta bakoitzak 1.000 bat bonu ditu banatzeko. Egunotan hasi dira horretan, eta zozketa 2007ko urtarrilaren 5ean egingo dute.

Iaz hasi ziren bonuak banatzen eta ekimenak oso harrera ona izan zuen herritarren artean. Are gehiago, herriko negozioak ere ekimena berriro egiteko deseatzen zeuden.

**ORAINGOAN SARI HOBEAK**

Oraingoan sari gehiago eta hobeak banatuko dituzte: nagusia izango da 1.000 euro eta bi lagunendako afaria. Horrez gain, 100 euroko bost sari ere banatuko dituzte. Bai afaria eta baita diru sariak ere herriko jatetxe, saltokietan eta bestelako negozioetan egin beharko dituzte. Eta, hain zuzen ere, gastu horiek egiteko hiru egun izango dituzte.




**BONUAK BANATZEN** Dendariek Gabon inguruan banatuko dituzte bonuak bezeroen artean. Dagoeneko hasi dira zeregin horretan. IKER BARANDIARAN

**ARKEOLOGIA** > ARANTZADIKOEN AZTERKETA

# Hainbat aztarna aurkitu dituzte Santa Marina gunean

Orain arte hilobi bat, kanpaiak egiteko hiru molde eta beste hiru labe aurkitu dituzte

Arantzadikoek aztertu behar dute aurkitutako elementuak zer garaitakoak diren

**I.B.**> ESKORIATZA

Arantzadi zientzia elkarteak indusketa arkeologikoak egiten dihardu Santa Marina esparruan.

Urrian Arantzadikoek baserri-hiltegi zaharraren gaineko azterketa egin zuten: "Eraikin horri erabilera asko eman dizkiote: ermita, hiltegia, biltegia eta beste. Horregatik, bota aurretik, eraikin horren estruktura aztertu genuen", azaldu zigun Arantzadiko Alfredo Morazak.

Jaurlaritzak Santa Marinan aztarna arkeologikoak egon zitezkeela jakinarazi zuen. Horregatik, orain, han etxebizitzak eta urbanizazio berria eraiki aurretik, azterketak egin dituzte.

**HILOBIA, LABEAK ETA BESTE**

Baserria bota ostean, asteon, Arantzadikoak bueltan joan dira indusketak egitera. Oso metro gutxi egin dituzte lur azpian, eta dagoeneko hainbat bilaketa egin dituzte: hilobi bat, kanpaiak egiteko hiru molde eta hiru labe.

Horiek dira kanpaiak egiteko Gipuzkoan aurkitu diren seigarren zazpigarren eta zortzigarren moldeak. Orain artekoak XIV. eta XVIII. mendeetakoak izan dira. Hilobi bat ere aurkitu dute. XVI. mende bukaerako izurriarena izan daitekeela uste dute. Edozelan ere, laster aditzera emango dute aurkikuntzen gaineko zehaztasun gehiago.



**AURKIKUNTZA GARRANTZITSUAK** Argazkian, Aranzadiko Alfredo Moraza aurkitutako hilobia erakusten. I.B.

**GABONAK** > GABONETAKO KULTURA EGITARAUA

# Jolasparkea, opera, Olentzero eta Erregeak ekarriko dituzte herrira

Udalak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako; ekitaldi gehientsuenak umeendako dira: jolasparkea, Olentzero, Erregeak...

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, hasiko da Udalak antolatutako Gabonetako egitaraua. Musika Eskolako Bandak Gabonetako kontzertua egingo du San Pedro elizan, 20:00etan.

Domeka, berriz, umeen egun handienetakoa izango da. Eguerdian umeek Gabonetako kantuak abestuko dituzte eta Olentzeroren laguntzaileek gutunak jasoko dituzte. Horren ostean, Trikitixa Eskolakoen laguntzarekin kalejira egingo dute.

18:00etan, ongietorria egingo diote Apotzagatik jaitsiko den Olentzerori. Kalejira egingo du honako kaleetan: Intxaurtxueta, San Pedro, Santa Ana, Olazar, Dorleta, Arana eta plaza.

**GABONETAKO JOLASPARKEA**

Hilaren 26an, bestalde, *Doraemon hegaztien mundu magikoan* filma emango dute Ibarraundi museoan, 17:30ean.

Eta hilaren 27an, 28an eta 29an Gabonetako parkea jarriko dute kiroldegiko kantxan eta igerilekuan. Kantxakoa 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Igerilekukoa, berriz, adin tarteetan banatuko dute. Puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoak, ludoteka, rokodromoa eta beste egongo dira.

**ADIN GUZTIETARAKO OPERA**

Hilaren 30ean ekintza berezi bat egingo dute. Bilboko Belatrix taldeak *Bazen behin... opera* ikuskizuna egingo du Ibarraundin, 19:00etan. Adin guztietarako ikuskizuna da, ikusleak operara hurbiltzeko baliatzen dutena.

Urtarrilaren 5ean, Erregeen kabalgata egingo dute. 18:00etan irtengo da pilotalekutik.



**JOLASPARKEA** Hilaren 27an, 28an eta 29an Gabonetako parkea ipiniko dute; argazkian, umeak iazkoan. UDAL KULTURA SAILA



**TXAPELA** Alex Oiartzabal da txapelduna. IKER BARANDIARAN

**PILOTA** > GAZTE MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

# Alex Oiartzabalek irabazi du gazteen pilota txapelketa

Buruz buruko finala irabazi du Seguran aste bukaeran, Garaialderen kontra jokatuta

**I.B.**> ESKORIATZA

Aurtengo gazte mailako pilota txapelketako saria eskoriatzar batek eskuratu du: 16 urteko Alex Oiartzabalek.

Aste bukaeran jokatu zuten finala Seguran, eta 22-18 irabazi zion Oiartzabalek Garaialderi. Eskoriatzarra -1 galtzen hasi zen, baina hortik aurrera berdintzea lortu zuen, eta polikipoliki Oiartzabalek aurre hartu zion.

**BURUZ BURUKO TXAPELA**

Alex Oiartzabal oso txikitan zaletu zen pilotarekin. "Etxean zaletasun handia dago: aitaita, aita eta anaia oso zaleak dira, eta neu 5-6 urterekin hasi nintzen herriko pilota elkartean jokatzen".

Oiartzabal gogoz dabil pilotan jokatzen. Orain arte binakako hiru txapel eskuratu izan ditu, eta birritan bigarren txapela eskuratu du.

Astean birritan pilotalekuan entrenatzen du, eta beste egun baten ariketa fisikoak egiten ditu. Joseba Iñurrategi da taldeko entrenatzailea.

**HARROBI TXIKIA HERRIAN**

Oiartzabalen ustetan ez dago pilota harrobi onik herrian. "Badira nire adinekoak eta 2 urte gazteagoak diren pilotariak, baina ez daukagu horiek baino gazteago ezta zaharragorik".

> AISIALDIA

## Aste Gaztea eta Negulekuak egingo dituzte datozen egunetan gaztelekuaren bitartez

Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Txatxilipurdik kudeatzen duen Gaztelekuak ekintza ugari egingo dituzte datozen egunetan.

Martitzenean, hilaren 26an, kirol abenturak egingo dituzte; eguaztenean, Gasteizko izotz pistara irteera egingo dute; eguenean, truke azoka eta sukaldaritza ikastaroa egingo dituzte; egubakoitzean, zinera joko dute; eta hilaren 30ean, lagun ezkutua egingo dute, urteari amaiera emateko.

Horrez gain, urtarrilerako Negulekuak antolatu dituzte. Hain zuzen ere, hilaren 2an, Lekeitiora irteera egingo dute eta hilaren 4ra arte egonaldia egingo dute han. Izena emateko azkeneko eguna abenduaren 22a izango da, Gaztelekuan edo Gazteria zerbitzuan.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**bere ustez**



Ainhoa Ugarteburu

## Lagunekin akordatu Gabonetan

Gabonak... Gustoko dittut gabonak, eta aurten, iaz ez bezela, etxian pasatuko dittut. Gogua daukat, bai etxekuekin egon, edarto jan eta edan, erregalon bat edo beste jaso, eta aspaldian ikusi barik dauzkaten lagunekin egoteko.

Etxetik urruti zarenian, ikasten dozu lagunek zelako balixua daukaten, atzerrixan norberaren familixa bihurtzen dira-ta. Zorionez, nik, horretan suerte galanta eduki dot, lagunez inguratuta bainago Dublingo bakardade eta herrimina apurtxo bat uxatzeko.

**"Lagunez inguratuta nago Dublingo bakardade eta herrimina apur bat uxatzeko"**

Danerakuak ezagutu dittut urtetan aurrera juan ahala. Ume umetakuak, Unibertsitatekuak, lankidiak, lagun onak,lagun txarrak, distantziak eta denborak urrundu dittuanak, apartekuak, nork daki nondik etorrittakuak.

Ez dira bihar zientoka lagun, bi edukitzia nahikua da, edo hamar... Bakoitzagan dago neurrixa. Kafe bat, edo afari on bat, konbersazino interesgarri bat, zinera edo oporretara, edo ospitalera lagunduko zaittuenak. Batzutan maitale be bihurtzen dira, mugak nahastuz eta apurtuz.

Topa ba, Gabon hauengatik, ta akordau zuen bihotzeko lagunetaz be.

((112))
SOS DEIAK

**PAUSOKA** > URTEKO BATZAR OROKORREAN BATZORDEA BERRITU DUTE

# Eskolako jangelan hainbat menu aukeran

Azaroaren 28an egin zuten urteko batzar orokorra eta hantxe eman zuten menu aukeraren berri; jangelan beste berrikuntza batzuk ere badaude

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Azaroaren 28an egin zuen urteko batzar orokorra Pausoka gurasoen elkarteak. Hantxe, besteak beste, batzorde berria aukeratu zuten. Hauexek osatzen dute batzorde berria: Nerea Irizar izango da lehendakari berria; Paco Cabrera lehendakari-ordea izango da; Mikel Kerexetak eta Patxi Legorburuk idazkari lanetan jardungo dute; Nerea Ruiz eta Edurne Gabilondo diru kontuez eta formazio ikastaroez arduratuko dira; Amaia Toledo eta Ander Lezeta ekintzak antolatu eta jangelako kontuez; Olatz Altzelai eta Jesus Gardoki eskola kirolaren arduradun izango dira eta Bakarne Gastañares, azkenik, zaintza zerbitzuaz arduratuko da.

**HAURRESKOLA PAUSOKAN**

Iaztik, Haurreskolakoek ordezkaritza dute Pausokan; Bakarne Gastañares da guraso horien ordezkaria. Bi urte egingo ditu kargu horretan Gastañaresek, eta datorren urtean ordezkari berria aukeratu beharko dute. Dena dela, aurten lehendabiziko aldiz, Haurreskolako gurasoek Pausoka elkartearen kuota ordaintzen hasi beharko dute; izan ere, iaz, hainbat arrazoi zirela-eta, ez zuten kuota hori ordaindu.



**JANGELA** Umeak eskolako jangelan, bazkalorduan. A.I.

**JANGELAN HAINBAT BERRIKUNTZA**

Jangelan izango diren hainbat berrikuntzaren berri ere eman zuten batzar orokorrean. Berrikuntza garrantzitsuena izango da hainbat menu egongo direla aukeran aurrerantzean: erregimen menuak (gatzarekin eta gatzik gabe), zeliakoendako, txerrikirik gabekoak, esnekirik gabekoak, arrautzarik gabekoak eta beste hainbat alergia dituztenendako menuak. Menu horiek eskatzeko, medikuaren idatzia aurkeztu beharko dute umeek.

Bestalde, begirale bat gehiago izango dute jangelako umeek. Aurrerantzean hiru begirale izango dituzte. Gaur egun, ia egunero 39 erabiltzaile ditu jangelak. Aipatzekoa da, bestalde, jangelako arautegia ere berritu egin dutela.

Bukatzeko, ikasturte berrirako antolatu dituzten ikastaroen berri ere eman zuten Pausokako kideek; honakoak izango dira: jazarpena, sorospena, elikadura eta kulturen arteko elkarbizitza.



A.I.

## Emakumeak nagusi karta txapelketan

Martitzenean, hilak 19, jokatu zituzten erretiratuen elkarteko karta txapelketako finalak; honako hauek nagusitu ziren: punttuan eta briskan, Karmen Egaña eta Sabina Agirre; musean, Salvador Serrano eta Gerardo Muñoz eta tutean, Enrike Losada eta Tomas Bakaikoa. Finalen ondoren, afaria egin zuten parte-hartzaile guztiek. Irabazleok Debagoieneko txapelketarako sailkatu dira. Urtarrilean edo otsailean jokatuko dute ibarreko norgehiagoka Arrasaten. Argazkian, irabazleak erretiratuen elkarteko presidente Andoni Azkaraterekin.

> BARKERoren OMENEZ

### Real Sociedadeko beteranoak hilaren 30eko partiduan

Urtero bezala, Xabier Barkero zenaren omenezko futbol partidua jokatuko dute Gabon jaietan, Antzuola Kirol Elkarteak antolatuta. Hilaren 30ean izango da, 17:00etan, Estala futbol zelaian. Barkeroren omenezko partidua antolatzen duten seigarren urtea izango da aurtengoa.

Besteak beste, Realeko jokalari izandako hauek etorriko zaizkigu: Santi Bakero, Gorriz, Luis Perez, Gajate eta Loinaz.

> MOBILIZAZIOAK

### Euskal presoen aldeko hainbat ekitaldi Gabonetan

Abenduaren 24an, 17:30ean, presoen aldeko Olentzeroa aterako da, eskola aurretik. 25ean, kale agerraldia egingo dute, Zurrategin, 13:30ean. Hilaren 29an ere kale agerraldia, 19:00etan, Zurrategin. Gabon zahar egunean, Euskal Presoak Euskal Herrira izarekin joango dira Aizkorrira eta hilaren 1ean, Arrolara. Hilaren 1ean, gainera, kale agerraldia egingo dute, 13:30ean.

> ARETO FUTBOLA

### Gaztetxoek areto futbol txapelketa jokatuko dute

Abenduaren 27an eta 28an, eguaztena eta eguena, areto futbol txapelketa jokatuko dute herriko gaztetxoek, Antzuola Kirol Elkarteak antolatuta. 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoendako izango da txapelketa hori. Udal Pilotalekuan jokatuko dituzte partiduak, 09:30etik 17:00ak aldera arte.

> GABONAK

### Jolasparkea, mendi irteerak eta kantuak Gabon jaietan

Arrola mendizale elkarteak, urtero bezala, bi mendi irteera antolatu ditu. Abenduaren 31n, ohiturari jarraituz, Aizkorrira joango dira; urtarrilaren 1ean, bestalde, Arrola mendira igoko dira.

Pausokak ere antolatu du ekitaldia; Gabon egunean, hilak 24, 11:00etan, kantura irtengo dira.

Urtarrilaren 2an, azkenik, umeendako jolasparkea jarriko dute Udal Pilotalekuan. Goizez, 11:30etik 14:00etara eta arratsaldez 16:30etik 19:00etara egongo da zabalik.

**GABONAK** > EKINTZAZ BETERIKO OPORRAK GAZTETXOENDAKO

# Olentzero bihar, zapatua, etorriko da Elgetako umeen gutunak jasotzera , 18:30ean

Gabonetako oporretarako ekintza ugari antolatu dituzte umeendako Maala Guraso Elkarteak eta Egoki taldea

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Olentzero bihar, zapatua, etorriko da Elgetara herriko umeen gutunak jasotzera.

18:30ean iritsiko da Olentzero eta Salbador kaletik egingo du sarrera herrian. Asto gainean etorriko da eta Elgetako trikitilariek egingo diote ongietorria. Denak batera herriko plazara abiatuko dira ondoren, bertan jasoko baititu Olentzerok umeen gutunak.

**EKINTZA UGARI UMEENDAKO**

Gabonetako oporretan Elgetako umeek ez dute aspertzeko aitzakiarik izango. Maala Guraso Elkarteak zein Egoki Taldeak ekintza ugari gertatu dituzte beraiendako. Parte hartzeko izena eman beharra dago.

## Gabonetako ekintzak

| EGUNA | ORDUA | LEKUA | EKINTZA |
|---|---|---|---|
| 23, zapatua | 12:30 | Bolatokian | Boleta txap. |
| | 17:00 | Plazan | Txokolatada |
| | 18:00 | Plazan | Lehiaketa |
| 24, domeka | 11:00 | Eskolatik | Abesteko irteera |
| 27, eguaztena | 10:00 | Eskolan | Psikomotrizitatea |
| | 10:30 | Frontoian | Pilota/Pala txap. |
| | 16:00 | Kultura etxean | Buztingintza |
| 28, eguena | 16:00 | Espaloian | Bitxigintza |
| 29, barikua | 10:30 | Frontoian | Pilota/Pala txap. |
| | 16:00 | Kultura etxean | Buztingintza |
| 30, zapatua | 16:00 | Gimnasioan | Batuka eta Dantza |
| 31, domeka | 10:30 | Frontoian | Pilota/Pala txap. |
| 5, barikua | 18:30 | Bolatokian | Boleta txap. |


L.Z.

## Sukaldea berritu dute Ozkarbin

Erabilgarri dago Ozkarbi elkarteko sukaldea berriz ere. Harraska eta haren ondoan zegoen parrilla zaharra kendu dituzte eta altzari berria jarri dute sukaldeko txoko horretan. Bertan kokatu dituzte ontzi-garbigailua, zakarrontzia eta harraska berria. Bi aste iraun duten lanotan karga-jasogailua ere kendu dute.

**ERREPIDEAK** > BIDE KONPONKETAK HERRIKO BI AUZOTAN

# Egotxeaga eta Larrabil auzoetako bideen zorua berrituko du Foru Aldundiak

Zaharberritze lanon bidez, zoru osoa babestu eta errepide bien segurtasuna eta erosotasuna hobetu nahi dira

**L.Z.** > ELGETA

Elgetako Udalak eskatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Egotxeaga (GI-4332) eta Larrabil (GI-4333) auzoetako bideen zorua berrituko du.

Lan horiek lehiaketara atera berriak dira. 271.000 euroko aurrekontua izango dute eta hiru hilabeteko epea eman da egitekoak amaitzeko.

**ZAHARBERRITZE LANAK**

Egotxeagako bidea 1.150 metro luze da eta Larrabilgoa, berriz, 865 metro luze.


**SEINALEAK** Seinale horizontalak berriro pintatuko dituzte larrabil auzoan. L.Z.

Zoruaren egitura berritzeko ohiko prozedura erabiliko da. Lehenik, zorua goratuko da betun nahasketa batekin, eta ondoren, zigilatzeko, bi betun letxera geruza zabalduko dira.

Bi errepideetako lanak amaitzeko 0,50 metro zabaleko zanga egingo dute bide bazterretan eta hormigoizko hodia jarriko dute zati batzuetan; kalte litezkeen seinaleak berriz pintatuko dituzte.

> ZIKLO-KROSA

### Jone Muxika nagusitu da Ormaiztegin jokatutako Euskadiko Ziklo-kros Txapelketan

Domekan jokatu zen Ormaiztegin Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa. Jone Muxika elgetarra denboraldi bikaina egiten ari da eta lasterketa ona egin ostean emakumezkoen mailan nagusitu zen. Kadete mailan, Xabier Arantzeta 13. sailkatu zen eta Aitor Laskurainek, berriz, 18. postua egin zuen.

> ANTZERKIA

### 'Artea' antzezlana bihar, 22:30ean, Espaloia Kafe Antzokian

Asier Hormaza, Joseba Apaolaza eta Ramon Agirrek hartzen dute parte *Artea* antzezlanean.

Hiru lagunen arteko harremanaz jarduten du obrak. Lagunetako batek artelan garesti bat erosiko du eta horrek ikamika latza sortuko du.


Antzezlaneko aktoreak. GOIENKARIA

> GABONETAKO BOLETA TXAPELKETA

### Lehia handia dago, eta zapatuan, 23:00etan, erabakiko da aurtengo txapelduna nor den

Bolatokian hitzordu garrantzitsua dute bihar, zapatua. Hiru jardunaldiren ostean Jabier Osorok du marka onena zazpi txirlo jota. Sebastian Arantzabal da bigarren, bost txirlorekin. Bolatokiko Josetxo Monterroso hirugarren postuan dago, lau txirlorekin.


Suite antzeko lau logela bikoitz:
bainu osoarekin, telebista, berogailua, etab.


Jangela zerbitzua

EGUZKITZA
LANDETXEA

Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel.: 943 78 90 84 • Sakelakoa: 679 41 66 97



Mari Karmenek Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

**GABONAK** > EKITALDIAK

# Bihartik urtarrilaren 7ra arte ekitaldi mordoa dago, batez ere umeendako

Bihar, zapatua, 'Actto para la Noche Buena' antzeztuko dute kultura etxean

Olentzero domekan jaitsiko da menditik; 18:00ak aldera eskola ondora joango da



**OLENTZERO** Domekan batuko ditu Olentzerok Aramaioko umeek berarendako idatzi dituzten gutunak, Sastiñan. U.M.

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Gabonetako ekitaldiekin hasteko, bihar, zapatua, Pedro Inazio Barrutia aramaioarrak idatzitako *Actto para la Noche Buena* antzeztuko du Doke antzerki taldeak kultura etxean; 20:00etan hasiko da.

Domekan, berriz, Olentzeroren eguna da. Ikazkina iluntzean jaitsiko da Aramaiora, 18:00etan. Eskola ondotik atera eta, umeek lagunduta, kalejiran joango da plazara, gozokiak banatzen. Han, neska-mutikoen gutunak batuko ditu, Sastiñan, eta opariak banatuko ditu haien artean. Bien bitartean, gazteen Papargorri abesbatzak eta nagusien Bizente Goikoetxea abesbatzak Gabon kantak abestuko dituzte.

**OHITURA BERRESKURATU**

Bestalde, domekan baita ere, baina goizean, azken 20 urteotan galduta egon zen ohitura bat berreskuratuko dute Azkoaga, Zabola eta Altzaga auzoetan: umeak baserriz baserri joango dira kantuan, baserritar jantzita eta musikak lagunduta. Auzo horietan baserri kopurua handitu egin denez, gainera, 40 baserri bisitatuko dituzte. 09:30ean hasiko dira aginaldoa batzen.

**SUKALDARITZA IKASTAROAK**

Bestelako ekitaldien artean, berriz, abenduaren 26tik 29ra, umeendako sukaldaritza tailerra eta gazteendako postre tailerra egingo dituzte. Umeendakoa izango da 10:30etik 12:00ak arte. Menu osoa egingo dute: lehenengo platera, bigarrena eta postrea. Gazteena, berriz, horren ostean izango da: 12:00etatik 13:30ak arte. Mundu Alai enpresa arduratuko da ikastaroez. Ordu eta erdikoak izango dira, 5 urtetik gorako umeei zuzendutakoak.

Bestalde, tartean, abenduaren 27an, *Barre fisikoa* izeneko antzezlana egingo du Dúo en la Lona taldeak. Hori 17:00etan hasiko da, eta adin guztiendako egokia izango da.

**IPUIN KONTALARIA ETA BESTE**

Eta umeendako zuzendutakoak izango dira baita ere honako ekitaldiak: abenduaren 27an, Auskalorekin, umeendako tailerrak (plastilinarekin lanak, paperezko loreak…); abenduaren 31n eta urtarrilaren 7an, berriz, umeendako zinema emanaldiak egingo dituzte, 17:30ean, kultura etxean.

Iker Diaz Letamendi ipuin kontalariak bi saio egingo ditu urtarrilaren 2an: 17:00etan, 2-6 urteko umeendako eta 18:00etan, 7 urtetik aurrerakoendako.

Urtarrilaren 4an, berriz, puzgarriak ipiniko dituzte kiroldegian, 11:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte.

**BERTSO SAIOA**

Bukatzeko, Gabonetan egin ohi duten bertso saioak ez du kalerik egingo. Aurten honako bertsolariak gonbidatu dituzte urtarrilaren 5erako: Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Etxahun Lekue eta Manex Agirre aramaioarra. 19:00etan hasiko da saioa.

---



AHTREN KONTRAKO TALDEA

## Jende ugari AHTren kontrako ekitaldietan

Abiadura Handiko Trenaren aurka zenbait ekitaldi egiten ibili dira abenduan. Horien artean, Alberto Frias ekologistak berbaldia egin zuen joan den astean (40 lagun inguru joan ziren). Eta barikuan, berriz, bertso afaria egin zuten (argazkian); kasu horretan 50 lagun inguruk parte hartu zuen ekitaldian. Manex Agirre, Iker Agirre eta Oihane Perez bertsolariek jardun zuten eta Xabi Igoa aramaioarrak bertsolari moduan estreinaldia egiteko aprobetxatu zuen ekitaldia.

---

**UDALA** > URTEKO AZKENEKO OSOKO BILKURA

## Gaurko osokoan, AHT eta aurrekontua aztergai dituzte

Trenaren gaineko galdeketa egin edo ez aztertu beharko dute; 1.700.000 euro pasako aurrekontua proposatu dute

**U.M.** > ARAMAIO

Urteko azkeneko osoko bilkura egingo dute gaur, barikua. 18:00etan hasiko da batzarra. Gai zerrendaren arabera, bestelakoen artean, zinegotziek aztertu beharko dute Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egin edo ez. Gogoratu dezagun tren horren kontrako Aramaioko taldeak 657 sinadura aurkeztu zituela erreferenduma eskatzeko.

Puntu hori, gainera, landuko duten bigarrena izango da; beraz, batzarra hasi eta segituan landuko dute.

**2007KO AURREKONTUA**

Landuko duten beste puntuetako bat, berriz, izango da datorren urterako aurrekontua. 1.761.664,81 euro da proposatu duten kopurua.

Bestelako gaien artean, Eguzkierripa auzoan azpiegiturak berritzeko lanen adjudikazioa ere erabaki beharko dute zinegotziek. Proposamena da Excavaciones Arrasate SL enpresari esleitzea lan horiek. Lanon aurrekontua, berriz, da 687.303,19 euro.

Eta beste gai bat aipatzearren, Nardeaga kalean dagoen okindegiaren etorkizuna ere aztertu beharko dute.

**GUREL** > GABON KANTUAN BASERRIETARA

# Urtero moduan elkartuko dira Gabon egunean baserriz baserri kantuan joateko

Aurten domeka denez, baserrietako buelta bizkorrago egiteko asmoa daukate, eta gero herria girotuko dute kantekin


GABON KANTUAN Gatzagako herritarrak Olentzeroren inguruan. GOIENKARIA

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Ohiturari jarraituz, Gatzagako ume, guraso eta herritar asko baserriz baserri kantuan joango dira Gabon egunean. Aurten domeka da, eta bizkorrago egingo dute buelta herrira, meza osterako ailegatzeko.

**EGUERDIRAKO HERRIA GIROTZERA**

Gurel guraso elkarteak antolatuta, aurten ere egingo dute baserrietatik bueltatxoa abenduaren 24an. 50en bat lagun elkartzen dira trikitilariekin batera Gatzagako Olentzeroren inguruan, eta autobus txiki bat ekartzen dute automobil askorik ez ibiltzeko atzera eta aurrera: "Guztiok ez gara sartuko autobusean, baina umeak, behintzat, elkarrekin joango dira", azaldu digu Gurutze Orbegozok, Gureleko presidenteak.

09:00etan elkartu eta Olaun aldean hasiko dira kantuan. Handik Dominaga baserrira egingo dute –eguraldi ona badago oinez– eta gero Kaminero etxera: "Hamarretakoa izaten dugu han, eta jateko asko ateratzen digute", dio Orbegozok. Autobusean Arlabandik Arabarantz egingo dute: Arrikrutz, Inurrieta, Gure Ametsa eta Gatzagaindik pasatuko dira, eta, bukatzeko, Goierri aldeko baserrietara. Bide batez, Udalak argitaratutako 2007ko egutegia eroango dute baserri guztietara, Arrikrutz eta Katategi baserriak dituena.

"Aurten domeka da, eta baserrietako bueltatxoa bizkorrago egiteko asmoa daukagu. Izan ere, meza bukatzerako herrian izan gura dugu, eta herriko bazterrak girotu", argitu du Orbegozok. Eguna borobiltzeko Toki Eder elkartean egingo dute bazkaria ume, guraso eta gainerakoek.

**EGURALDIA** > ELURRAREN ZAIN

# Gatz lantegian gordeta daukaten traktorea gertu dago elurra kentzen hasteko

Udazkenean ez du elurrik egin, baina neguari elur usaina dario, eta Gatzagan gertu daukate paladun traktorea

M.A. > GATZAGA

Ez dakigu urtea bukatu aurretik elurra iritsiko den gure herrietara, baina neguko sarrerari elur usaina dario. Elurra polita da lehenengo egunetan, baina arazoak ere eragiten ditu, eta gatzagarrek oso ondo dakite. Hori horrela, Udalak gertu dauka paladun traktorea lanean hasteko.

**ERREPIDEAK ALDUNDIARENAK**

Errepide nagusien ardura –bai Arlaban, bai Gatzagatik pasatzen da– Aldundiarena da elurra egiten duenean. Hark ekartzen ditu elurra kentzeko makinak, eta dagoeneko berotzen jarrita ditu: "Esan didate egunotan bi makina ikusi dituztela Gure Ametsan", adierazi digu Joxerra Perez alkateak. Noizbait izan dituzte arazoak Aldundiarekin –herrirako bidea zabaltzeko berandu etorri–, baina azken urtean oso ondo egin zutela lan argitu digu alkateak.

**BASERRIAK UDALARENAK**

Errepideak Aldundiarenak dira, baina baserrietara doazen bideak eta herria bera Udalak garbitu behar ditu. Horretarako traktore bati pala jartzen diote: "Aldundiak oparitu zigun pala baldintza batekin: herriaren eta baserrien arduradun geu izatea", dio Jon Sasiain zinegotziak. Gatz lantegian dago gordeta aipatutako traktorea, baina behar izanez gero edozein momentutan erabiltzeko gertu dago. Alkateak esan digu beti izaten dela kexaren bat edo beste baserritarren aldetik: "Baina elurra egin duenetan baserri guztietarako bideak zabaldu izan ditugu egunean zehar; hori bai, lehenengo orduan ezin gara iritsi guztietara". Zalantza barik umeek gustura hartuko lukete Gabon opor hauetan elurra.



**ESKALADA** > PATXI USOBIAGA, MUNDUKO KOPA TXAPELDUNA

# “Honek guztiak balio badu herri denetan boulder bat eraikitzeko, oso ondo”

Hilabete pasatu da Patxi Usobiagak Eslovenian Munduko Kopa erdietsi zuenetik

Orain arte izan ez duen oihartzuna izan du medioetan; horretara ere hasi da ohitzen




**PROBATZEN** Bideak nola izango ziren erabakita, Patxi Usobiaga zailtasuna neurtzeko eskalada saioa egiten, Uarkape pilotalekuan. X.U.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Denbora beharko du Patxi Usobiagak (Eibar, 1980) Kranj izeneko herria ahazteko. Flavio Crespi eta Tomas Mrazek atzean utzita, bide gogorrenak igotzeko baliatu den hatz berdinekin ukitu zuen zerua, bakarrik horrenbeste lan egin eta gero onenek jasotzen duten errekonozimendua. Munduko Kopa etxean, opor sasoian, Eibarko eskalatzailea Arrasaten izan zen joan den egubakoitz eta zapatuan, boulder txapelketa prestatzen laguntzen. Hala, sasoi batean entrenatzaile izandako Joxean Mulasek gonbidatuta –edo lepotik helduta– Usobiaga gustura ibili zen Arrasaten, bere saltsan, beste batzuendako lanean.

Gauzak horrela, txapelketaren gainean hasi gara berbetan: “Kontatu didate Marchenak bakarrik egin zituela bide guztiak. Hasieran guk ere pentsatu genuen bide gaitzak egin genituela, baina asmatu egin genuela esango nuke, ikuskizuna eman zutelako, eta hori zen helburua. Gainera, beste bi eskalatzaile gutxigatik ez ziren goraino iritsi”. Horrelakoetan psikologiak duen garrantziaz ere egin ditu berba Usobiagak: “Buruak izaten du garrantzia handia, moralki zelan zauden. Marchenak lehenengo saiakeran egin zuen lehenengo bidea eta horrek morala eman zion. Hala, gainontzeko finalistak nekatuago iritsiko ziren hurrengo ariketetara”.

**KOMUNIKABIDEETAN**

Arrasateko txapelketa alde batera utzita, Munduko Kopa irabazi duenetik komunikabideetan izan duen oihartzunaren gainean ere egin dugu berba Usobiagarekin. Besteak beste, joan den domekan Lau t'erdiko Txapelketako finalean ikusi genuen, eta badakigu Reala eta Athletic elkar joka dabiltzala ohorezko sakea non egingo duen erabakitzeko: “Ez nuke esango, baina egia da momentu honekin gozatzen nabilela. Sekula ez dut horrelakorik egin, eta orain ahalegintzen nabil komunikabide guztiei arreta eskaintzen, euren galderei erantzuten... Hori bai, eskerrak oporretan nagoen. Azken baten, eskaladarendako ona dela uste dut, irudi positiboa emateko, eta gainera, kirol horrekin zorretan nagoela sentitzen dut, gauza asko eman dizkidalako. Hala, honek guztiak balio badu herri bakoitzeko boulder bat eraikitzeko, ni pozik geratuko naiz”.

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

Servimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak
FAGOR etxetresna elektrikoak
• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak
Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

GRUPO GEM
GRUPO GEM osatzen dugunok Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

TOYOTA EuskoAuto
BERGARA
20570 Olabarrena, z/g
Tel.: 902 34 52 45
www.toyota.es
toyota@euskoauto.com

HYUNDAI Mendauto
ARRASATE
20500 San Andres, 10D
Tel.: 943 77 21 00
www.mendauto.com
hyundai@mendauto.com

Giauto
GIPUZKOA AUTOAK
clientes@giauto.es

OPEL
BERGARA
20570 Olabarrena
Tel.: 943 76 33 44
ARRASATE
20500 San Andres, 10D
Tel.: 943 77 30 10

CHEVROLET
BERGARA
20570 Olabarrena, z/g
Tel.: 902 34 52 25

SAAB
BERGARA
20570 Olabarrena, z/g
Tel.: 943 76 33 47

> FRONTENISA

### Finalak jokatuko dituzte, bihar, Zubikoa kiroldegian

Bihar zapatua, hilak 23, jokatuko dituzte Oñatiko kiroldegian Frontenis Txapelketako finalak. Lehenengo partidua hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko izango da. 10:30ean hasita, Del Riok eta Barcalak Etxanizen eta Zufiaurren kontra neurtuko dituzte indarrak. Gero etorriko da finala, 11:30ean. Kepak eta Vallejok Rodriguez eta Sierra izango dituzte aurrean. Sariak banatuko dituzte amaieran.

> GAZTE MAILA

### Reala, Bergara, Eibar eta Aloña Gabonetako futbol txapelketan

Abenduaren 29an, 30ean eta 31n egingo dute Bergarako gazte mailako Gabonetako 17. txapelketa.

Bergarak eta Realak estreinatuko dute txapelketa, abenduaren 29an, 17:00etan. Hilaren 30ean, berriz, Eibarrek eta Aloña Mendik jokatuko dute (17:00). Finalistek hilaren 31n erabakiko dute txapelketa dute, 16:00etan hasita. Agorrosinen jokatuko dituzte partidu guztiak.

**FUTBOLA** > GABONETAKO NESKEN TXAPELKETA

# Debagoieneko selekzioa, Reala eta Eibar lehiatuko dira bihar Aretxabaletan

Arizmendik antolatuta, hiruko torneoa egingo dute bihar goizean (10:00) Ibarran

Ez da Gabonetarako neskendako prestatu duten txapelketa bakarra izango




**AURKEZPENA** Ezkerretik hasita Asier Muxika, Jaime Barriuso, Txaro Iraeta eta Iñigo Dominguez. X.U.

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

"Arizmendi Ikastolak emakumeen kirola du ardatzetako bat, eta hori bultzatzeko gabiltza ahalegina egiten". Arizmendiko zuzendari Txaro Iraetaren berbak dira horiek, eta Gabonetarako antolatu dituzten hitzorduek egiaztatzen dute hori horrela dela, orain arte egon den hutsunea betetzeko asmotan dabiltzala. Hala, bihar, hilak 23, 10:00etan hasiko duten hiruko torneoa izango da hitzordu garrantzitsuenetakoa.

Txaro Iraeta bera, Aretxabaletako kirol teknikari Asier Muxika, Eibarko presidente Jaime Barriuso eta Realeko emakumeen taldeko entrenatzaile Iñigo Dominguez izan ziren torneoaren aurkezpenean.

Ikuskizun erakargarria izango da, Superligan eta Nazional Mailan dabiltzan Reala eta Eibar ikustearekin batera, Debagoieneko nesken taldeetatik egindako selekzioa ere jarraitu ahal izango delako, eta etxeko neskak kontrario handien kontra zer egiteko gauza diren ikusi.

Lehen esandako moduan, baina, ez da hitzordu bakarra izango. Hala, hilaren 29an kadete eta infantil mailako neskek Futbol8ko txapelketa egingo dute Almenen (09:30ean hasita). Eta egun berean egingo dute, baita ere, nesken areto futbol txapelketa; hori ere Almenen.

2007

Urtea sasoian amaitu
eta berria bizitzeko gogotsu
kontuan izan eta gogoratu
behar dela **osasuna zaindu**



Jauzi, bira, korri edo makurtu
**mugitzeko ilusioa** behintzat ez galdu
Kirol zerbitzuetatik zuek guztiok animatu
eta **gabon egun hauetarako zoriondu**

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua




Amets | Boliñete | Gure Leku | Itzala | Plus Ultra

Bengoa | Branka | Iamai | Monte | Rumba




**> IRAKURKETA**
*Neguko Gida*, Debagoieneko udal liburutegien eskutik **> 45**



**> ELKARRIZKETA**
*La ruleta de la suerte* saioan eta Urtezahar gauean, Fernandezekin **> 52**

**> EKAITZ OJANGUREN**
Gabonen ostean, Mexikora alde egingo du Jaurlaritzako beka bati esker: Gasteizko enpresa batek Mexikon egiten duen jarduna aztertuko du Ekaitzek **> 50**




Jardunek antolatuta, Julio Ibarrak eta Iñaki Eizmendik hitzaldia egin zuten Bergaran

Euskaraz ez jakin arren seme-alabei lagundu ahal izateko urratsak landu zituzten

Eguazteneko hitzaldian, emakumezkoak izan ziren nagusi

# Euskararekiko jarrera pizten

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*No sabemos euskera... ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos?* izenburuko hitzaldia egin zuten Julio Ibarrak eta Iñaki Eizmendik eguaztenean, Bergaran. ETBko *Teleberri* saioko aurkezle ohiak eta Lasarteko Ttakun euskara elkarteko teknikariak 30 lagun inguru bildu zituzten kultura etxean. Entzuleen artean emakumezkoak ziren gehienak, nabarmen gainera.

Hitzaldian zehar soziolinguistikako azalpenak eta esperientzia pertsonalak tartekatu zituzten Ibarrak eta Eizmendik. Bizkaiko Diputazioko euskara zerbitzuak kaleratutako *Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua* da hitzaldion oinarria. Gurasoek izan ditzaketen kezkak argitzea da helburu nagusia. Euskaraz ez dakitenen gurasoen kasuan, eskolatik kanpo egiten den lanaren garrantzia azpimarratu zuen Eizmendik: "Urte osoa kontuan hartuta, etxean eta aisialdian euskaraz egiten ez duten umeen kasuan, denbora osoaren %15ean bakarrik egiten dute euskaraz, eskolan. Beraz, ez da bakarrik eskolaren esku utzi behar umeen euskalduntzea. Etxean egiten denak berebiziko garrantzia du eta euskararen aldeko jarrera positiboa landu behar da. Erabilera, ezagutza eta motibazioa elkarrekin doaz eta hirurak *elikatu* behar dira, etxean hasita".

**JARRERA POSITIBOAK**

Julio Ibarrak azaldu zuenez, berak erdara nagusi zen giro baten ikasi zuen euskara. "Elebidun izatea posiblea eta aberasgarria da. Askotan aurreiritzi bat egoten da euskara ez ikasteko, euskara ez dela baliagarria alegia. Tolerantzia hitza modan dagoen honetan, hainbat hizkun-





**HITZALDIA** Gurasoei zuzendutako hitzaldia egin zuten Julio Ibarrak eta Iñaki Eizmendik eguaztenean Bergaran. EDU MENDIBIL

## Euskararekiko jarrera pizten

(43. orrialdetik dator)
tzatan mintzatzeko gai dena toleranteagoa da. Txikitan, gainera, askoz errazagoa da bi hizkuntza batera nahastea, umeek erraztasun handiz lantzen dute *muskulu* hori eta naturaltasun osoz egiten dute hizkuntza batetik besterako jauzia. Gure etxean ere hala gertatzen da: umeei euskaraz berba egiten diet nik, eta nire bikotekideak gazteleraz, hark ez dakielako euskaraz. Eta modu naturalean berba egin daiteke hori. Ez dago itzulpen beharrik, denok garelako gauza umeekin berba egiten dugunean hizketaldiaren haria jarraitzeko".

Espainiako Hezkuntza Ministerioaren datu batekin elebitasunaz dagoen uste oker bat ezeztatu nahi izan zuen Ibarrak: "Aznar agintean zegoeneko datuak dira eta garantia osoa dute..., elebitasunaren aldekoak baitira: Hezkuntza elebiduna nagusi zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa probintzietan, EAEn, eskola porrota, batez beste, %14koa zen sasoi hartan. Nafarroan, gaztelera nagusi zen zonaldeetan, %18koa eta Espainiako Estatuko media, aldiz, %29koa. Ez dugu inolako beldurrik izan behar elebitasunaren aurrean".


**BOLIVIATIK** Marco Antonio Villagomez.

Era berean, gaur egun aurki daitekeen eskola eta aisialdi materialaren kalitatea goraipatu zuen: "Lehen ez zegoen horrenbeste eta gainera gaurkoak kalitate handia du: jokoak, informatikako gauzak... Era berean, euskarazko komunikabideei arreta eskaintzea lagungarria izaten da. Modu batean edo bestean euskara *entzutea* garrantzitsua da".

**BOLIVIATIK BERGARARA**

Marco Antonio Villagomez boliviarra izan zen eguazteneko hitzaldian izan zen gizon bakarrenetakoa. Boliviatik etorri berria, euskara ikasten ari da Bergaran eta eguazteneko hitzaldira 10 urteko semearekin joan zen: "Oso hitzaldi interesgarria iruditu zait. Azken baten, interesa, gogoa izatea da beste hizkuntza bat ikasteko lehen urratsa. Emaztea orain dela zazpi hilabete etorri zen Bergarara eta ni iritsi berria naiz. Euskara ikasten nabil, astean bi egunez, komunikatzeko aukerak zabalduko dizkidalako eta hobeto integratzeko giltza delako. Egia esateko, Bolivian ez neukan euskararen berririk baina poliki-poliki banoa hemengo errealitatea eta euskara ezagutzen. Sorpresa atsegina izan da".


**ELKARREKIN** Maiatzean hasi ziren hitzaldiak egiten Ibarra eta Eizmendi. E.M.

## Etxeko lanekin umeei zelan lagundu eta Xabier Paia bertsolariaren amaren eredua

*Ez dakit euskaraz. Nola lagundu ahal diet seme-alabei eskolako lanak egiten?* edo *Ez dut euskaraz ondo hitz egiten. Euskaraz egin behar diet seme-alabei?* bezalako galderak lantzen dituzte Julio Ibarrak eta Iñaki Eizmendik, entzuleekin batera. "Etxeko lanen kasuan, irtenbiderik onena seme-alabei euskaraz entzutea eta behar izanez gero gaztelaniaz laguntzea izan daiteke", dio Eizmendik. Jarrera positiboen garrantzia azpimarratu zuen behin eta berriz. Ibarrak Xabier Paia bertsolari bizkaitarraren kasua ekarri zuen gogora: "Haren amaren jarrera txalogarria da. Zenbat bertsolari txapelketatara eramango zuen semea, euskara jakin barik. Eta semeak Bizkaiko txapela jantzi zuen domekan. Txapelketa irabazita, Paiak amari eskaini zion bertsoa benetan hunkigarria izan zen, negar egitekoa". Hurrengo hitzaldiak urtarrilaren 16an (gazteleraz) eta 23an (euskaraz) egingo dituzte, Eibarren. Urtarrilaren 23koa euskaraz egingo duten lehenbiziko hitzaldia izango da.






**MUSIKA** > ROCK ETA FOLK KONTZERTUAK GABONETAN DEBAGOIENEAN

# Sex Museumena izango da Gabonetako ibarreko rock hitzordu garrantzitsuena

Sex Museumek 11. diskoa aurkeztuko du Arrasateko 3.60 aretoan

Gaur, egubakoitza, Hora Zulu, Virgen eta Liquid Sun taldeak arituko dira Jamen

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Gaur, egubakoitza, Inferno Rock Tour bira helduko da Bergarako Jam aretora. Hora Zulu, Virgen eta Liquid Sun taldeek Espainiako Estatuko bira egiten dihardute eta Bergaran egingo dute Euskal Herriko kontzertu bakarra, 22:00etan. Hip-hopa, metala eta hardcorea egingo dituzte, besteak beste.

Horrez gain, egun berean, hilaren 29an, Pantxoa eta Peio bikoteak kontzertua egingo du Jamen. Jardunek antolatu du emanaldi hori, eta bestelako doinuak eraman gura ditu herrira.



**ROCKAREN IKURRAK** Madrilgo Sex Museum taldeak izen handia eta zuzeneko hobeak ditu. PAOLA BRAGADO

**ROCKAREN ERREFERENTEA**
Hilaren 29an ez da aspertzeko aukerarik izango. Arrasateko 3.60 aretoan Madrilgo Sex Museum eta Arrasateko Radio Wings arituko dira, 23:00etan. Sex Museum taldeak 21 urte bete ditu eta 11 disko kaleratu izan ditu orain arte. Garagea, hard-rocka eta bestelako doinu gogorrak lantzen ditu. Are gehiago, Espainiako Estatuko talde garrantzitsuenetako bat da.

Eurekin batera, Arrasateko altxor ezkutua, Radio Wings.

**DANBAKA**

## Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

| | Taldea | Herria | Botoen |
|---|---|---|---|
| 1 | LITTLE, LITTLE, MUCH | ARRASATE | %17,85 |
| 2 | DRAKES | OÑATI | %17,82 |
| 3 | ANAL BAG | ARRASATE | %11,45 |
| 4 | ABY-KEM | BERGARA | %9,45 |
| 5 | KLAKSON | ANTZUOLA-ZUMARRAGA | %8,38 |
| 6 | RAUL LASA | ARRASATE | %8,14 |
| 7 | SCAM | BERGARA | %4,65 |
| 8 | UNNËA | OÑATI | %4,62 |
| 9 | THE 5 TWISTERS | ARRASATE | %4,03 |
| 10 | LOS CRETINOS | ARRASATE | %3,00 |
| 11 | OZEN | ARRASATE | %1,90 |
| 12 | BELCEBLUES | BERGARA | %1,69 |
| 13 | YOTOX | BERGARA | %1,62 |
| 14 | IGOR | ARETXABALETA | %1,54 |
| 15 | MALENKONIA | OÑATI | %1, 28 |
| 16 | MATX | ELGETA | %0,97 |
| 17 | MAHASTER RIVER | BERGARA | %0,64 |
| 18 | INALECTRIK | ARETXABALETA | %0,31 |
| 19 | JIM TNT | ARRASATE | %0,29 |
| 20 | AZKAITER PELOX | BERGARA | %0,27 |

DANBAKA

**KULTURA** > ARGITALPENEN GAINEKO NEGUKO GIDA

# Argitaratutako nobedadeak batu dituzte Neguko Gida-n udal liburutegiek

Debagoieneko udal liburutegien arduradunek azken argitalpenen gaineko gida landu eta kaleratu egin dute

**I.B.** > DEBAGOIENA
Aurten ere Debagoieneko udal liburutegiek argitalpenen gaineko Neguko Gida kaleratu dute. Ibarreko zortzi herrietako liburutegiek elkarlanean egin dute.

Udal liburutegiek urte asko daramate elkarlanean udarako *Biblioporrak* gida kaleratzen. Horren ostean, orain dela pare bat urte, Debagoieneko Mankomunitateak neguko argitalpenen gaineko gida egiteko laguntza eskaini zien.

**KALITATEZKO NOBEDADEAK**
Udal liburutegiek hainbat liburu, disko eta film aukeratzen dituzte. Horretarako, arduradunek ekoizpen horiek guztiak irakurri, entzun eta ikusi egiten dituzte. Horrekin batera, hedabide espezializatuetan argitaratutako kritika eta iruzkinak ere ikuskatzen dituzte.

**ADINAREN ARABERA BANATUTA**
Liburuak bost multzo nagusitan banatu dituzte, adinaren arabera, hain zuzen ere: 0 urtetik aurrerakoak, 6 urtetik aurrerakoak, 9 urtetik aurrerakoak, Gazteak eta Helduak.

Horrez gain, gidaren beste atal baten ikus-entzunezkoak, musika eta filmak ere kontuan hartu dituzte.

Aurtengo nobedadeak eman dituzte ezagutzera, eta kalitatea ere aintzat hartu dute.




**NEGUKO GIDA** Azala. GOIENKARIA

Ekin
Emakumeak • AED
Pablo Uranga 4 behea - 943 79 83 70

Argazki Erakusketa
"Etorkinak eta Kultura aniztasuna"
Abenduak 26tik 29ra
*Arrasateko Monterron Kultur Aretoan*

Emakume Etorkinen Jaia
Abenduaren 30ean
Arratsaldeko 18:30eatik aurrera
*Arrasateko Erdiko Plazan*

*Animatu eta etor zaitez!*

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- S. Antonio 50 m². Berritua.
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Martoko 83 m². Prezio ona.
- Simon Arrieta 80 m² Ondo.
- Ibargarai 87 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

***Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon.2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.***

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA:
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Oso ondo.
- Bolu 100 m2. Ondo.
- Duplex berria. 72 m² + 34 m².
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Artekale 70 m². Oso ondo.
- Masterreka duplexa 170 m².
- Juan XXIII plaza 80 m². Berrituta.
- Masterreka 79 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- Mugertza. Duplex berria.
- Martoko 93 m². Berrituta.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**LORAMENDI KIROLAK**

Neska bat behar da dendan lan egiteko. Euskaraz hitz egitea ezinbestekoa. Interesatuak etorri San Andreseko dendara datuak uztera.

**ANGIOZAR**

Ortzi erretegia alokatu egiten da.

943 78 22 80
665 72 24 46

**BERGARA**

Haur parkea eskualdatu egiten da.
943 76 94 52

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Antigua auzoan etxebizitza salgai. 72 metro koadro. Berritua. Hiru logela, berogailua. Jantzia. Eguzkitsua. Telefonoa: 685 70 41 10.

**Antzuola.** Duplex berria salgai bi autorendako lekua duen garajearekin. Bi komun, hiru logela, egongela eta bi balkoi. Berehala bizitzera joateko gertu. 653 71 54 16.

**Aretxabaleta.** Loramendi kalean. 77 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi balkoi eta ganbara. Berogailua eta igogailua. Telefonoa: 653 47 50 62.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** salgai herri erdi-erdian. Egongela, sukaldea, logela bat, bainua, trastelekua, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu 16:00etatik aurrera. Telefonoa: 670 55 87 41.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza salgai. Jantzita. Igogailuarekin. Hiru logela. 605 76 36 24.

**Arrasate.** Garaje plaza salgai (14 m²) Usaetxe plazan. Telefonoa: 665 71 40 34.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, bista onekin. Pisu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

**Bergara.** Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela, balkoia eta ganbara. Berogailua dauka. 943 28 76 36.

**Bergara.** Apartamentua Zubietan. 50 m². Erdi berrituta. Ruben. 679 45 57 62.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Solairu altua, igogailuarekin. Deitu telefono honetara: 620 18 59 06.

**Bergara.** San Lorentzon apartamentua salgai. Bi logela, saloia, sukaldea, komuna eta terraza handia. Garajea aukeran. Telefonoa:658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Bergara.** Simon Arrieta kalean, 80 metro koadroko etxea salgai. 2 logela ditu, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Banakako berogailua du, eta baita igogailua ere. Garajea aukeran. 664 73 49 60.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Bigarren solairua, igogailuarekin. Hiru logela. Ganbara. Aukera ona. Deitu 13:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik aurrera. Telefonoa: 946 81 71 97.

**Eskoriatza.** 90 m². Hiru logela, bi bainugela, bi terraza, trastelekua eta garaje itxia. Berogailua eta igogailua ditu. Jantzia. 607 43 84 55.

**Eskoriatza.** Berritua eta jantzia. 90 m², lau logela, bi bainugela, bi terraza eta berogailua. 636 57 76 13.

**Gasteiz.** Logela bi, egongela,sukaldea eta komun bat. Igogailua eta ganbara. Hiru urte direla guztiz berritua. Solairu altua eta argitsua. Berogailu indibiduala. Jantzita. Hiri erdian (Poliklinika eta Abenida artean). 629 75 54 22.

**Legutianon** etxebizitza salgai. 210.000 euro. Negoziatu egin daiteke. 945 45 52 68.

**Oñati.** 70 m kuadroko apartamentua. garajearekin. Bidebarrieta auzoan. 697 59 48 30.

**Oñati.** Etxea salgai, leku eta egoera oso onean, sukaldea, egongela, hiru gela, bi bainu eta ganbara. Garajea aukeran. Telefonoa: 635 70 83 11.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Euskadi etorbidean. Lehen solairua. Eguzkitsua. Guztiak kanpoaldera ematen du. 645 72 42 42 edo 945 14 18 17.

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 metro koadroko garaje itxia aukeran. 656 74 80 47.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Apartamentua** errentan Cauteret erdialdean, Frantziako Pirinioetan. 4-6 lagunendako aproposa. 625 70 61 91.

**Arrasate.** Ferrerias kalean pisua alokatzen da. 669 66 54 99.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela ditu. Telefonoa: 943 77 13 77.

**Bergara.** Logela bat alokagai, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Telefonoa: 616 14 72 67 edo 657 01 18 16.

**Vera (Almeria).** Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote gazte batek etxebizitza errentan hartuko luke. 652 70 33 52.

**Bergara.** Hiru laguneko familia batek etxebizitza edo gela bat hartuko luke errentan. Telefonoa: 649 63 23 24.

**Debagoienean** etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 685 79 21 56.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasaten** (14m²), Usaetxe plazan. Telefonoa: 665 71 40 34.

**Bergara.** Zapelaitz azpian. Telefonoa: 943 76 40 05.

### 202. EROSI

**Bergara.** Erdialdean garajea erosi edo errentan hartuko nuke. 616 72 43 48.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Sagastin garajea errentan ematen da. Telefonoa: 650 55 44 98.

**Arrasate.** Garajea errentan ematen da Uribe auzoan. Telefonoa: 677 53 68 46.

**Bergara.** Ibargarai kalean. 16 metro koadro. 943 76 74 19.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bulegoak alokagai Otaloran 18an, Uarkapeko arkupetan. 638 17 93 63.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna bat edo jatetxe bat jartzeko lokal bat hartuko nuke errentan. Telefonoa: 665 75 52 11.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 23 urteko mutila gertu zerbitzari lanak edo beste lan batzuk egiteko. 695 78 63 11 edo 686 62 03 56.

**Arrasate.** Emakume erizaina gertu pertsona nagusiak gauez edo egunez zaintzeko. Orduka garbiketa lanak egiteko ere gertu. 629 94 15 72.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Lanaldi osoa egiteko prest. Esperanza. Telefonoa: 678 80 96 01.

**Arrasate.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Lan egin behar duen etxean bizitzeko ere prest dago. Liceth. Telefonoa: 659 34 68 05.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. 671 33 75 63.

**Bergara.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Eskarmentu handikoa. 618 93 59 29.

**Bergara.** Neska boliviarra goizez lanerako gertu. Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. 657 71 51 94.

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldez lan egingo luke. 628 82 96 56.

**Debagoiena.** Haur Hezkuntza ikasketak egiten diharduen neska gazte bat arratsaldez umeak zaintzeko gertu. Eskarmentua. Maddi. 652 77 89 15.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo beste edozein lan serio egiteko gertu. 610 93 49 71.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 664 66 12 49.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da tabernari edo zerbitzari lanak egiteko, baita garbiketa lanak egiteko ere. 676 82 24 31.

**Emakume** euskalduna umeak zaintzeko gertu. 630 86 84 32.

**Emakumea** gertu, etxean bertan bizi izaten, lanak egin, adinekoak edo haurrak zaindu, nahiz ostalaritzan (sukaldean) lan egiteko. Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 943 79 81 01 edo 659 36 88 33.

**Oñati.** Esperientziadun pertsona prest ostalaritzan lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 606 29 81 97.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Matematika,** kalkulu, ingeles, mekanika eta fisikako laguntza eskolak ematen ditut. Batxilergo eta unibertsitate mailan. Marco. 649 63 23 24.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A-3** kotxea salgai. 699 49 14 37.

**Autokarabanak** salgai. Hymer, 6 lagunentzakoa; Citroen C-25 diesela; Knauss, 6 lagunentzakoa; Fiat Ducato 1.9 turbodiesela; Weinsberg, 6 lagunentzakoa; Fiat Ducato 2.5 TDI. 657 79 09 58.

**BMW** 530 diesel. Telefonoa dauka instalatuta. 655 74 34 14.

**Citroen** ZX 1.600. 90.000 km. 3.000 euro. Deitu telefono honetara: 650 56 87 79.

**Citroen C5** autoa salgai. 2.0 eta 16V. 4 urte eta 36.000 km. 11.500 €. Deitu telefono honetara: 661 23 48 07.

**Fiat** Bravo. Prezio ona. Deitu telefono honetara: 943 76 15 76.

**Furgoneta** salgai. Iveco Dailly Unijet markakoa. 40.000 km. 3.500 Kg. 659 44 75 08.

**Honda 250** quada salgai. 2002koa. Oso egoera onean. Telefonoa: 652 70 57 66.

**Karabana.** Knaus 550. 2006koa. 6 plaza. Aire girotua eta estrak. 17.000 euro. Deitu telefono honetara: 652 77 73 27.

**Peugeot 206.** Urdina, gasolina, 30.000 km. Deitu telefono honetara: 652 75 50 11.

**Peugeot** Boxer Isotermo salgai. 943 79 34 23.

**Seat 127** salgai. Egoera onean. 943 76 46 90.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Hamsterrak** opari egiten ditut. 609 51 93 67.

**Kalean** aurkitutako txakurkumea. Laborari eta euskal artzain nahasketa. Arra. Deitu telefono honetara: 617 24 29 95.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Aspes** hozkailu konbia salgai. 699 72 48 91 edo 680 44 91 61.

**Bi gitarra** oso egoera onean. Lehena, Epiphone Les Paul Custom, Gibson pastillak aldatu berri ditu (500 euro). Bigarrena, Fender Stratocaster USA (700 euro). Telefonoa: 635 74 09 70.

**Intxaur ekologikoak** salgai. Kiloa hiru eurotan. 943 78 61 92 edo 943 76 64 65.

**Karabana** salgai Bañaresko kanpinean. Sukaldea aparte dauka. 1.200 euro. Marian. Telefonoa: 669 78 69 63.

**Koltxoia** eta somierra salgai, hankekin. 90x180. Deitu telefono honetara: 605 72 64 43.

**Masajeak** emateko mahaia salgai. Ia erabili gabe. Altueran erregulagarria eta tolesgarria. Larru beltzezkoa. 300 euro. Deitu telefono honetara: 943 79 01 12 edo 680 35 04 .

**Masajeak** emateko esku-ohea salgai dago. Larru beltza. 150 euro. Deitu telefono honetara: 665 70 41 13.

**Sofa.** Ia berria dagoen sofa salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 669 49 61 62.

**Sony telebista.** 32 hazbete eta 100 hertz dituen telebista panoramikoa prezio interesgarrian saltzen dut. Kristalezko eta aluminiozko altzaria barne. Deitu telefono honetara: 607 63 48 88.

**Sukalderako mahaia** salgai. Neurria: 90X90. Guztiz zabaltzen da. Deitu telefono honetara: 617 17 15 88.

**Trikitia** salgai. Beltza. 1.200 euro. 605 77 14 67.

### 803. EMAN

**Arratoi-txakur bat** ematen da. Urtebetekoa. 943 76 64 65.

### 806. GALDU

**Bergara.** Astelehenean 400 euro galdu nituen Mariaren Lagundiaren inguruan. 943 76 39 93.

**Fujifilm** kamera digitala galdu nuen azaro bukaeran Aretxabaleta edo Arrasaten. Deitu telefono honetara: 665 71 46 26.

**Oñati.** Errekalde auzoan edo Moiua kalearen inguruan giltzak galdu ditut. 650 27 05 78.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Uretako kefir-a duen norbaitekin harremanetan jarri nahi nuke. 695 78 52 49.

**Ford Escort** autoari kolpea eman zion norbaitek zapatu gauean, hilak 9. Arrasateko Grupo San Juanen izan zen hori. Inork ezer ikusi badu, dei dezala telefono honetara, mesedez. Deitu telefono honetara: 635 74 09 70.

# LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

**KAZETARIA**

kontratatu nahi du bertako hedabideetan aritzeko

Eskatzen da:
- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:
- Lan kontratua.
- Etorkizun handiko proiektuetan partaide izatea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculuma, 2007ko urtarrilaren 15a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo admi@goiena.com

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

VIII. URTEURRENA

## Lorea Astondoa Altuna

1975.10.07 / 1998.12.21

*Egunean zehar eguzkiak*
*berotzen dituen moduan*
*gure etxe eta bizitzak,*
*gure oroimenean*
*zu beti izango zara*
*distiratsu dagoen argi goxo eta beroa.*
*Laster arte.*



Aramaioko lagunak.
Aramaion, 2005eko abenduaren 22an.

ESKELA

## Ariane Lowe Tabuenca

Norwichen (Ingalaterra) hil zen 2006ko abenduaren 5ean, 5 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak,*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan.*



Amaren lagunak.
Bergaran, 2006ko abenduaren 22an.

ESKELA

## Ariane Lowe Tabuenca

Norwichen (Ingalaterra) hil zen 2006ko abenduaren 5ean, 5 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak,*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan.*



Iban, June eta Miren.
Bergaran, 2006ko abenduaren 22an.

AIZKORRI

# Urtea ondo amaitzeko, mendi buelta egingo dute Aizkorrira

## Azken urteetan ohitura bilakatu da herritar askorendako Urtezahar egunez Aizkorrira igotzea

ARANTZAZU EZKIBEL

**Gurean ohitura bilakatu da urteko azken egunean Aizkorrira igotzea. Aurten ere, botak jantzi eta lagun mordoa igoko da 2006. urteari agur esatera.**

Urte zaharrari agur esan eta urte berria ondo hasteko, Aizkorrira igotzeko ohitura du jendeak gurean. Botak jantzi eta hotzari aurre egiteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuta, ehunka mendizale abiatuko da Urtezahar egunean Aizkorriko tontorrera.

Lagun artean ondo pasatzea izaten da helburua; ez da inolako lasterketa edo bestelako lehiarik egiten. Izan ere, jendeak jan-edana igotzen du eta Aizkorrin txanpainarekin egiteko topa. Urte berriari, amaitzear dagoena bezala izateko eskatu diote batzuek; beste batzuek, ordea, hobea izateko esperantza izango dute.



Oñatiko mendizale askok ospatzen du urteko azken eguna Aizkorrin. Goian, mendi hori, elurtuta. GOIENKARIA

**Ez da lasterketa edo bestelako lehiarik izaten; lagunartean ondo pasatzea da helburua**

**Egun berean, baina arratsaldez, San Silvestre lasterketa jokatuko da herriko kaleetan**

Oñatiko mendizaleez gain, inguruko herrietakoak ere izaten dira. Urte zaharrak izan dituen gorabeheren berri eman eta gorputzean hotza sartu aurretik beherako bidea hartzen dute mendizaleek. Izan ere, abenduaren 31n parranda egiteko ohitura dago.

### SAN SILVESTRE

Mendira igotzeko asmorik ez duenak, aldiz, badu beste aukera bat urtea ondo amaitzeko. Abenduaren 31n, San Silvestre lasterketa jokatuko da Oñatiko kaleetan. *2006 ixa 2007* leloarekin arratsaldeko bostetan emango zaio hasiera lasterketari. Korrikalariek herriari bi itzuli eman beharko dizkiote, guztira zortzi kilometro. Horren harira, antolatzaileek aditzera eman digutenez, proba aurrera ateratzeko jende beharrean daude. Hala, laguntza emateko prest dagoen edonork 662-52 03 51 telefonora deitu besterik ez dauka.

urrats 943533637
Podologia Zentroa



• Kiropodiak
• Azazkal inkarnatuak
• Oin diabetikoen ultzerak
• Garatxoak
• Miaketa biomekanikoak
• Neurrira egindako plantillak
• Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
• Silikonazko protesiak

R.P.S. 208/05

Bidebarrieta 20 • Oñati
**Ordutegia: 09.30etik 13.30era / 15.30etik 20.00etara.**

VIAJES ARABA
GRUPO BESAIDE Club de Viajes

*Ondo pasatu gabon jaiak!*



Lazarraga 3 • OÑATI
Tel.: 943 71 62 16 • Faxa: 943 71 63 58

kale inkesta

# Zer eskatuko diozu urte berriari?



**Markel Irizar**
Txirrindularia

Nik urte berriari osasuna eskatuko diot. Gure lanean oso garrantzitsua da lesiorik ez izatea; bestela, urte osoko lana pikutara joan daiteke-eta.



**Irantzu Elortza**
Kultura etxeko langilea

Fiskalak Egunkaria kasuan hartu berri duen erabakia azpimarratuko nuke; aurrera begira, auziak konponbidea izatea eskatuko nuke.



**Aitor Orueta**
Futbol entrenatzailea

Orokorrean osasuna eta zoriontsu izatea eskatzen dut. Bestalde, Udalari Oñatin kirol instalazio hobeak eta gehiago izateko eskatuko nioke.



**Antton Elortza**
Tabernaria

Oñatin, gauetan, udaltzaina jartzea gurako nuke. Izan ere, aurten, lapur asko ibili da herrian, eta hori ez da batere ona tabernari eta dendarientzat.



**Migel Angel Etxeberria**
Aurrezki kutxako langilea

Nik zoriontsu izatea eskatzen diot urte berriari. Zoriontasuna izanez gero, beste guztia daukazun seinale da: bai osasuna eta bai maitasuna.



**Aitor Biain**
Musikaria

Urte berrirako musika proiektu berriak gura ditut; onak izan daitezela. Baita ere proiektu berri guztiak gauzatzeko osasuna. Eta zuei, urte berri on!

## Aurtengo onenak

- Ugarkalden zozketatu diren etxebizitza sozialak eta datorren urterako iragarrita dauden zozketak
- Aparkaleku gehiago egiteko lanak aurrera doaz
- Oñatiko gazteendako zein gazteek eurek antolatu dituzten askotariko ekintzak
- Pake-Lekuko nagusien antzerki taldea

## Aurtengo txarrenak

- Autobus zerbitzu berrituarekin hainbat zerbitzuk okerrera egin du
- Herriko kaleak eta beste leku publikoak zikin egoten dira sarri
- Aurten ere, zirkulazio istripuen ondorioz bi gazte hil dira inguruko errepidean
- Dendari eta tabernariei lapurretak; denda batzuk itxi izana



Pake-Lekuko Ikusi-Makusi antzerki taldea. ARTXIBOA



Erdialdeko denda batzuk itxi egin dituzte. ARTXIBOA



ZELAIA

1970ean sortua

OÑATI

www.zelaia.net







Urte berri on!



Euskadi etorbidea 3 Tel.: 943 78 36 99



**Jose Arexolaleiba** eta **Maria Larrañaga** bergararrak 1946ko abenduaren 16an ezkondu ziren Santa Marina elizan. Elkarrekin 60 urte betetzen dituzten honetan, etxekoekin ospatuko dute. Zorionak, familiakoen partetik!



**Carmelo San Torcuato** eta **Mari Carmen Perez** bergararrak 1956ko abenduaren 29an ezkondu ziren Bergarako Santa Marina elizan. Urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria egingo dute senideekin. Zorionak eta muxu bat, familiakoen partetik!



Bergarako **Macario Lopez Vazquez** eta **Petra Valea de la Cruz** Tordesillasen (Valladolid) ezkondu ziren 1956ko abenduaren 29an. Urrezko ezteien ospakizuna familiakoekin egingo dute. Zorionak, seme-alaben eta biloben partetik!

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 85 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.**





**Enrike Nieto** eta **Divina Elvira** mendabiarrak 1956ko abenduaren 15ean ezkondu ziren. Urrezko ezteiak hilaren 16an ospatu zituzten seme-alaba eta bilobekin, Zumelaga jatetxean bazkaria eginda. Zorionak eta urte askotarako, seme-alaben partetik!

ESKER ONA

## Montserrat Moreno Rebanal

2006ko abenduaren 18an hil zen, 38 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko abenduaren 22an.

ESKELA

## Montserrat Moreno Rebanal

2006ko abenduaren 18an hil zen, 38 urte zituela.

*Zuekin gaude une latz honetan*
*eta gure samina adierazi nahi dizuegu.*

Arizmendi Ikastolako Gazteluondoko ikasle, guraso eta irakasleak.
Arrasaten, 2006ko abenduaren 22an.

ESKELA

## Montserrat Moreno Rebanal

Donostian hil zen 2006ko abenduaren 18an, 38 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,*
*baina betiko izango zaitugu*
*gure bihotzetan.*

Zure koadrila
Arrasaten, 2006ko abenduaren 22an.

ESKELA

## Montse Moreno Rebanal

2006ko abenduaren 18an hil zen, 38 urte zituela.



*Beti gogoan izango zaitugu.*

Arrasateko Udal Euskaltegia.
Arrasaten, 2006ko abenduaren 22an.

ESKER ONA

## Felisa Arana Ezpeleta

Aretxabaletan hil zen 2006ko abenduaren 16an, 85 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2006ko abenduaren 22an.

ESKELA

## Alazne Garcia Errasti

Arrasaten hil zen 2006ko abenduaren 15ean.

*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan*

Leintz Eskola Kirola
Arrasaten, 2006ko abenduaren 22an.

MEZA

## Iban Guridi Zaloña

Oñatin hil zen 2006ko abenduaren 12an, 32 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.
—
Haren arimaren aldeko meza bihar,
zapatuan, abenduaren 23an,
Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2006ko abenduaren 22an.

URTEURRENA

## Eugenia Etxebarria Urzelai

Arrasaten hil zen 2006ko urtarrilaren 7an, 93 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 7an,
12:30ean,
Arrasateko San Frantzisko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

IV. URTEURRENA

## Felix Barandiaran Zaldibar



Laugarren urteurreneko meza
domekan, abenduaren 31n,
12:30ean,
Eskoriatzako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | Zorraren seinale / Altzari hankaduna | | Iratzea / Leku horretatik | | Baino / IRUDIKO MENDIA | |
| | | | | | | | | |
| | | | Hornidura / Metak eginez | | | | | |
| Setati, tematsu / Hutsune bat hartu | | Hegazti mota / Berezitasun | | | | | | |
| | | | | Garraiobide / Egokia | | | | |
| Esne mamitsu / Pairakor | | | | | | ... egin, erabat ase / Gorputz atal | | |
| | | | | | | | | Oinarrizko edari |
| Tua botatzen / Oinazea | | | | | Helburu, xede / Iodoa | | | |
| | | | | Argi-izpi | | | | |

GOIENKARIA



## umore giroan

Kike Amonarriz

**EBA**

Neska-mutilek Ablitaseko bestetan ezagutu dute elkar. Gauerdian zeudela neskak bere etxera gonbidatu du mutila. Ohera sartzera doazela honela esaten dio mutilak neskari:

- Oraindik ez dakit zure izena, baina EBA deituko dizut.
- Zergatik? —neskak harriturik—.
- Nire bizitzako lehen emakumea zarelako.

Eta orduan neskak:

- Bada nik orduan Peugeot deituko dizut.
- Zergatik? –mutilak harriturik-.
- 406.a zarelako.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | | 6 | 1 | | | 9 |
| 3 | | 6 | 4 | | | | | |
| | 9 | | | | | | | |
| | | | 5 | | | 8 | | 2 |
| | | 5 | 2 | | 7 | 6 | | |
| 9 | | 2 | | | 3 | | | |
| | | | | | | | 4 | |
| | 5 | | | | 4 | 1 | | 3 |
| 7 | | | 1 | 8 | | | | 5 |

## hieroglifoa

Nork ekarri dizu oparia?




## hizki salda

Euskal erkidegoko bost politikari

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | I | M | A | D | R | A | Z | O |
| T | G | O | X | T | N | E | L | A |
| X | E | I | K | U | O | B | O | R |
| I | T | U | B | N | R | N | E | D |
| Z | O | R | S | A | D | L | I | A |
| A | L | I | E | M | R | I | S | N |
| N | E | R | R | A | S | T | I | L |
| Ñ | G | L | O | R | R | I | H | T |
| A | S | A | N | G | I | L | O | U |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | | B | | G | | B |
| (argazkia) | | | M | A | H | A | I | A |
| (argazkia) | | | | H | O | R | N | I |
| | T | | M | I | R | O | T | Z |
| B | E | T | E | | T | A | X | I |
| | M | A | T | O | I | | O | K |
| J | A | S | A | N | K | O | R | |
| | T | U | K | A | | I | T | U |
| M | I | N | A | | I | N | A | R |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 2 | 4 | 7 | 6 | 1 | 3 | 5 | 9 |
| 3 | 7 | 6 | 4 | 5 | 9 | 2 | 8 | 1 |
| 5 | 9 | 1 | 3 | 2 | 8 | 4 | 7 | 6 |
| 4 | 3 | 7 | 5 | 1 | 6 | 8 | 9 | 2 |
| 1 | 8 | 5 | 2 | 9 | 7 | 6 | 3 | 4 |
| 9 | 6 | 2 | 8 | 4 | 3 | 5 | 1 | 7 |
| 2 | 1 | 9 | 6 | 3 | 5 | 7 | 4 | 8 |
| 6 | 5 | 8 | 9 | 7 | 4 | 1 | 2 | 3 |
| 7 | 4 | 3 | 1 | 8 | 2 | 9 | 6 | 5 |

**Jeroglifikoa:** osabak
osab-ak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | I | M | A | D | R | A | Z | O |
| T | G | O | X | T | N | E | L | A |
| X | E | I | K | U | O | B | O | R |
| I | T | U | B | N | R | N | E | D |
| Z | O | R | S | A | D | L | I | A |
| A | L | I | E | M | R | I | S | N |
| N | E | R | R | A | S | T | I | L |
| Ñ | G | L | O | R | R | I | H | T |
| A | S | A | N | G | I | L | O | U |

## bono fotoa



**Oñatiko zein eraikinetan aurkituko dugu armarri hau?**

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..............................

..............................

IZEN-DEITURAK ..............................
TELEFONOA..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Foncalada ardo gorri ondua**
75 cl-ko botila

**2,49 €** 414 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
**TXARO LARRAÑAGA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Leintz Gatzaga.**


B - O - L - U
Harane Erreka 9. tel.: 943 76 72 91 . 20570 Bergara
押 忍 の 精 神
GIMNASIOA
B·O·L·U
Bolu Gimnasioak
Gabon zoriontsuak
opa dizkizue
SPINNINGA
AEROBOX
SHINKYOKUSHINKAI KARATEA
AEROBIKA / STEPA
MUSKULAZIOA
TONIFIKAZIOA
SASOIAN EGOTEKOA
PILATESA
SAUNA
KUOTA BAKARRAREKIN:
¥ JARDUERA GUZTIAK EGIN AHAL DITUZU
¥ NAHI DUZUN EGUN ETA ALDI GUZTIETAN
BERRITASUNA!
LARUNBATETAN ERE EMATEN DIRA ESKOLAK!
IKASTARO BERRIAK!
ARETOKO DANTZAK
SEVILLANAK
TAI-CHIA
EUSKAL-DANTZA
SABEL DANTZA
ERDITZE OSTEKO GIMNASIA
BIODANTZA

**Ekaitz Ojanguren** > Aretxabaletako akordeoi orkestrako kidea

# "Mexikora noa beka batekin; handik bueltan orkestran jarraitu gura dut"

Gabonak etxean igaro eta berehala egingo du alde Mexikora Ekaitz Ojanguren aretxabaletarrak (1983). Irailean eskuratu zuen Eusko Jaurlaritzako beka, eta beka horri esker Gasteizko enpresa batek Mexikon egiten duen jarduna aztertuko du. Pena apur batekin joango da, diskoa atera berri, Aretxabaletako akordeoi orkestra utzi egin beharko duelako.

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA

**Aretxabaletako Herriko Plazan egin dugu Ekaitz Ojangurenekin hitzordua. Hotz egiten du, akordeoia jotzeko zailtasunak izateko beste. Baina ez diogu horrelakorik eskatu. Nahiko pazientzia izan du, herritarrak begira egonda ere, erretratuetarako modelo lanak egiten. Ikasketen gainean hasi gara berbetan.**




**Soziologia ikasten hasi eta berehala nekatu zinen.**

Bai, lehenengo bi urteak Leioan egin eta gero, ikasgaiak baliozkotu eta Sarrikora pasa nintzen Merkatuen Ikerketa egitera, marketina. Soziologia oso teorikoa iruditu zitzaidan, ikerketa gehiago egingo genituela uste nuen, eta horregatik aldatu nintzen. Orain, asmatu egin nuela uste dut.

**Prestakuntza Pedagogiko ikasketak ere egin zenituen.**

Txikitan, nagusitan zer izan gura nuen galdetzen zidatenean beti erantzuten nuen irakasle izan gura nuela. Ez dakit ama irakaslea delako-edo... Eta irakasle izatea zer den jakin ahal izan dut Arizmendin eman ditudan eskoletan. Gustura ibili naiz, baina enpresan lan egitea zer den ere ikusi gura dut.

**Mexikora joango zara horretara.**

Halaxe da, urtarrileko lehenengo astean abiatuko naiz Mexiko aldera. Gasteizko Ega Master enpresarendako egingo dut lan. Erremintak egiten dituen enpresa da hori, eta salmenten %80 nazioartean egiten dute. Nire lana izango da lurralde horretako merkatua aztertzea, eta enpresa hori merkatu horretan zelan moldatzen den aztertzea: bezeroen gogobetetasuna neurtu...

**Pazientzia handiarekin joan beharko duzu Mexikora, *ahorita mismo* esaldi ezagunarekin ez nekatzeko.**

Egia da Mexikon beste erritmo batean bizi direla, eta lan ere horrela egiten dute, hemen baino lasaitasun handiagoarekin. Baina egia da gu ere topera ibiltzen garela, eta ez dakit zer den hobe.

**Aretxabaletako orkestrak diskoa atera duenean utziko duzu taldea.**

Bai, eta horrek pena apur bat ere ematen dit, baina handik itzultzerakoan jarraitzeko asmoa daukat. 6 urte nituela hasi nintzen akordeoia jotzen eta akordeoi orkestrak dagoeneko 14 urteedo izango ditu. Hasieran txikien orkestran hasi nintzen, eta aurrerago elkartu egin ginen.

**Zer-nolako diskoa grabatu duzue?**

Ez genuen gura beste orkestra batzuek egin dutena errepikatu, eta horregatik ibili gara estilo askotariko abestiak aukeratzen. Gainera, ez gara euskal abestietara mugatu. Badaude abesti euskaldunak, baina baita tangoak, doinu zeltak, abesti klasikoak... Hala, akordeoilarien, perkusionisten, zuzendariaren eta guraso guztien ahaleginarekin egindako lana izan da.

**Eta, Mexikon zelan moldatuko zara akordeoia jotzeko?**

Ez dut uste neurea hemendik eraman ahal izango dudanik; lehenengo bidaian ez, behintzat. Baina hemengo irakasleak kontaktu mordoa ditu han, eta seguru akordeoi bat lortzeko nolabait moldatuko naizela.

**Gainera, Aretxabaletako orkestrak Mexikora joateko asmoa dauka, ala?**

Halaxe da. Lehenago ere egon ginen, 2004an, eta sekulako bidaia izan zen. Orkestrarekin Europa aldean asko ibili gara, baina Mexikokoa demasa izan zen. 2007an Mexiko Hiriko euskal etxeak 100 urte egingo dituenez, berriro ere gonbidatu gaituzte. Ni ez naiz urrun ibiliko, eta ahaleginduko naiz orkestra Mexikora doanean eurekin elkartzen.

**Musika alde batera utzi barik, esan digute neguan izerdia botatzeko kirol berezia aukeratu duzula.**

(Barre). Bai, *body combat* egiten hasi naiz. Kiroldegian zeuden aukerak ikusten hasi eta hori aukeratu nuen, probatzekoedo... Bertan gabiltzanok behin baino gehiagotan esan dugu asmatu egin dugula hori aukeratzen, izerdi ederrak botatzen ditugu-eta.

**Azaldu, bada, zer egiten duzuen *body combat* horretan.**

Azken batean, dantza moduko bat da, borroka eta dantza bateratzen dituena. Boxeoko mugimenduak egiten ditugu, ostikoak, mota askotariko ukabilkadak... Baina oraindik ez gara elkarri joka hasi. Aerobik eta horrelakoak baino dibertigarriagoa dela uste dut.








XABIER URTZELAI

**PERTSONALA**

**Herria:** Aretxabaleta. **Adina:** 23 urte. **Zaletasunak:** Musika, lagunekin ibili eta inguruko bazterrak bisitatu. **Eta, ze bazter aukeratuko zenuke?:** Bizkaiko kostaldea. **Akordeoia alde batera utzita, musika instrumentu bat:** Gitarra espainola. **Betetako amets bat:** Orain momentuan, beka hori lortu izana. **Mania bat:** Ez dakit mania den, baina hitzorduetara apur bat lehenago iristea gustatzen zait. **Gustuko eszenatoki bat?:** Eszenatoki handietan ez gara horren gustura egoten; gustura gauden edozein.

## berriak

> GOITB

### Urtezahar gauerako Goiena Telebistaren eskaintza

Aurten, lehenengo aldiz, Goiena Telebistak ez du emisioa etengo Urtezahar gauean. Urtezaharreko kanpaiekin batera etorriko da Porrotxen eta Goienako hainbat langileren agurra. Udako doinurik entzutetsuenarekin esango digute *Maite zaitut*. Ondoren, Edu Muruamendiaraz ibarreko dantzariaren *Aukera dantza taldea bederatzi urte Seguran* emanaldia ikusi ahal izango dugu.

> GOITB

### Gabonetarako sukaldaritza proposamenak

Goierri Telebistak ekoiztutako sukaldaritza saioa eskainiko dizuegu egunero, hilaren 26an hasita. Egunero bi emanaldi izango ditu, 14:30ean eta 20:00etan. Saio horietan, Goierriko hainbat sukaldarik Gabon egunetarako egiten diguten proposamenak ikusiko ditugu. Egun hauetan, gure etxeko sukaldeetan jaki bereziak prestatu ohi ditugu; oraindik zalantzan bazabiltza, GOITBn duzu aukera.

>ARRASATE IRRATIA

### Urtarrilaren 8an itzuliko da 107.7ko autobusa uhinetara

2006ak eman du berea eta dagoeneko 107.7ko autobusa datorren urteko ibilbideak prestatzen dabil. Urtarrilaren 8an itzuliko da.

Gabonetako oporraldian, baina, abenduaren 25ean hasi eta urtarrilaren 7a bitartean, irailetik hona irratian izan dugunaren laburpena eskainiko dizuegu, egunero, goizeko 10etan izango diren elkarrizketa bildumen bitartez.

> ARRASATE IRRATIA

### Gabonetako oporretan 'Danbaka' saioak egunero

Urtarrilaren 12an izango da Elgetako Espaloia antzokian Danbaka musika lehiaketaren finala. Bien bitartean, irratiaren bitartez jarraitu ahal izango duzue musika lehiaketaren bigarren edizioak orain arte eman duena.

Horrela, bada, egunero izango duzue, abenduaren 23an hasi eta urtarrilaren 7a bitartean, talde baten kontzertuarekin gozatzeko aukera. Bi hitzordu dituzue: arratsaldeko 4retan eta gaueko 11etan.

**'JAIAK 2006: SANTAMASAK'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Santamas jaien inguruko saio berezia gaur bertan

Txomin Madina eta Imanol Gallego kazetariak ibiliko dira Arrasateko kaleetako giroa jasotzen

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Aurten ere hemen ditugu, Gabonen atarian, Arrasateko Santamas jaiak. Goiena Telebistak gaur bertan, 22:15ean, Santamas jaien inguruko saio berezia eskainiko dizue. Fruta eta barazkien azoka bisitatuko dute gure kazetariek eta kameralariek, inguruko baserritarren ganadua erakutsiko digute, artisauen lana ere hurbiletik ezagutzeko aukera izango dugu, herri kirolak eta Igor Etxanizen doma bakeroaren erakustaldia, pintxo lehiaketa... Eta, nola ez, kaleko giroa: txerria, zanpantzarrak, taloa eta txorizoa, loteria...



SANTAMASAK Azokako eta kaleko giroa jasoko dute gaurko saioan. A. GILLENEA

**'GABONETAKO PROGRAMAZIOA'**

# Gabonetan ere, Goiena Telebista eskaintza zabalarekin dator

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Gaur bertan, abenduak 22, aurtengo azken informatiboa eskainiko digu Goiena Telebistak. Datorren urtarrilaren 2an itzuliko dira ohiko albistegiak Goiena Telebistako programaziora, betiko ordutegian.

Hala ere, programazio eskaintza zabala izango da Gabonetan. Domekan, hilak 24,Arrasateko Doke antzerki taldeak estreinatu berri duen *Actto para la Noche Buena* antzezlana ikusteko aukera izango dugu, 21:45ean. Astelehenean ere, hilak 25, aukera izango da antzezlana ikusteko, 14:00etan. Danbaka saioko emanaldiak ere ohiko ordutegi eta egunetan eskainiko dituzte. Datorren martitzenean, hilak 26, Five Twister talde arrasatearraren kontzertua ikusi ahal izango dugu. Eguenean, hilak 28, Espaloia Kafe antzokiko taula gainean izango dugu Anal Bag taldea.

Bertsolaritzak ere izango du bere tartea. Santamas jaietako bertso saioa ikusi ahal izango dugu, eguaztenean, hilak 27, arratsaldeko seietan.

Gozatu Gabonekin ere zure ibarreko telebistan.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

### AutodeTELEminazioa

Eguneroko audientzia-datuak begiratuta, geurean kanpoko telebistek lortzen duten arrakasta agerian dago. Adibidez, Tele 5 bezalako kanal batek estatu espainiarrean baino merkatu kuota hobea du EAEn. Gainera, horri gehituz gero dugun bizi-maila eta kontsumo portaera oparoa, ageri-agerian geratzen da hemengo merkatua zenbaterainokoa zaien interesgarri. Publizitateaz gorpuzten diren kanal horien babesle hoberenak gara. *Meaculpa*-rik gabe, baina egiten dugunaz jabetuta.

Izan ere, hemengo publikoa gogoan edukita egiten dira hainbat telesailen gidoiak, albistegien edukiak erabaki eta, beste muturrera jota, prentsa-arrosako saioak pantailaratzen dituzte. Esaten dugunaren gainetik egiten dugunak agintzen duelako, gu gara telebista kanal horien jarraipena markatzen duen faktore nagusietakoa. Horregatik, uste dut telebistaren auto-kontsumoa mugatzeko gaitasuna berreskuratu beharra dugula. Eta, piztu ala ez erabakitzeaz gain, zein kanaletan geratzen garen pentsatu beharreko kontua da. Inoren agindueta jarri barik.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Danbaka lehiaketako finalisten gainean, Iker Barandiaran eta Itziar Iturbe epaimahaikideekin; zeltarren egutegiaren gainean Pello Zabalarekin;...
**16:00** Danbaka:Inalectric .
**23:00** Danbaka: Inalectric.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
**16:00** Danbaka: Little little much.
**23:00** Danbaka:Little little much.

**Abenduak 25-urtarrilak 7**
**10:00** Elkarrizketa bilduma.
**16:00** Danbaka.
**23:00** Danbaka.

**Urtarrilaren 8tik aurrera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegiak
Elkarriizketak
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 22**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Danbaka-Little Little Much. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Bizitegia **16:45** Albisteak. **17:15** Sherlock Holmes. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Sustatu 5 urte. **18:45**Albisteak. **19:15** Danbaka berezia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan **22:15**Santamasak 06. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Jazmina. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 23**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmesk eta Snorkeldarrak. **11:00** Ikusmira. **11:30**Jazmina. **12:00** Astekoak. **12:15**Bizitegia. **12:30** Didjeridu **13:00** Eltze beroa **13:30** Sustatu 5 urte. **14:30** Danbaka. **15:00** Teknopolis. **15:30** Hitz bitan.**16:00** Danbaka berezia. **16:30** ISantamasak 06. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**16mm. **20:30**1Didjeridu. **21:00**Berbaire.**21:30**Danbaka. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean-Porrotx. **23:00**Danbakako kontzertuak. **00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 24**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. **11:00** Hitz bitan. **11:30**Danbakako kontzertuak. .**13:00**Bizitegia. **13:30**Berbaire. **14:00**Astekoak. **14:15**KMKT. **14:30**Santamasak 06**. 15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Jazzmina. **18:30**Hitz bitan. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Astekoak-Gatza ta berakatza.**20:30** Santamasak 06 **21:00** Sustatu 5 urte. **21:45** Doke antzerkia:Acto para la Nochebuena .**23:00**Ilunpean-Porrotx.**23:30** Kilometroak 07 desfilea**00:00** Izan ziren-Gabonak.**00:20** Mandio.**00:50** Danbakako kontzertuak.**02:30** Emisio amaiera

**Astelehena, 25**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. **11:00** Danbakako kontzertuak. **12:30**Mandio. .**13:00**Santamasak 06. **13:30**Izan ziren. **14:00**Doke antzerkia:Acto para la Nochebuena**..** **15:15** IGatza ta berakatza.**15:30** Ilunpean-Porrotx. **16:00**Marrazki bizidunak. **19:00** Ikusmirak. **19:30** Hitz bitan. **20:00** 16mm.**20:30** Teknopolis **21:00** Berbaire. **21:30** Eltze beroa.**22:00**Jazmina.**22:30** Danbakako kontzertuakk.**00:00** Emisio amaiera.

**Martitzena,26**
**13:55** Emisio hasiera. **14:00** Marrazki bizidunak: Nonochan. **14:30**Gabonetako sukaldaritza. **14:45**Sendabelarrak. **15:00** Danbaka-Inaelectrik. **15:30** Hasiberriak(kap16). **16:00** Ikusmira. **16:30** Santamasak 06. **17:00** Klip@. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gatza ta berakatza. .**18:00** Ilunpean-Porrotx. **18:30** Danbaka-Little Little Much. **19:00** Ilunpean-Iosu Unanue. **19:30** erreportajea-Adopzioak. **20:00** Gabonetako sukaldaritzak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Miarritzeko baleta. **22:15** Danbaka-The 5 twister. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Danbaka: Inalectrik. **22:45** Mandio. **23:15**erreportajea-N1. **23:45** Ilunpean-Markuleta. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 27**
**13:55** Emisio hasiera. **14:00** Marrazki bizidunak: Sherlock holmes. **14:30**Gabonetako sukaldaritza. **14:45**Sendabelarrak. **15:00** Danbaka-The 5 Twister. **15:30** Hasiberriak(kap17). **16:00** Hitz bitan. **16:30** Kmk desfilea. **17:00** Mkt. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gatza ta berakatza. .**18:00** Santamasetako bertso saioa. **19:30** erreportajea-San Juan de Dios. **20:00** Gabonetako sukaldaritzak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Sustatu 5 urte. **21:30** Ilunpean-Atxagar. **22:00** Hasiberriak(kap17). **22:30** Mandio.. **23:00**Erreportajea-Etorkinak. **23:30** Ilunpean-Joxe Felipea. **00:00** Emisio amaiera.

**Eguena,28**
**13:55** Emisio hasiera. **14:00** Marrazki bizidunak: Nonochan. **14:30**Gabonetako sukaldaritza. **14:45**Sendabelarrak. **15:00** DanbakaLittle Little Much. **15:30** Hasiberriak(kap18). **16:00** Sustatu 5 urte. **16:45**Klip@.. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gatza ta berakatza. .**18:00** Danbaka Inaelectrik. **19:30**Ilunpean-Martxelo Rubio. **20:00** Gabonetako sukaldaritzak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan **20:45** Santamasak 06. **21:15** Sustatu 5 urte. **22:00** Klp@. **22:15** Danbaka-Anal Bag. **22:45** Mandio. **23:15** Erreportajea Maizpide.**23:45** Ilunpean Martxelo Rubio **00:15** Emisio amaiera.

Jorge Fernandez > Telebista aurkezlea

# "Kanpaien emankizuna pauso handia da lanean; pena ezin dudala etxean ospatu"

Jorge Fernandezek bere ordutegian audientzia lider den 'La ruleta de la suerte' aurkezten du

T5en, Euskal Telebistan eta TVEn jardun ostean, orain A3 katean dihardu



Urtezahar gauean Puerta del Soletik hamabi kanpaien emankizuna egingo du Jorge Fernandezek A3 katerako. ANTENA 3

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Telebistan aurkezle lanetan ikusi dugu, baita hainbat telesaiotan ere. Arrasatearrak A3 telebista katean dihardu orain, *La ruleta de la suerte* lehiaketa aurkezten. Bada, Urtezahar gaueko hamabi kanpaien emankizuna aurkeztuko du kate horretan aurten.**

***La ruleta de la suerte* programan diharduzu. Gustura?**

Oso gustura. Liderrak gara audientzian gure ordutegian. Gaitza da %25eko audientzia lortzea, eta gure saioak lortu egiten du. Horrek lasaitasuna ematen dit. Familian ikusteko saio egokia da; gustuko ditut halako saioak.

**Saioak audientzia handia du. Zein da arrakastaren giltza?**

A3k aukera egokia egin zuen gure saioa goizean jarrita. TVE1 eta T5 kateetan ordu horretan magazinak daude, eta gurea alternatiba da.

**Lehiaketak gustuko dituzu?**

Bai. Gainera, ez naiz kazetaria; beraz, nire ezaugarrien arabera aisialdi eta entretenimendu saioak aurkezteko ikusten dut nire burua egokien. Askotariko lehiaketak aurkeztu izan ditut: musikaren gainekoak, galderetan oinarrituak... Nire antzerako aurkezle asko dago, eta horrelako saioak aurkezten jarraitzeko aukera dudan artean, ni pozik.

**Noiz arte jarraitzeko asmoa?**

Arrakasta duen bitartean mantenduko dutela uste dut, eta nik saioak irauten duen artean jarraitu nahi nuke. Horrek ziurtasuna eta egonkortasuna emango lidake. Gainera, saio arrakastatsu batean jarduteak bide ematen du beste saio batzuetan edo iragarkietan jarduteko ere. *Pasapalabra* eta *Quiero ser millonario* lehiaketek, esaterako, urte asko iraun dute.

**"Aisialdi eta entretenimendu saioak aurkezten ikusten dut nire burua egokien"**

**"Aurkezle moduan dihardut gusturen, baina aktore lanen bat ere hartuko nuke"**

**Lehiaketaz gain, beste proiekturik baduzu esku artean?**

Eguneroko saio batean jardunez gero gaitza da beste lan batzuk egitea. A3n egingo duten telesaio batean baliteke kapituluren batean paperen bat egitea.

**Aktore lanak ere egin dituzu hainbat telesaiotan. Berriz horretan jarduteko gogorik?**

Aurkezle moduan dihardut gusturen, baina telesaio edo film baterako paper bat eman eta oraingo lanarekin bateragarria balitz, onartu egingo nuke. Telesaioetan jende gehiagorekin lan egiten da eta protagonista izan ezean dibertitzeko aukera handiagoa izaten da; aurkezle lana astunagoa da.

**Aurkezle lanetan diharduzu, baina bada sekula aurkeztuko ez zenukeen saiorik?**

Hori sekula ezin da esan. Badira saio batzuk berez egingo ez nituzkeenak, baina egoeraren arabera aurkeztea egokituz gero, ezin ezetzik esan, betiere nire balioak errespetatuz, noski.

**Hainbat telebista katetan izan zara. Zeinetan gusturen?**

Bakoitzak berea eman dit. T5en hasi nintzen eta esperientzia polita izan zen. ETBn aurkezle moduan finkatuz joan nintzen *Date el bote* saioan; katea bera oso ondo portatu zen nirekin eta noizbait hara bueltatu gurako nuke. TVEn, Sevillan eman nuen urtebete eta gustura egon nintzen. Orain, A3n ere gustura nabil.

***Gran Hermano* ere aurkeztu zenuen. Baina sartuko zinateke *Gran Hermano*-ko etxean?**

Ez, sekula ere ez. Aurkezle bezala Espainian ezagun izateko aukera eman zidan, baina etxe batean, denen bistan, 24 orduz, ez nintzateke egongo.

**Zuzenean emango dituzu Urtezahar gaueko kanpaiak A3n, Madrildik.**

Egin izan dut Urtezahar gaueko saiorik, baina aurrez grabatutakoak izan dira. Aurten, ordea, zuzenean egin behar dut Madrilgo Puerta del Soletik, eta erreparo apur bat ematen dit; izan ere, denok daukagu gogoan behin aurkezle batek egindako hanka-sartzea... Baina nire lanbidean pauso bat gehiago da horrelako lan bat. Bestalde, ezingo dut egun horretan Arrasaten familiarekin egon, eta horregatik zalantzak izan nituen lana onartzerakoan.

## Estiloaren garrantzia: alkandora praken kanpotik alde batean

Modelo lanean jardundakoa da Jorge Fernandez eta jendeak oraindik erreparatzen dio aurkezlearen janzkerari. Alkandora praketan sartzen du, baina alde batean bakarrik, eta horren zergatia azaldu digu: "Moda aldizkari batean ikusi nuen eta gustatu egin zitzaidan. Hasieran, zuzendariek debekatu egin zidaten, audientzia maila altua lortu genuen arte; behin lortutakoan atera egin nuen alkandora".

0 km
ESKAINTZA BEREZIA
Mondeo
serie mugatua
6.000 euroko
deskontua.
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak


www.euskoauto.toyota.es




## Toyota Avensis berriaren gama.

Hobetzeko aldatu egin behar da. Eta horretarako detaile txikiak asko zaindu behar dira. Toyota Avensis berria ekipamendu eta diseinu berriarekin dator, dinamikoagoa eta bizkorragoa.

### Serieko ekipamendua:

- Aire-girogailu automatiko duala
- 9 aire-zaku (belauneko aire-zakua barne)
- VSC (egonkortasun kontrola) + TRC (trakzio kontrola) + BA (balaztatze asistentzia).
- Optitron instrumentazioa
- Irratia + CD irakurgailua, MP3 eta WMA irakurtzeko gauza da, bozgorailuak + aginte kontrola bolantean + prozesadore digitala + ASL (soinuaren oreka automatikoa).
- Aleaziozko hagunak
- Atzerako ispilu termoelektrikoak karrozeriaren kolorekoak. Elektronikoki tolesgarriak eta albo bateko keinu-argi integratuak
- Barruko ispilu elektrokromatikoa
- Argi eta euri sentsorea
- Cruise kontrola (1.8 WT-ak izan ezik)

**Toyota Avensis berria**, ondorengo akaberekin: Sol, Executive eta Sport.

### Toyota Avensis bat daukazu 21.800 €-tik aurrera.

Toyota babesle ofiziala LFP

TODAY TOMORROW TOYOTA

BERMEA 3 urte edo 100.000 Km. FINANCIAL SERVICES TOYOTA

Kontzesionarioa

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana ez dago barne. Iragarkiko modeloa: Toyota Avensis Wagon Sport. Kontsumo konbinatua 5,5 eta 9,6 l/100 km tartean. CO2 igorpena 146 eta 228 g/km artean.

# Abenduak 22-Urtarrilak 5

**LEIRE KORTABARRIA**
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## Kontzertua



ESKORIATZA
**> Johnny Cash-en bertsioak joko dituzte Arrasateko bi rock musikarik**

Arrasateko Des-Kontrol taldeko *Magu* kideak eta Enboskadako Asier Salak Johnny Cash musikari estatubatuarraren abestien bertsioen kontzertu akustikoa egingo dute hilaren 25ean, astelehena, Inkernu tabernan, 22:00etan.

## Antzerkia



ELGETA
**> 'Artea' antzezlan saritua egingo dute bihar, zapatua, Espaloia antzokian**

Yasmina Reza antzerki-idazle frantsesaren *Artea* antzezlana egingo du Txalo taldeak 22:30ean. Mundu osoan sari asko irabazitako lana da Rezarena. Artearen interpretazioak eta horrek giza harremanak zelan alda ditzakeen, horixe da gaia.

## Kontzertua



ARRASATE
**> Gabonetako kantak abestuko ditu Mississippi Mass Choir gospel taldeak**

*Singing Gospel Christmas* izeneko ikuskizuna aurkeztuko du AEBetako Mississippi Mass Choir gospel taldeak bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Ikuskizuneko abesti guztiak berriak dira.

# Musika

BERGARA
**> Pantxoa eta Peioren kontzerturako sarrerak salgai daude**

Pantxoa eta Peio musikari lapurtarrek kontzertua egingo dute abenduaren 29an Jam aretoan. Sarrerak salgai daude Jardunen, Jamen, Etxagin, Arranon, Kortazarren eta Pol-Polen. Bazkideendako, 6 euro kostatzen dira; gainerakoendako, aurrez erosita, 8 euro, eta unean, 10.

Antolatzailea: Jardun elkartea.

BERGARA
**> Hainbat musika emanaldi Ziripot tabernan**

Honako musika emanaldiak antolatu dituzte Ziripot tabernan: DJ Orlando (Ziripot) disko-jartzailea (gaur, egubakoitza); rock-and-roll gaua DJ Mansilla Rock-en eskutik (bihar, zapatua) eta DJ Aitor Ronda (Upfront records) vs. DJ Ene!!! (Kogollo party krew) disko jartzaileen festa etzi, domeka.

Egubakoitzeko eta zapatuko emanaldiak, 23:00etan; domekakoa, 00:00etan.

BERGARA
**> Hora Zulu taldearen disko aurkezpena eta techno jaia**

Granadako Hora Zulu metal eta flamenko fusio taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan disko berria, *El que la lleva la entiende*, aurkezteko. Gaur, egubakoitza, izango da.

Bihar, zapatua, gauerdian, techno jaialdia egongo da Jam aretoan hainbat DJren eskutik.

Hora Zulu-ren kontzertua, 19:30ean.

ARRASATE
**> Gabon egunetako kontzertuak 3.60 aretoan**

Hainbat kontzertu egongo dira 3.60 aretoan: bideo-rock gaua (gaur, egubakoitza, 23:00etan); DJ Ene!!! (Kogollo krew) (bihar, zapatua, 03:00etan); DJ Kaiet (Klorofila), Tito (Black&Decker) eta Angel (Kogollo krew) disko-jartzaileak (etzi, domeka, gauerdian). Abenduko azken astean DJ emanaldi gehiago izango dira.

Horrez gain, Espainiako Sex Museum taldeak kontzertua egingo du. Debagoieneko Radio Wings taldeak ere joko du gau horretan.

Sex Museum taldeak hilaren 29an, egubakoitza, joko du, 23:00etan.

OÑATI
**> Gabonetako kontzertua egingo du Oñati Abesbatzak**

Urtero egin ohi duten bezala, Gabonetako kontzertu berezia egingo dute Oñati Abesbatzako kideek Agustindarren elizan.

Bihar, zapatua, 20:00etan.

ARRASATE
**> Gabon zaharreko kontzertua egingo du Arrasate Musikalek**

Gabon zahar eguneko kontzertua egingo dute Arrasate Musikaleko ikasleek hilaren 31n, eskolan, 13:00etan.

Aurretik, 11:00etan, kalejira egingo dute.

# Erakusketak

BERGARA
**> Taldeko erakusketa ipini dute Beart elkartekoek**

Beart elkarteko kideek taldeko erakusketa ipini dute, azkenaldian egindako artelanak erakusteko.

Aroztegi aretoan dago zabalik astelehena, hilak 25, bitartean.

Bisita ordutegia: lanegunak, 18:00-20:30; zapatua, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeka eta jaiegunak, 12:00-14:00.

BERGARA
**> Taila eta zeramika erakusketa ipiniko dute Aroztegi aretoan**

Bergarako Taila Elkartearen eta Simon Arrieta Zeramika Taldearen artelanak ipiniko dituzte Aroztegi aretoan.

Abenduaren 29tik urtarrilaren 7ra.

ARRASATE
**> Juan Ramon Zugastik bere margolanak erakusten ditu**

Juan Ramon Zugasti margolariak bere lanen erakusketa dauka Harresi aretoan. Urtarrilaren 7ra arte izango da zabalik.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ARRASATE
**> Arrasateko artisten elkartasun erakusketa eta salmenta**

Gabonetan ohi duten bezala, Arrasateko artistek *Arrasateko artea munduari lagunduaz* izeneko erakusketa eta salmenta antolatu dute. Monterronen dago.

Bisita ordutegia: gaur, egubakoitza, 18:00-20:00; bihar eta etzi, horrez gain, 12:00-14:00.

# Ospakizunak

ANTZUOLA
**> Urte hasiera ospatzeko, Arrolara igoko dira mendizaleak**

2007. urteari ongietorria emateko, Arrola mendira igoera antolatu du Arrola elkarteak urtarrilaren 1erako.

Argibideak, elkarteko kideengandik.

ANTZUOLA
**> Umeendako Gabonetako jolasparkea ipiniko dute**

Gabonetako jolasparkea ipiniko dute urtarrilaren 2an, martitzena. 5 orduan egongo da zabalik goizez eta arratsaldez.

Frontoian egongo da parkea.

ARRASATE
**> Etorkinen inguruko erakusketa eta jaialdia, Ekinekin**

Etorkinen eta kultura aberastasunaren inguruko ekintzak antolatu ditu Ekin emakume elkarteak: abenduaren 26tik 29ra, erakusketa egongo da Monterronen; eta abenduaren 30ean, emakume etorkinen jaia egongo da.

Jaia Herriko plazan izango da, 18:30ean.

DEBAGOIENA
**> Olentzerok Debagoieneko umeak bisitatuko ditu**

Debagoieneko umeek Olentzerori ongietorria egiteko aukera izango dute etzi, Gabon eguna.

Iluntze partean iritsiko da Olentzero Debagoienera.

DEBAGOIENA
**> Ekialdeko Errege Magoak, Debagoieneko umeekin**

Ekialdeko Hiru Erregeek kabalgata egingo dute kalez kale, umeak agurtzeko.

Urtarrilaren 5ean, iluntzean, egingo dute kabalgata.

# Bestelakoak

ARETXABALETA
**> Sahararen aldeko jaialdia egingo dute bihar, zapatua**

Elkartasun jaialdia egongo da bihar, zapatua, Iesbaa eta Hiruatx elkarteek antolatuta.

Mitarte plazan izango da.

ARRASATE
**> Bertso saioa antolatu du AED elkarteak gaur, egubakoitza**

Bertso saioa egongo da Fredi Paia, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Manex Agirre eta Enaitz Alustitzarekin.

Amaia antzokian, 20:00etan.

PROPOSAMENA

ARRASATE, BERGARA
## > Antzinako azokak Santamasetan eta Napar Ferian

Tradizio handiko azoken zaleek horietaz gozatzeko aukera aparta dute. Izan ere, gaur, egubakoitza, Santamasetako fruta, barazki, ganadu eta artisautza azokak izango dira Arrasaten goiz osoan. Arratsaldean ere ekintza interesgarriak izango dira.

Eta bihar, zapatua, Napar Feria egingo dute Bergaran, San Antonion. Nafarroako produktuen azokaz gain, musika, meza, zezentxoak… izango dira.

Santamas azoka gaur, egubakoitza; Napar Feria, bihar, zapatua.



## nire aukera



**Miren Urkiola**
Oñati Irratiko esataria
Oñati

## "Gabon zahar gauean patata-tortilla jaten dut"

Urtero bezala, Olentzero ikustera Segurara joango gara, hangoa da-eta senarra. Espero dut hotz handirik ez egitea, inoiz egin izan du-eta! Olentzero ikusi, Seguran ikusten dut, baina haren opariak Ordizian, nire herrian, jasotzen ditugu; hortaz, Gabon eguna eta gaua kanpoan emango ditut, ohitura hori dugu-eta.

Hala ere, aurten Olentzero elkarrizketatu ere egingo dut. Izan ere, bi lankidek saio berezia egingo dute Eguberri egunean, eta nire lana Olentzero elkarrizketatzea da.

**Aurretik elkarrizketatu izan duzu Olentzero?**
Ez, lehenengo urtea da. Espero dezagun harekin hitz egitearen magia ez apurtzea eta ikatzik ez uztea!

**Gabonetako afariak, bazkariak... egiten dituzue?**
Hara: behin, Gabon zahar gauean, gurasoen etxean norbaitek patata-tortilla eskatu zuen eta denok afaldu genuen hori. Orduz geroztik, urtero tortilla afaltzen dugu, eta oso gustura, gainera.

**Baina Gabonetako gozoak gustatuko zaizkizu...**
Turroia jaten dut, bai, baina gusturen Gabon aurretik eta, demagun, otsailean jaten dut.

**Irratian ze lan izango duzue egunotan?**
Emisioa ez da etengo. Eguberri egunean saio berezia egongo da, eta beste saioetan, ekitaldietarako sarrerak-eta emanten ditugu.

**Zure umearekin Oñatin ere ibiliko zara...**
Bai, horixe! Ekintza guztietara joaten gara, eta erakusleihoetan Olentzero bila ibiltzen gara.

# Zinema

## ELGETA
### ESPALOIA ANTZOKIA

**Teléfono rojo, volamos hacia Moscú**
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI
### KULTURA ETXEA

**Collateral**
Eguena: 20:00.

## EIBAR
### UNZAGA

**El perfume**
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00, 22:15.

**Pequeño pero matón**
Zapatutik astelehenera: 17:00.

## GASTEIZ
### GURIDI

**Rompiendo el hielo**
Egub.-zap.: 17:30.
Domeka: 17:00.

**Ratonpolis**
Egub.-dom.: 17:00.

**Infiltrados**
Egub.-zap.: 22:00.

**Eragon**
Egub.-zap.: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Arthur y los minimoys**
Egub.-zap.: 17:00, 19:00.
Domeka: 17:00.

**La alianza del mal**
Egub.-zap.: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Scoop**
Egub.-zap.: 22:30.

**Déjà vu**
Egub.-zap.: 20:00, 22:30.

**Perez, gure sagutxo hori**
Egub.-zap.: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Vacaciones**
Egub.-zap.: 19:00, 22:30.

**Irresistible**
Egub.-zap.: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:00.

### FLORIDA-GURIDI

**Cándida**
Egub.-zap.: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Quinceañera**
Egub.-zap.: 20:00, 22:30.

**Mía Sarah**
Egub.-zap.: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Cristobal Molon (eusk.)**
Egub.-dom.: 17:00.

**El ilusionista**
Egub.-zap.: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:00.

**El gran silencio**
Egub.-zap.: 18:45, 21:50.

**Kubo magikoa**
Egub.-zap.: 17:00, 18:30.
Domeka: 17:00.

**Nunca digas nunca**
Egub.-zap.: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:00.

**El perfume**
Egub.-zap.: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Eragon**
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

**Déjà vu**
20:00, 23:00.

**Ratonpolis**
16:00, 18:00, 20:00.

**Arthur y los minimoys**
16:00, 18:00, 20:00.

**Casino Royale**
20:00, 23:00.

**Colegas en el bosque**
16:00, 18:00, 20:00.

**Natividad**
22:00, 00:30.

**Santa Claus 3**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Yo soy la Juani**
22:00, 00:30.

**Isi / Disi: alto voltaje**
20:00, 22:00, 00:30.

**Pepper (euskaraz)**
16:00, 18:00.

**Mentes en blanco**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Karamuk (euskaraz)**
16:00, 18:00.

**Rompiendo el hielo**
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Casino Royale**
18:50, 21:40, 00:30.
Domeka: 16:00, 19:00, 22:00.

**Déjà vu**
19:40, 22:10, 00:40.

**Infiltrados**
18:25, 21:30, 00:20.

**El perfume**
19:15, 21:50, 00:25.

**Cándida**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:15.

**Scoop**
Egub.-dom.: 12:15.

**El camino de los ingleses**
20:10, 22:25, 00:45.

**El ratoncito Pérez**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15.

**Eragon**
12:15, 15:45, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 17:00, 18:00.

**Isi / Disi: alto voltaje**
Egub.-dom.: 12:15, 15:30, 17:10.

**Un buen año**
Egub.-dom.: 12:15, 15:50, 18:05.

**Rompiendo el hielo**
Egub.-dom.: 12:15, 15:30, 17:35.

**Arthur y los minimoys**
Egub.-dom.: 12:15, 16:10, 18:10.

**El ilusionista**
20:20, 22:35, 00:50.

**El laberinto del fauno**
19:45, 22:00, 00:15.

**Colegas en el bosque**
Egub.-dom.: 12:15, 16:05, 18:05.

**Ratonpolis**
12:15, 15:40, 17:30.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20.

**Mentes en blanco**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30.

**¡Peligro, menores sueltos!**
Egub.-dom.: 12:15, 16:00, 17:50.

**Vacaciones**
19:40, 22:10, 00:40.

**Natividad**
12:15, 16:00.
Domeka: 12:15, 17:30.

**Saw 3**
00:00.

**Volver**
22:15, 00:35.

**Santa Claus 3**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00.

Egubakoitzeko eta zapatuko emanaldiak bakarrik, zehaztutakoak izan ezik.

### ÁBACO BOULEVARD

**El camino de los ingleses**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 01:00.

**Colegas en el bosque**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

**Eragon**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 17:00, 18:10, 19:30, 20:20, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:00, 16:00, 17:00, 18:05.

**Arthur y los minimoys**
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:15, 20:20.
Domeka: 12:10, 16:05, 18:10.

**¡Peligro, menores sueltos!**
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:20.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25.

**El ilusionista**
Egubakoitza eta zapatua: 22:25, 00:45.

**Ratonpolis**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:15, 17:00.

**Casino Royale**
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:05, 01:00.

**Mía Sarah**
Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 00:30.

**Déjà vu**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:05, 00:45.
Domeka: 12:15, 17:00.

**Scoop**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00, 00:30.

**Vacaciones**
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:20, 01:00.

**La distancia**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.

**El perfume**
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:15, 01:00.

**Isi / Disi: alto voltaje**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 00:30.

**Rompiendo el hielo**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:10, 20:20.

**La alianza del mal**
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:15.

**Pérez, el ratoncito**
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:15.
Domeka: 12:05, 16:20, 18:20.

**Cándida**
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.
Domeka: 12:10, 16:05, 18:10.

**El cubo mágico**
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:05.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:05.

Egubakoitzeko eta zapatuko emanaldiak bakarrik, zehaztutakoak izan ezik.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Eragon** **
AEB, 2006. Zuzendaria: Stefen Fangmeier. Aktoreak: Ed Speleers, Jeremy Irons, Sienna Guillory.
70 min. Akziozkoa, fantasiazkoa.
Eragon-ek harri urdin distiratsua aurkitzen du basoan, eta horrekin negurako jatekoak erostea pentsatzen du. Baina laster konturatuko da harria dragoi baten arrautza dela, eta magia eta boterez betetako mundu baten sartzen da horrela.

**Arthur y los minimoys** ****
AEB-Frantzia, 2006. Zuzendaria: Luc Besson.
102 min. Fantasia, animaziozkoa.
Arthur liluratuta dago amonak lotara joan aurretik kontatzen dizkion ipuinekin. Tartean, aitonak, desagertu aurretik, etxe atzealdean altxor misteriotsu baten inguruan idatzitako kontuak daude.

**Quinceañera**
AEB, 2006. Zuzendariak: Richard Glatzer eta Wash Westmoreland. Aktoreak: Emily Ríos, Jesse García, Chalo Gnzález, J.R. Cruz.
90 min. Drama.
AEBra joandako mexikar baten alaba da Magdalena. 15. urtebetetzeko festa prestatzen ari dela, egun baten haurdun dagoela konturatuko da. Aitak, hori jakindakoan, etxetik bota egiten du neska.

**¡Peligro, menores sueltos!**
AEB, 2006. Zuzendaria: Paul Freig. Aktoreak: Lewis Black, Wilmer Valderrama, Tyler James.
90 min. Komedia.
Gabon gaua da, eta behe-lainoak isolatuta utzi ditu hainbat pertsona aireportuan. Horietako batzuk hiru anai-arreba gazte dira. Aireportuko arduradunek gela berezi baten uzten dituzte, baina eurak ihes egiten saiatuko dira.

**Mentes en blanco**
AEB, 2006. Zuzendaria: Simon Brand. Aktoreak: Jim Caviezel, Greg Kinnear, Joe Pantoliano.
98 min. Thrillerra.
Bost gizon biltegi baten esnatzen dira. Giltzaperatuta daude, eta ez dira gogoratzen nor diren edo zelan iritsi diren haraino. Laster konturatuko dira bahiketa baten parte hartu dutela, bahitu ala bahitzaile diren jakin gabe, ordea.

**La alianza del mal**
AEB, 2006. Zuzendaria: Renny Harlin. Aktoreak: Steven Strait, Sebastian Stan, Laura Ramsey.
97 min. Beldurrezkoa.
Spenser akademian, inguruko boteretsuen seme-alabek ikasten dute. Hango lau ikasle elkarri lotuta daude, jatorria sakratua eta botere bereziak dituztelako. Halako baten, eurak bezalako bosgarren gazte bat agertzen da.

**Santa Claus 3**
AEB, 2006. Zuzendaria: Michael Lembeck. Aktoreak: Tim Allen, Elizabeth Mitchell, Eric Lloyd.
98 min. Komedia.
Scott Calvin-ek, edo Santa Claus-ek, beste abentura bat izango du: Jack Frost gaiztoak Gabonak bereganatu nahi ditu, eta Santa Claus-ek plan hori zapuztu beharko du.

**Nunca digas nunca**
Frantzia, 2005. Zuzendaria: Eric Civanyan. Aktoreak: Gérard Jugnot, Jean Dujardin, Mélanie Doutey.
100 min. Komedia.
Paris, 1830. Valentin gazte gonazale eta jokozalea da. Ez du bizitzan federik, are gutxiago maitasunean. Van Buck-ek, haren osabak, dirua eta negozioak maite ditu bakarrik. Halako baten, osabak Valentin baronesa batekin ezkonarazi nahiko du.

**El camino de los ingleses** **
Espainia, 2006. Zuzendaria: Antonio Banderas. Aktoreak: Alberto Amarilla, María Ruiz.
120 min. Drama.
Miguelito Dávila gaztea ospitalean egon da denboraldi baten. Han, poesia eta barne abentura irakatsi dio gizon irakurri batek. Uda iristen denean, Luli, bere musa, ezagutuko du; lagunekin esperientzia berriak izaten ditu; eta irakasle batekin harremana hasten du.

**Casino Royale** ***
Erresuma Batua-AEB-Txekia, 2006. Zuzendaria: Martin Campbell. Aktoreak: Daniel Craig, Eva Green, Mads Mikkelsen.
144 min. Thrillerra, akziozkoa.
James Bond espioiak 007 estatusa lortu ondorengo lehen misioa kontatzen da. Madagascarren, Mollaka izeneko terrorista zelatatu behar du, baina planak porrot egiten du.




## Vacaciones **

**Zuzendaria:** Nancy Meyers.
**Aktoreak:** Cameron Diaz, Kate Winslet, Jack Black, Jude Law.
AEB, 2006.
138 min. Komedia erromantikoa.

Gabonak heltzear daudenean, karteldegian Gabon garaian kokaturiko istorioak agertzen dira. Halako bat, *Vacaciones*, Nancy Meyersen azken komedia, daukagu: Los Angelesko neska batek eta Ingalaterrako beste batek, Gabon egunak igarotzeko, etxeak trukatzea erabakitzen dute. Hori dela eta, bizileku berrian jende berria ezagutuko dute, eta amodioa berpizteko aukera ere egongo da.

*Vacaciones* komedia sentimentala da. Halako argumentuak egoera nahasiak erabiltzeko eta barreak sortzeko aproposak izaten dira, baina, kasu honetan, Meyersek umorea erabiltzen badu ere, istorioaren alde arrosa eta sentimentala gehiago zaintzen eta indartzen du. Filmari saltsa pixka bat falta zaio, dena ezagunegia egiten zaigu, ia gertatu behar den guztia sumatzen dugu, ez dago ezusterik. Honekin ez dut esan nahi film aspergarria denik, ondo ikusten da-eta: garai honetako topikoekin ondo jolasten du, Gabon kantak entzuten dira, aktoreak onak eta erakargarriak dira, eta, orokorrean, zuzendariak ondo eramaten ditu eszenak. Hori bai, Kate Winsleten istorioak Cameron Diazenak baino xarma handiagoa du eta pertsonaiak hobeto azalduta daude; nahiz eta alde arrosa nagusitu, pertsonaien barneko tristura eta sentimenduak hobeto heltzen zaizkigu.

*Vacaciones*-ek denbora pasatzeko balio du; *Pretty Woman*, *Notting Hill* eta antzeko filmak gustuko dituen ikusleari gomendatzen diot.

**Antonio Zabala**



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2006-12-22

# Olentzerorendako gutun pila

**OLENTZERO** Posta-etxeetan lanez gainezka dabiltza: Olentzerori zuzendutako gutun ugari jaso dute

**ARRASATE** Gabonen aurretiko astean 5.000 bidalketa inguru jaso eta 15.000 kanpora bidaltzen dituzte egunero

**OÑATI** Etorkinak direla-eta, Argentina, Ekuador, AEB eta Kolonbiarekin izaten da hartu-eman handien egunotan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Debagoieneko posta-etxeetan zoratuta dabiltza egunotan. Olentzerori zuzendutako gutun pilo bat jaso dituzte azkenaldian eta lanez gainezka daude gure postariak. Olentzerok ere gogor egin beharko du lan domeka gauean eskatutako opari guztiak etxez etxe banatzeko.

Arrasateko Correoseko bulegoan 19 lagun ari dira lanean. Gabonen bezperetan lana dezente handitzen dela diosku Jose Luis Zalakainek, bulegoko arduradunak: "Guretako oso egun txarrak dira hauek. Santamasak igaro arte gutun eta pakete mordoa jasotzen ditugu. Irten baino pakete gehiago heltzen da bulegora: heldutako gauzek hirukoiztu egiten dute irtendakoen kopurua. Gabonen aurretiko astean 5.000 bidalketa inguru jasoko ditugu". Jasotako gauzen banaketa egiteko lau motor eta furgoneta baten laguntza daukate Arrasaten. Zalakainen arabera, zorion-postalak eta opari dezente banatzen dituzte. Olentzero omen da Gabonetako izarra: "Erregeek baino gutun gehiago jasotzen ditu".

**ZORION-POSTALAK**

Oñatin ere antzeko zerbait geratzen da. Correos Espainia mailako enpresa denez, Erregeei gutunak bidaltzen dietenei, oparitxo bat egin izan die Correosek. Olentzerorekin ez da halakorik gertatzen. Hala ere, Olentzerori zuzendutako gutun gehiago jaso dituztela diosku Maite Arizkorretak. 35 urte darama Oñatiko bulegoko arduradun: "Gabonetarako lana bikoiztu egiten zaigu. Etorkinak direla-eta, bereziki Argentina, Ekuador, AEB eta Kolonbiarekin izaten da hartu-eman handien. Zorion-postalak modan dira". 11 lagun ari dira lanean, horietako zazpi banaketa egiten. Arizkorreta bera ez da Gabonetan gutunak bidaltzekoa: "Hala ere, Erregeei zuzendutako gutun bat iritsi zen behin Madrildik: Oriente irakurri beharrean Oñati irakurriko zuen makinak, eta neskatila hari nik erantzun nion. Zur eta lur geratuko ziren...".




**GUTUNAK** Olentzerori zuzendutako gutunez gain, zorion-postalak ugaldu egiten dira egunotan. E.M.

## ahobero

### "Gizon honen [kazetari bat] arabera, Manuel Ruiz de Loperak ez du 15 urtean ezer onik egin; antza denez, Betisi hondamendia baino ez diot ekarri"

**Manuel Ruiz de Lopera** > Betis taldeko akzionista nagusia

Argi dagoena zera da: Lopera eta halako pertsonaiek ez diote mesederik egiten futbolari.

## iturri onetik

### Soraluce kooperatiba Osintxuko Txuringo jatetxea erosteko gertu dago

Bergarako Osintxu auzoan kokatuta dagoen Soraluce kooperatibak Txuringo jatetxea erosteko interesa azaldu du. Osintxuko Txuringo jatetxea orain dela aste gutxi batzuk itxi zuten eta salgai dago.

Soraluce kooperatibako arduradunen asmoa zera da: jatetxea erosi eta bertan langileendako jangela zerbitzua jartzea, lantokitik oso gertu baitago Txuringo.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Erdiguneak maite

Asaldatuta dabiltza Arrasateko merkatariak, Zabaletako denda gunearekin. Eta uste dut inguruko herrietan ere ez daudela oso lasai. Izan ere, horrelako gune handiek tiradizo itzela izaten dute jendearengan, ohiko denden kaltetan. Hala ere, beraiena defendatzen ari dira dendariak, baina ez hori bakarrik.

Jokoan daude herrietako erdiguneak, betiko kale, kantoi, karkaba eta… giroa. Kaleak husteko bidean ipini baino lehen, ondo aztertu behar dira ondorioak. Ze gero alferrik asmatuko dira jai bereziak, kaleak animatzeko. Behin hustuta, nekez. Gainera, ez dut uste hauteskunde bezperatan udalak une onenean daudenik hain epe luzeko gaiak erabakitzeko.

Patxadaz pentsatu behar da. Eta nik, erdiguneak ditut maite. Baina bizirik.

## ai, ene!



### Olentzero eskuzabal egonez gero...

Argazkian duzuen *pen drive*-a munduko dotoreenetakoa da: 350 diamante zuri ditu. Arazo bakarra, prezioa: 40.000 dolar inguru.

http://www.boingboing.net/

Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa
*Gabon zoriontsuak guztioi!*
PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project S.L.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Tellleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparpoject.com


Erakusketa aldatzeagatik deskontu bereziak